

Zenbakizko metodoak


MATLAB[®]

erabiliz

2.
edizioa

PROBLEMA EBATZIAK

Eugenio Mijangos



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

Zenbakizko metodoak MATLAB erabiliz Problema ebatziak

Eugenio Mijangos

2. Edizioa

CIP. Unibertsitateko Biblioteka

Mijangos, Eugenio

Zenbakizko metodoak MATLAB erabiliz [Recurso electrónico]: problema ebatziak / Eugenio Mijangos. – 2. ed. – Datos. – [Leioa] : Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea, Argitalpen Zerbitzua = Servicio Editorial, [2022]. – 1 recurso en línea : PDF (131 p.). – (Unibertsitateko Eskuliburuak = Manuales Universitarios)

Modo de acceso: World Wide Web.

ISBN: 978-84-1319-432-5.

1. Análisis numérico – Informática. 2. MATLAB (Programa de ordenador).

(0.034) 519.6

(0.034) 004.438MATLAB

© Eugenio Mijangos Fernández
Matematika Aplikatua eta Estatistika eta Ikerkuntza Operatiboa
Zientzia eta Teknologia Fakultatea
eugenio.mijangos@ehu.eus

© Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua

ISBN: 978-84-1319-432-5

Gaien Aurkibidea

1. MATLABi buruzko oinarrizko nozioak	1
1.1. Problemak	2
1.2. Problema batzuen ebazpena	6
2. Ordenagailuaren aritmetika eta errorearen analisia	11
2.1. Problemak	13
2.2. Problema batzuen ebazpena	22
2.3. Azterketa-problemak	28
3. Ekuazio ez-linealen ebazpena	31
3.1. Problemak	33
3.2. Problema batzuen ebazpena	39
3.3. Azterketa-problemak	44
4. Sistema linealak: metodo zuzenak eta iteratiboak	49
4.1. Problemak	51
4.2. Problema batzuen ebazpena	58
4.3. Azterketa-problemak	66
5. <i>QR</i> faktORIZAZIOA eta minimo karratu linealak	71

5.1. Problemak	74
5.2. Problema batzuen ebazpena	80
5.3. Azterketa-problemak	91
6. Ekuazio ez-linealen sistemen ebazpena	95
6.1. Problemak	98
6.2. Problema batzuen ebazpena	102
6.3. Azterketa-problemak	117

Hitzaurrea

Zenbakizko metodoak I irakasgaietan *Matematika Gradu 2. mailako euskarazko ikasleek argitaratu berria den egile honen* Zenbakizko metodoak MATLAB erabiliz testuliburua dute. *Liburu berri honen helburu nagusia da aurreko liburu teoriko hori osatzea, eta, bertan agertzen diren ariketa aukeratu batzuk eta beste ariketa berri batzuk ebatziz, irakasgai hori ulertzen laguntzea.*

Aurreko testuliburua bezala, liburu praktikoa hau ere oso erabilgarria izan daiteke bai Ingeniaritzako ikasketetan, eta baita Zientziako beste ikasketen batzuetan ere.

Liburu honen bidez zenbakizko metodoen oinarriak eskainiko dira, batez ere ikuspuntu praktikoa batetik. Iraganean, zenbakizko analisisian eta teorian oinarritzen zen zenbakizko metodoei buruzko ikasturte bat, baina, gaur egun, irakasgai horren edukia garatzean, kontuan hartu behar dugu ordenagailu ahaltzuak eta kalkulu-software eraginkorrak eskura izatea. Oraingo joera, gero eta gehiago, aplikazioetara eta inplementazioetara joatea da, jadanik prest dagoen kalkulu-tresneria erabiliz. Ikasturte batean, ikasleek zenbakizko metodoen oinarriak ikasiko dituzte. Gainera, ordenagailu-lengoaia batean programatzen ikasiko dute, eta software aurreratua erabiliko problemak ebazteko tresna gisa. MATLAB da horrelako softwarearen adibide egoki bat. Ikasleek beren programak idazteko erabil dezakete pakete informatiko hori, eta haren funtzioak problemak ebazteko tresna gisa.

Egilearen oharrak: *liburu honetan askotan ematen den [20] erreferentzia Zenbakizko metodoak MATLAB erabiliz testuliburuari dagokio, eta horrela agertzen da liburu osoan zehar. Dezimalekin erabili beharreko puntuazioari dagokionez, testuan koma eta programazio-ariketetan puntua ez erabiltzearen (hots, bereizle berdina izateko), puntuz bereiziko dira dezimalak, nahiz eta euskaraz dezimalak komaz banandu.*

2. edizioaren oharrak:

Edizio berri honetan egilearen asmoa aurrekoaren akats batzuk zuzentzea eta aukeratutako azterketa-problema batzuk eranstea da, hobekuntza arin batzuk sartuz.

1. kapitulua

MATLABi buruzko oinarrizko nozioak

Kapitulu honetan ikusiko dugu MATLAB paketea programa matematikoen multzo bat dela eta matrizeen erabileran oinarritzen dela. MATLAB izenak *MATrix LABoratory* esan nahi du, zeren bere oinarrizko datu-gaia matrize bat baita. MATLAB kalkulu teknikorako lengoia ahalsua da, eta oso erabilia da unibertsitateetan, Matematika, Zientzia eta Ingeniaritza ikasketetan. Pakete horrek zenbakizko programen eta marrazketa bidimentsionala eta tridimentsionala egiteko programa grafikoen bilduma zabal bat dauka. Gainera, goi-mailako lengoia erabiliz, programa gehigarriak idaztea onartzen du.

MATLAB paketearen instrukzioak **idazmakina-letraz** idatziko dira. Adibideetan ikusiko dugu MATLABeko lan-leiho batek (ingelesez: *command window*) erakusten diguna. Honelako `>>` ikur baten jarraian agertzen da sartutako datua edo instrukzioa. Nahi duguna idatzi eta gero, «sartu» tekla sakatu behar dugu; orduan, ordenagailuak eragiketa egingo du eta emaitza erakutsiko du, honela: `ans =`. Programarekin erabiltzeko gidak eta erreferentziako gidak datoz; eta laguntza-leihoan ere aurki daitezke instrukzioei buruzko eta haien aukerei buruzko informazio gehiago eta adibideak.

Hitzaurrean aipatzen den bezala, dezimalekin erabili beharreko puntuazioari dagokionez, testuan koma eta MATLABeko programazio-ariketetan puntua ez erabiltzearen (hots, bereizle berdina izateko), puntuz bereiziko dira dezimalak, nahiz eta euskaraz dezimalak komaz banandu.

1.1. Problemak

1. Defini ditzagun a , b , c eta d aldagaiak, honela: $a = 14.75$, $b = -5.92$, $c = 61.4$ eta $d = 0.6(ab - c)$. MATLABen bidez kalkula itzazu:

$$(a) \quad a + \frac{ab(a+d)^2}{c\sqrt{|ab|}} \qquad (b) \quad de^{d/2} + \frac{(ad+cd)/\left(\frac{25}{a} + \frac{35}{b}\right)}{a+b+c+d}.$$

2. Sortu tarte berak bereizitako lerro-bektore bat 16 gai dauzkana, non lehenengo gaia 4 baita eta azkena 61.
3. Sortu zutabe-bektore bat non lehenengo gaia 31 baita, hurrengo gaiak txikiagoak egiten baitira -4 gehituz, eta azkena -9 baita. (Zutabe-bektore bat sor daiteke lerro-bektore bat irauliz).
4. Sortu jarraian ematen den matrizea. Lerroak sartzean, erabili bektoreen notazioa tarte berak bereizitako bektoreak sortzeko. (Hots, ez sartu gaiak banan-banan.)

$$A = \begin{bmatrix} 0 & 1.0000 & 2.0000 & 3.0000 & 4.0000 & 5.0000 & 6.0000 \\ 3.0000 & 9.1667 & 15.3333 & 21.5000 & 27.6667 & 33.8333 & 40.0000 \\ 28.0000 & 27.7500 & 27.5000 & 27.2500 & 27.0000 & 26.7500 & 26.5000 \\ 6.0000 & 5.0000 & 4.0000 & 3.0000 & 2.0000 & 1.0000 & 0 \end{bmatrix}.$$

Lehenengo bi ariketetan bi puntuen ikurra ($:$) erabiliz, egin hau:

- (a) Sortu 4 gaiko lerro-bektore bat, va izenekoa, A -ren bigarren lerroko azken lau gaiak dauzkana.
- (b) Sortu 4 gaiko zutabe-bektore bat, vb izenekoa, A -ren seigarren zutabeko gaiak dauzkana.
- (c) Sortu 3×4 matrizea, B izenekoa, A matrizearen 1., 2. eta 4. lerroetako eta 1., 2., 4. eta 7. zutabeetako gaiak erabiliz.
- (d) Sortu 2×3 matrizea, C izenekoa, A matrizearen 2. eta 4. lerroetako eta 2., 5. eta 6. zutabeetako gaiak erabiliz.
5. Demagun $y = \frac{(x^3 + 1)^2}{x^2 + 2}$ funtzioa. Kalkula ezazu y -ren balioa x -ren balio hauetarako: -1.6, -1.2, -0.8, -0.4, 0, 0.4, 0.8, 1.2. Ebatzi problema hau x bektore bat sortuz eta gero y bektore bat sortuz, gaiez gaiko kalkuluak erabiliz. Bikote horietarako egin grafiko bat, non puntuak izartxo batez adierazita agertzen baitira, eta puntuak lotuta lerro beltzez. Etiketatu ardatzak.
6. Defini dezagun $a = 0.8$ eskalarra eta $x = -3, -2.8, -2.6, \dots, 2.6, 2.8, 3$. Orduan, erabili aldagai horiek honela, y kalkulatzeko: $y = \frac{8a^2}{x^2 + 4a^2}$. Marraztu y , x -rekiko.

7. Erabili MATLAB frogatzeko $\sum_{n=0}^{\infty} (-1)^n \frac{1}{2n+1}$ serie infinituaren batura, $\pi/4$ ra jotzen duena. Egin batura, hori kalkulatzuz, n -ren balio hauetarako:
- (a) $n = 100$
 - (b) $n = 1000$
 - (c) $n = 5000$.

Sortu n izeneko bektore bat alde bakoitzean, non lehenengo gaia 0 baita, gehikuntza 1, eta azken gaia 100, 1000 edo 5000 baita. Orduan, erabili gaiez gaiko kalkulua bektore bat sortzeko, non gaiak $(-1)^n \frac{1}{2n+1}$ baitira. Azkenik, erabili `sum` funtzioa seriearen gaiak batzeko. Konparatu (a), (b) eta (c) ataletan lortutako balioak $\pi/4$ balioarekin.

8. **St. Louis-eko Sarrerako Arkua** osatzen da ekuazio honen arabera:

$$y = 693.8 - 68.8 \cosh\left(\frac{x}{99.7}\right)$$

(oinetan neurtuta). Egin Arkuaren marrazki bat, non $-299.25 \leq x \leq 299.95$ oin.



Daniel Schwen CC BY-SA 3.0

9. Bektore bat honela emango dugu: $x=[15 \ 85 \ 72 \ 59 \ 100 \ 80 \ 44 \ 60 \ 91 \ 38]$. Baldintzazko egiturak eta begiztak erabiliz, idatzi programa bat 59 baino handiagoak diren x -ko gaien batezbestekoa kalkulatzeko.
10. Kosinu-funtzioaren balioa kalkula dezakegu serie infinitu honen bidez:

$$\cos x = 1 - \frac{x^2}{2!} + \frac{x^4}{4!} - \dots$$

Sortu M fitxategi bat, formula hori inplementatuz, hau egiteko: $\cos x$ -ren balioak kalkulatu, eta monitorean seriearen gai bakoitza erakutsi gehitzen dituen neurrian. Alegia, kalkulatu balio hauek elkarren segidan, eta erakutsi monitorean:

$$\begin{aligned} \cos x &= 1 \\ \cos x &= 1 - \frac{x^2}{2!} \\ \cos x &= 1 - \frac{x^2}{2!} + \frac{x^4}{4!} \\ &\vdots \end{aligned}$$

eta segi horrela zuk aukeratutako ordenara arte. Aurreko balio hurbildu bakoitzerako, kalkulatu ehuneko errore erlatiboa, eta erakutsi monitorean hau kontuan hartuz:

$$\text{errorea} = \frac{\text{egiazkoa} - \text{seriearen hurbilpena}}{\text{egiazkoa}} \times 100.$$

Proba bezala, erabili programa $\cos(1.5)$ kalkulatzeko, batuketan 8 batugai sartuta; hau da, seriea garatuz $x^{14}/14!$ batugaira arte.

11. Planoko puntu bat kokatzeko, bi koordenatu behar ditugu:

- Koordenatu kartesiarretan, (x, y) ardatzekiko distantzia horizontala eta bertikala.
- Koordenatu polarretan, (r, θ) erradioa eta angelua.

Koordenatu polarrak ezagutuz gero, nahiko erraza da koordenatu kartesiarrak kalkulatzea. Aldiz, alderantziz ez da hain erraza. Erradioa adierazpen honen bidez kalkulatzeko dugu:

$$r = \sqrt{x^2 + y^2}.$$

Puntua lehenengo edo laugarren koadrantean dagoenean (hots, $x > 0$), erraza da θ kalkulatzeko formula:

$$\theta = \arctan\left(\frac{y}{x}\right).$$

Beste kasuetarako agertzen da zailtasuna. Honako taula honek laburtzen ditu aukerak:

x	y	θ
<0	>0	$\arctan(y/x) + \pi$
<0	<0	$\arctan(y/x) - \pi$
<0	$=0$	π
$=0$	>0	$\pi/2$
$=0$	<0	$-\pi/2$
$=0$	$=0$	0

Idatzi M fitxategi ondo egituratu bat r eta θ kalkulatzeko, x -ren eta y -ren funtzioan. Adierazi θ -rako azken emaitzak, gradutan. Proba ezazu zure programa, kasu hauek balioztatuz:

x	y	r	θ
1	0		
1	1		
0	1		
-1	1		
-1	0		
-1	-1		
0	0		
0	-1		
1	-1		

12. Garatu M fitxategi bat, non 0tik 100erako zenbakizko balio bat igortzen badiogu, hark taula honi jarraituz letrazko kategoria bat bueltatuko baitigu:

Letra	Irizpidea
A	$90 \leq \text{zenbakizko balioa} \leq 100$
B	$80 \leq \text{zenbakizko balioa} < 90$
C	$70 \leq \text{zenbakizko balioa} < 80$
D	$60 \leq \text{zenbakizko balioa} < 70$
E	$\text{zenbakizko balioa} < 60$

13. Manning-en ekuazio hau erabil dezakegu uraren abiadura kalkulatzeko ubide ireki laukizuzen batean:

$$U = \frac{\sqrt{S}}{n} \left(\frac{BH}{B + 2H} \right)^{2/3},$$

non U = abiadura (m/s), S = ubidearen malda, n = marruskadura koefizientea, B = zabalera (m) eta H = sakonera (m). Datu hauek eskuragarriak dira bost ubidetarako:

n	S	B	H
0.035	0.0001	10	2
0.020	0.0002	8	1
0.015	0.0010	20	1.5
0.030	0.0007	24	3
0.022	0.0003	15	2.5

Idatzi M fitxategi bat ubide horietarako abiadura kalkulatzeko duena. Sartu balio horiek matrize batean, non zutabe bakoitzak parametro bat adierazten baitu eta lerro bakoitzak ubide bat. Monitorean taula-itxura izan behar du M fitxategiaren irteerak; baina handituta, bosgarren zutabe batekin, non ubide bakoitzari dagokion abiadura agertzen baita, zutabeak etiketatzeko taularen goiburuak sartuta.

14. Habe baten desplazamendua honelako funtzio batek neurtzen du:

$$y(x) = \frac{-5}{6} [\langle x-0 \rangle^4 - \langle x-5 \rangle^4] + \frac{15}{6} \langle x-8 \rangle^3 + 75 \langle x-7 \rangle^2 + \frac{57}{6} x^3 - 238.25x,$$

non x habearen zeharkako distantzia baita, eta *singular-tasun-funtzioa* honela definitzen baita:

$$\langle x-a \rangle^n = \begin{cases} (x-a)^n, & x > a \text{ denean} \\ 0, & x \leq a \text{ denean} \end{cases}$$

Garatu M fitxategi bat, x abszisa eta y ordenatua dituen grafiko bat egiteko.

15. Likido baten B bolumena, r erradiodun eta L luzeradun zilindro horizontal baten barnean, likidoaren h sakoneraren menpean dago formula honen bidez:

$$B = \left[r^2 \arccos \left(\frac{r-h}{r} \right) - (r-h) \sqrt{2rh - h^2} \right] L.$$

Garatu M fitxategi bat, bolumena/sakonera grafiko bat marrazteko. Proba ezazu programa, $r = 2$ m eta $L = 5$ m denean.

16. «Zatitu eta erdibanatu» metodoa, a zenbaki positibo baten erro karratua hurbiltzeko metodo zaharra, honela formula daiteke:

$$x = \frac{x + a/x}{2}.$$

Idatzi `while ... break` begiztako egituran oinarritutako M fitxategi ondo egituratu bat, algoritmo hori inplementatzeko. Erabili koska egoki bat, egitura argi bat izateko moduan. Urrats bakoitzean, balioetsi zure hurbilpenaren errorea adierazpen honen bidez:

$$\varepsilon = \left| \frac{x_{berria} - x_{zaharra}}{x_{berria}} \right|.$$

Errepikatu begizta ε -ren balioa, zuk emandako ε_e tolerantzia bat baino txikiago izan arte. Diseinatu zure programa, emaitza eta errorea emateko. Ziurta ezazu zuk kalkula ditzakezula zero edo zero baino txikiagoak diren zenbaki guztien erro karratuak. Azken kasu horretan, erakutsi emaitza zenbaki irudikari bat bezala. Esate baterako, monitorean -4ren erro karratuaren itzultzeak $2i$ izan behar du. Proba ezazu zure programa $a = 0, 2, 4$ eta -9 balioztatuz, $\varepsilon_e = 10^{-4}$ hartuz.

17. *Zatikako funtzioak*, batzuetan, oso erabilgarriak dira menpeko aldagaiaren eta aldagai askearen arteko erlazioa ekuazio bakar batean adierazi ezin dugunean. Adibidez, honela deskriba liteke espazio-suziri baten abiadura:

$$v(t) = \begin{cases} 11t^2 - 5t, & 0 \leq t \leq 10 \\ 1100 - 5t, & 10 < t \leq 20 \\ 50t + 2(t - 20)^2, & 20 < t \leq 30 \\ 1520e^{-0.2(t-30)}, & t > 30 \\ 0, & \text{beste kasu batean.} \end{cases}$$

Garatu M fitxategi bat v kalkulatzeko t -ren funtzioan. Orduan, erabili $v = v(t)$ funtzio hori, grafiko bat sortzeko $t = -5$ etik $t = 50$ arte (t abszisa eta v ordenatua erakutsiz).

1.2. Problema batzuen ebazpena

1.

```
(a) a=14.75;
    b=-5.92;
    c=61.4;
    d=0.6*(a*b-c);
    a+((a*b*(a+d)^2)/(c*sqrt(abs(a*b))))
    ans =
    -829.5390
```

$$(b) \quad d \cdot \exp(d/2) + (((a \cdot d + c \cdot d) / (25/a + 35/b)) / (a + b + c + d))$$

ans =

-84.7934

3. $A = (31:-4:-9)'$

5.

```
x=-1.6:0.4:1.2
y=((x.^3+1).^2)./(x.^2+2)
plot(x,y,'-k')
xlabel('X')
ylabel('Y')
```

7.

```
(a) n=[0:100];
v= (-1).^n./(2*n+1);
% Batuketa:
batura=sum(v)
% Konparaketa:
(pi/4-batura)*4/pi
```

```
(b) n=[0:1000];
v= (-1).^n./(2*n+1);
% Batuketa:
batura=sum(v)
% Konparaketa:
(pi/4-batura)*4/pi
```

```
(c) n=[0:5000];
v= (-1).^n./(2*n+1);
% Batuketa:
batura=sum(v)
% Konparaketa:
(pi/4-batura)*4/pi
```

9. Lehenengo eta behin, bb59 funtzioa definitzen dugu:

```
function [bb] = bb59(x)
```

```
% 59 baino handiagoak diren x bektoreko gaien batezbestekoa kalkulatzeko
```

```
% duen funtzioa.

Elementu_kopurua=length(x);
Bektorea=[];
Zenbatzailea=1;
for i=1:1:Elementu_kopurua
    if x(i)>59
        Bektorea(Zenbatzailea)=x(i);
        Zenbatzailea=Zenbatzailea+1;
    end
end
bb=mean(Bektorea)
end
```

Gero hau egiten da:

```
x=[15 85 72 59 100 80 44 60 91 38];
Batezbestekoa=bb59(x)
```

11.

```
function [r,theta] = polar(x,y)
% Sarrerako balioak: x eta y koordenatu kartesiarrak
% Irteerako balioak: r eta theta koordenatu polarrak
r=sqrt(x^2+y^2);
if x>0
    theta=atan(y./x)
elseif x<0 & y>0
    theta=atan(y./x)+pi
elseif x<0 & y<0
    theta=atan(y./x)-pi
elseif x<0 & y==0
    theta=pi
elseif x==0 & y>0
    theta=pi/2
elseif x==0 & y<0
    theta=-pi/2
else
    theta=0
end
```

Gero, esate baterako, hau egin daiteke:


```
x=-1; y=-1;
[r,theta] = polar(x,y)
r =
```

```
1.4142
```

```
theta =
```

```
-2.3562
```

13.

```
function ur_abiadura
n=[0.035 0.020 0.015 0.030 0.022];
S=[0.0001 0.0002 0.0010 0.0007 0.0003];
B=[10 8 20 24 15];
H=[2 1 1.5 3 2.5];
abi=(sqrt(S)./n).*((B.*H).*(B+2*H)).^(2/3)
disp('-----')
disp(' n          S          B      H      abiadura')
disp('-----')
for i=1:5
fprintf('%5.3f    %5.4f    %2d    %3.1f    %7.4f\n',n(i),S(i),B(i),H(i),abi(i))
end
disp('-----')
end

>> ur_abiadura
```

exekutatzean hau lortuko dugu:

```
-----
n          S          B      H      abiadura
-----
0.035    0.0001    10    2.0    12.2284
0.020    0.0002     8    1.0    13.1284
0.015    0.0010    20    1.5    164.6170
0.030    0.0007    24    3.0    147.3659
0.022    0.0003    15    2.5    64.9898
-----
```


17. Zatikako funtzioa kodetzen dugu:

```
function y=v(t)
for k=1:length(t)
    if t(k)>=0 && t(k)<=10
        y(k)=11*t(k)^2-5*t(k);
    elseif t(k)>10 && t(k)<=20
        y(k)=1100-5*t(k);
    elseif t(k)>20 && t(k)<=30
        y(k)=50*t(k)+2*(t(k)-20)^2;
    elseif t(k)>30
        y(k)=1520*exp(-0.2*(t(k)-30));
    else
        y(k)=0;
    end
end
end
```

Gero, hau egiten badugu:

```
t=-5:0.1:50;
y=v(t);
plot(t,y)
grid on
xlabel('t')
ylabel('v')
box off
```

irudi hau lortuko dugu:



2. kapitulua

Ordenagailuaren aritmetika eta errorearen analisisia

Soluzio bat lortzeko erabiltzen dugun ordenagailua tresna inperfektua da. Izan ere, mugatuta dago hark duen gaitasuna zenbakiak zehaztasunez adierazteko. Ondorioz, makinak berak lortzen dituen emaitzek erroreak dituzte.

Bestalde, metodo hurbilduak erabiltzen baditugu, erroreak sortzen dira. Adibidez, abiaduraren deribatua kalkulatzeko (punting-jauzilariaren adibidean bezala) diferentzia finituak erabiltzean:

$$\frac{dv}{dt} \approx \frac{\Delta v}{\Delta t} = \frac{v(t_{i+1}) - v(t_i)}{t_{i+1} - t_i}.$$

Auzia da, beraz, nola maneiatu horrelako ziurgabetasuna.

Ordenagailu bat erabiltzen denean problema baten zenbakizko soluzio bat lortzeko, programak gauzatzen ditu erabilitako zenbakizko metodoari elkartutako eragiketak. Zenbakizko metodo batzuk errazak dira implementatzeko, baina batzuetan prozedurak zailak dira programatzeko.

Zenbakizko metodo bat programatu baino lehen, oso onuragarria da metodoa inplementatzeko jarraitu behar ditugun urrats guztiak planifikatzea. Horrelako plan bati *algoritmo* deritzogu, eta soluziora heltzeko urratsez urratseko instrukzioen bilduma da.

Zenbakizko kalkuluaren praktikan, kontuan hartu behar dugu ordenagailuak lortutako emaitzak ez direla soluzio matematiko zehatzak. Hainbat faktorerengatik, soluzioaren zehaztasuna txikitu daiteke, eta zailtasun hori ulertzeak maiz gida gaitzake algoritmo egokiak eraikitzea. Diskretizazio/trunkatze erroreak eta biribiltze-erroreak aztertuko ditugu.

Puntu higikorreko sistemetan dugun zenbaki dezimalen adierazpena eta beren bakartasuna. Horrelako sistema batean digituak inaustea eta biribiltzea. Ikusiko dugu, baita ere, nola

adierazten dituen zehaztasun bikoitza duen ordenagailu batek puntu higikorreko zenbakiak eta zelako mugak dituen.

Kontuan hartu behar dugu kalkulu batzuetan gerta daitekeen *zifra esanguratsuen ezeztapena*, eta horrek emaitzetara ekar dezakeen zehaztasunaren okertzea zifra esanguratsu batzuk galtzeagatik; esate baterako, kenketetan kasu batzuetan.

Azkenik, kontuan hartuko dugu datuen hasierako erroreak hedatzen direla eragiketen kate batean zehar. Edozein zenbakizko prozesutan, kualitate desiragarria da hasierako baldintzetako errore txiki batek azken emaitzan errore txikiak eragitea. Algoritmo batek propietate hori badauka, *egonkorra* dela esango dugu; bestela, *ezegonkor* deritzo. Ahal den neurrian, metodo egonkorrak aukeratuko ditugu.

2.1. Problemak

Eskuz ebazteko problemak:

1. Egin [20] liburuko 3.3. adibidearen pareko kalkuluak $x_0 = 0.5$ puntuko $f(x) = e^{-2x}$ funtzioaren deribatua hurbiltzeko. Behatu antzekotasunak eta desberdintasunak, zure taula adibideko taularekin konparatzean.
2. Egin [20] liburuko 3.2. adibidearen antzeko kalkuluak $f'(x_0)$ hurbiltzeko, adierazpen hau erabiliz:

$$\frac{f(x_0 + h) - f(x_0 - h)}{2h}.$$

Erakutsi errorea $O(h^2)$ ordenakoa dela. Hain zuzen, erroreaken gai nagusia (h nahiko txikia denean) $-\frac{h^2}{3!}f'''(x_0)$ dela $f'''(x_0) \neq 0$ bada.

3. Egin [20] liburuko 3.3. adibidearen pareko kalkuluak 2. problemaren hurbilpena erabiliz. Behatu antzekotasunak eta desberdintasunak, zure taula adibideko taularekin konparatzean.
4. Bihurtu zenbaki bitar hauek zenbaki dezimal:
 - (a) 10101_{bi}
 - (b) 11111110_{bi}
 - (c) 0.11011_{bi}
 - (d) 0.1010101_{bi}
 - (e) 1.0110101_{bi}
 - (f) 11000101.101_{bi} .
5. Bihurtu zenbaki dezimal hauek zenbaki bitar:
 - (a) 23
 - (b) 378
 - (c) 0.6
 - (d) $7/16$
 - (e) $23/32$
 - (f) $1/7$.
6. Idatzi 81, 66.25 eta -0.625 zenbakiak era hauetan:
 - (a) Era bitarrean.
 - (b) Puntu higikorreko era normalizatuan.
 - (c) 32 bit-eko zehaztasun bakuneko kate baten bidez (IEEE-754 estandarrean).

7. Idatzi 256.1875, -30952 eta -0.0032 zenbakiak era hauetan:
- Era bitarrean.
 - Puntu higikorreko era normalizatuan.
 - 64 bit-eko zehaztasun bikoitzeko kate baten bidez (IEEE-754 estandarrean).
8. Aurkitu $R - 0.d_1d_2d_3d_4d_5d_6d_7$ hurbiltze-errorea, zazpi zifra esanguratsuko hurbilpen bitar hauetan:
- $R = 1/10 \approx 0.0001100_{bi}$.
 - $R = 1/7 \approx 0.0010010_{bi}$.
9. Serie geometriko konbergenteen baturaren formula erabiliz, frogatu $1/7 = 0.\overline{001}_{bi}$ garapen bitarra eta $\frac{1}{7} = \frac{1}{8} + \frac{1}{64} + \frac{1}{512} + \dots$ baliokideak direla.
10. Serie geometriko konbergenteen baturaren formula erabiliz, frogatu $1/5 = 0.\overline{0011}_{bi}$ garapen bitarra eta $\frac{1}{5} = \frac{3}{16} + \frac{3}{256} + \frac{3}{4096} + \dots$ baliokideak direla.
11. Zehaztu zer gertatzen den, lau zifrako mantisa duen ordenagailu batek eragiketa hauek egiten dituenen:
- $\left(\frac{1}{3} + \frac{1}{5}\right) + \frac{1}{6}$
 - $\left(\frac{1}{10} + \frac{1}{3}\right) + \frac{1}{5}$
 - $\left(\frac{3}{17} + \frac{1}{9}\right) + \frac{1}{7}$
 - $\left(\frac{7}{10} + \frac{1}{9}\right) + \frac{1}{7}$.
12. (a) Zenbat zenbaki positibo desberdin adieraz daitezke $(\beta, t, L, U) = (10, 2, -9, 10)$ puntu higikorreko sisteman?
 (b) Zenbat zenbaki normalizatu desberdin adieraz daitezke (β, t, L, U) puntu higikorreko sistema orokorrean?
13. (a) $8/7 = 1.14285714285714\dots$ zenbakiak, noski, ez du adierazpen zehatzik sistema hamartarrean. Aurkitu β oinarriko eta t mantisako (zehaztasuneko) puntu higikorreko sistema bat, non zenbaki horrek adierazpen zehatza daukan.
 (b) π zenbakirako al dago horrelako sistema?
14. Aurkitu E_x errore absolutua eta R_x errore erlatiboa, eta zehaztu hurbilpenaren zifra esanguratsuen kopurua kasu hauetan:
- $x = 2.71828182$, $\hat{x} = 2.7182$.

(b) $y = 98350$, $\hat{y} = 98000$.

(b) $z = 0.000068$, $\hat{z} = 0.00006$.

15. Bete ezazu kalkulu hau:

$$p = \int_0^{1/4} e^{x^2} dx \approx \int_0^{1/4} \left(1 + x^2 + \frac{x^4}{2!} + \frac{x^6}{3!} \right) dx = \hat{p}.$$

Esan zein errore mota gertatzen den, eta konparatu \hat{p} emaitza egiazko balioarekin: $p = 0.2553074606$.

16. (a) Jo dezagun $p_1 = 1.414$ eta $p_2 = 0.09125$ datuak lau zifra esanguratsuko zehaztasunarekin emanda daudela. Egoera horretan, aurkitu $p_1 + p_2$ eta $p_1 p_2$ eragiketei dagozkien emaitzak.

(b) Jo dezagun $p_1 = 31.415$ eta $p_2 = 0.027182$ datuak bost zifra esanguratsuko zehaztasunarekin emanda daudela. Egoera horretan, aurkitu $p_1 + p_2$ eta $p_1 p_2$ eragiketei dagozkien emaitzak.

17. Bukatu kalkulu hauek, eta esan nolako errorea gertatzen den:

(a) $\frac{\sin(\pi/4 + 0.00001) - \sin(\pi/4)}{0.00001} = \frac{0.70711385222 - 0.70710678119}{0.00001} = \dots$

(b) $\frac{\ln(2 + 0.00005) - \ln(2)}{0.00005} = \frac{0.69317218025 - 0.69314718056}{0.00005} = \dots$

18. Hiru zifrako eta biribiltzeko puntu higikorreko aritmetika erabiliz, kalkula itzazu batura hauek (batu adierazten den ordenan):

(a) $\sum_{k=1}^6 \frac{1}{3^k}$.

(b) $\sum_{k=1}^6 \frac{1}{3^{7-k}}$.

19. Izan bitez Taylorren garapen hauek:

$$\frac{1}{1-h} = 1 + h + h^2 + h^3 + O(h^4)$$

eta

$$\cos(h) = 1 - \frac{h^2}{2!} + \frac{h^4}{4!} + O(h^6).$$

Aurkitu horien baturaren eta biderkaduraren hurbiltze-ordenak.

20. Izan bitez Taylorren garapen hauek:

$$\sin(h) = h - \frac{h^3}{3!} + \frac{h^5}{5!} + O(h^7)$$

eta

$$\cos(h) = 1 - \frac{h^2}{2!} + \frac{h^4}{4!} + O(h^6).$$

Aurkitu horien baturaren eta biderkaduraren hurbiltze-ordenak.

21. $f_1(x_0, h) = \cos(x_0 + h) - \cos(x_0)$ funtzioa eralda dezakegu beste $f_2(x_0, h)$ bat lortzeko, formula trigonometriko hau erabiliz:

$$\cos(a) - \cos(b) = -2 \sin\left(\frac{a+b}{2}\right) \sin\left(\frac{a-b}{2}\right).$$

Beraz, f_1 eta f_2 funtzioek balio berdinak dituzte, aritmetika zehatzean, x_0 eta h aldagaien balio guztietarako.

- (a) Aurkitu $f_2(x_0, h)$ -ri dagokion adierazpena.
- (b) $(f(x_0 + h) - f(x_0))/h$ adierazpenaren bidezko $f'(x_0)$ -ren kalkulu hurbilduan, iradoki adierazpen bat ezeztapenaren errorea saihesteko. Idatzi MATLABeko programa bat zure adierazpena inplementatzen duena, eta kalkula itzazu $f'(0.5)$ -ren hurbilpenak, $h = 1.e - 20, 1.e - 19, \dots, 1$ balioetarako.
- (c) Azaldu zure emaitzen eta [20] liburuko 3.3. adibideko emaitzen artean dagoen diferentzia.
22. $f_1(x, \delta) = \sin(x + \delta) - \sin(x)$ funtzioa eralda dezakegu beste $f_2(x, \delta)$ bat lortzeko, formula trigonometriko hau erabiliz:

$$\sin(a) - \sin(b) = 2 \cos\left(\frac{a+b}{2}\right) \sin\left(\frac{a-b}{2}\right).$$

Beraz, f_1 eta f_2 funtzioek balio berdinak dituzte, aritmetika zehatzean, x eta δ aldagaien balio guztietarako.

- (a) Aurkitu $f_2(x, \delta)$ -ri dagokion adierazpena.
- (b) Froga ezazu, analitikoki, $f_1(x, \delta)/\delta$ eta $f_2(x, \delta)/\delta$ adierazpenak, δ nahiko txikia denean, $\cos(x)$ funtzioaren hurbilpenak direla.
- (c) Idatzi MATLABeko funtzio bat $g_1(x, \delta) = f_1(x, \delta)/\delta - \cos(x)$ eta $g_2(x, \delta) = f_2(x, \delta)/\delta - \cos(x)$ kalkulatzeko, $x = 3$ eta $\delta = 1.e - 11$ hartuz.
- (d) Azaldu bi kalkuluen arteko emaitzen diferentziak.
23. Jo dezagun lehenengo deribatuaren hurbilpena, hots:

$$f'(x) \approx \frac{f(x+h) - f(x)}{h}.$$

Formula honetarako trunkatze (edo diskretizazio) errorea $O(h)$ da. Demagun f balioztatzean errore absolutua ε -k bornatzen duela eta $h > 0$ dela, baztertuz oinarritzko eragiketa aritmetikoak egitean sortutako erroreak.

- (a) Froga ezazu konputazio-errore osoa (trunkatzearen eta biribiltzearen konbinazioa) bornatuta dagoela balio honetaz:

$$\frac{Mh}{2} + \frac{2\varepsilon}{h},$$

non $M = |f''(\cdot)|$ -aren borne bat baita.

- (b) Zein h -ren balio positibotarako minimizatzen da aurreko bornea?
- (c) Erabiltzen dugun biribiltze-errorea, gutxi gorabehera, 10^{-16} da. Erabili aurreko galderaren emaitza, [20] liburuko 3.3. adibideko grafikoaren portaera azaltzeko. Grafikoaren itxura azaltzean, azaldu, baita ere, non espero dezakegun minimo hori aurkitzea.

24. Demagun $f(x) = \frac{1 - \cos(x)}{\sin(x)}$ funtzioa.

- (a) Erabili formatu hamartarra, sei digitu esanguratsurekin (biribilduz), $f(0.007)$ kalkulatzeko (kalkulagailua erabiliz).
- (b) Erabili MATLAB (`format long` erabiliz) $f(x)$ -ren balioa kalkulatzeko, eta benetako errore erlatiboa, biribiltzearen ondorioz, (a) atalean lortutako $f(x)$ -ren balioarekiko.
- (c) Biderkatu $f(x)$ funtzioa $\frac{1 + \cos(x)}{1 - \cos(x)}$ adierazpenaz, biribiltze-errorea izateko joera gutxiago duen $f(x)$ -ren era bat lortzeko. Era berrian, erabili sei digitu esanguratsutako formatu hamartarra (biribilduz) $f(0.007)$ kalkulatzeko (kalkulagailua erabiliz). Konparatu balioa, (a) eta (b) ataletan lorturiko balioekin.

25. Demagun $f(x) = \frac{\sqrt{9+x} - 3}{x}$ funtzioa.

- (a) Erabili formatu hamartarra sei digitu esanguratsurekin (biribilduz) $f(0.005)$ kalkulatzeko (kalkulagailua erabiliz).
- (b) Erabili MATLAB (`format long` erabiliz) $f(x)$ -ren balioa kalkulatzeko, eta benetako errore erlatiboa, biribiltzearen ondorioz, (a) atalean lortutako $f(x)$ -ren balioarekiko.
- (c) Biderkatu $f(x)$ funtzioa $\frac{\sqrt{9+x} + 3}{\sqrt{9+x} - 3}$ adierazpenaz, biribiltze-errorea izateko joera gutxiago duen $f(x)$ -ren era bat lortzeko. Era berrian, erabili sei digitu esanguratsutako formatu hamartarra (biribilduz) $f(0.005)$ kalkulatzeko (kalkulagailua erabiliz). Konparatu balioa (a) eta (b) ataletan lorturiko balioekin.

26. Honako kasu hauetan, aurkitu formula baliokide bat zifra esanguratsuen galera saihesteko:

- (a) $\ln(x+1) - \ln(x)$, x handi baterako.
- (b) $\sqrt{x^2+1} - x$, x handi baterako.
- (c) $\cos^2(x) - \sin^2(x)$, $x \approx \pi/4$ baterako.
- (d) $\sqrt{\frac{1 + \cos(x)}{2}}$, $x \approx \pi$ baterako.

Kasu bakoitzean, azaldu zergatik aukeratu duzun formula hori, eta eman zenbakizko adibide bat zehaztasunaren diferentzia agerian uzteko.

27. (a) Froga ezazu $\ln(x - \sqrt{x^2 - 1}) = -\ln(x + \sqrt{x^2 - 1})$ betetzen dela $|x| \geq 1$ bada.
 (b) Bi formula horietako zein da egokiena zenbakizko kalkulurako? Azaldu zergatik, eta eman zenbakizko adibide bat zehaztasunaren diferentzia agerian jartzeko.
28. Azaldu adierazpen hauetarako ager daitezkeen zailtasunak, eta berriatzi formula horiek zenbakizko kalkulurako era egokiago batean:

(a) $\sqrt{x + \frac{1}{x}} - \sqrt{x - \frac{1}{x}}$, $x \gg 1$ denean.

(b) $\sqrt{\frac{1}{a^2} + \frac{1}{b^2}}$, $a \approx 0$ eta $b \approx 1$ direnean.

Kasu bakoitzean, eman zenbakizko adibide bat zehaztasunaren diferentzia nabaria izateko.

29. Izan bitez adierazpen hauek:

$$p(x) = x^3 - 3x^2 + 3x - 1, \quad q(x) = ((x - 3)x + 3)x - 1, \quad r(x) = (x - 1)^3.$$

- (a) Lau zifrako puntu higikorreko aritmetika erabiliz eta biribilduz, kalkula itzazu $p(2.72)$, $q(2.72)$ eta $r(2.72)$. Kontuan izan $p(x)$ -ren kalkuluan, aritmetika horrekin, $(2.72)^3 = 20.12$ eta $(2.72)^2 = 7.398$ direla.
- (b) Lau zifrako puntu higikorreko aritmetika erabiliz eta biribilduz, kalkula itzazu $p(0.975)$, $q(0.975)$ eta $r(0.975)$. Kontuan izan $p(x)$ -ren kalkuluan, aritmetika horrekin, $(0.975)^3 = 0.9268$ eta $(0.975)^2 = 0.9506$ direla.
30. Demagun $(\beta, t, L, U) = (10, 8, -50, 50)$ puntu higikorreko sistema duen makina bat erabiltzen dugula ekuazio koadratiko honen erroak kalkulatzeko:

$$ax^2 + bx + c = 0,$$

non a , b eta c zenbaki erreal ezagunak baitira.

Ondorengo kasu bakoitzerako, esan zelako zenbakizko zailtasunak gerta daitezkeen formula estandarra erabiltzen badugu erroak kalkulatzeko. Azaldu, baita ere, nola gainditu zailtasun horiek (ahal denean):

(a) $a = 1$; $b = -10^5$; $c = 1$.

(b) $a = 6 \cdot 10^{30}$; $b = 5 \cdot 10^{30}$; $c = -4 \cdot 10^{30}$.

(c) $a = 10^{-30}$; $b = -10^{30}$; $c = 10^{30}$.

31. (a) Marraztu $(\beta, t, L, U) = (2, 3, -2, 3)$ puntu higikorraren sistemako zenbaki guztien adierazpen hamartarrak. $d_0.d_1d_2$ mantisako zenbaki txikiena 1.00 da, eta zenbaki posible handiena 1.11 (sistema hamartarrean 1.75). Hortaz, begizta batean letik 1.75era joango gara, eta gehikuntzak $\beta^{1-t} = 2^{-2} = 0.25$ izango dira. Hori da begizta baterako oinarria. Bestalde, berretzailea -2tik 3ra doa; hori da aurreko begiztaren barneko begizta baten tartea. Begizta bikoitz horrek eraikitzen du

bektore bat sistema horretako zenbaki positibo guztiakin. Baina, zenbaki negatiboak eta zeroa ere marraztu behar dituzu. Marrazteko orduan, \mathbf{x} bektorean zenbaki hamartar horiek guztiak gorde behar dituzu, eta $y_i = 0$ hartu (x_i, y_i) bikote guztietarako.

(b) Zer gertatzen da sistemako zenbakien arteko distantziarekin? Zergatik?

32. *Bigarren mailako ekuazioaren ebazpenaren formula hobetua.* Demagun $a \neq 0$ eta $b^2 - 4ac > 0$ ditugula, eta jo dezagun $ax^2 + bx + c = 0$ ekuazioa. Haren erroak adierazpen ezagun hauen bidez kalkulatzen dira:

$$(a) \quad x_1 = \frac{-b + \sqrt{b^2 - 4ac}}{2a} \quad \text{eta} \quad x_2 = \frac{-b - \sqrt{b^2 - 4ac}}{2a}.$$

Frogatu erro horiek kalkula daitezkeela adierazpen baliokide hauen bidez:

$$(b) \quad x_1 = \frac{-2c}{b + \sqrt{b^2 - 4ac}} \quad \text{eta} \quad x_2 = \frac{-2c}{b - \sqrt{b^2 - 4ac}}.$$

Oharra. $|b| \approx \sqrt{b^2 - 4ac}$ denean, kontuz ibili behar dugu ezeztatzearen bidezko zehaztasunaren galera saihesteko. Baldin $b > 0$ bada, x_1 erroa (b) formularen bidez kalkulatu beharko genuke, eta x_2 erroa (a) formulaz. Aldiz, $b < 0$ bada, x_1 erroa (a) formularen bidez kalkulatu beharko genuke, eta x_2 erroa (b) formula erabiliz.

33. Demagun gure zenbaki-sistema hamartarrak 8 digitu esanguratsu erabiltzen dituela (hots, $t = 8$). Erabili formula egokia x_1 eta x_2 kalkulatzeko, aurreko ariketan azaltzen den bezala, bigarren mailako ekuazio hauen erroak aurkitzeko:

$$(a) \quad x^2 - 1000.001x + 1 = 0.$$

$$(b) \quad x^2 - 100000.0001x + 1 = 0.$$

$$(c) \quad x^2 + 100000.00001x + 1 = 0.$$

34. Aztertu eragiketa hauen erroen hedapena (begira ezazu [20] liburuko 3.4.5. azpiatalla):

(a) Hiru zenbakiren batura:

$$p + q + r = (\hat{p} + \varepsilon_p) + (\hat{q} + \varepsilon_q) + (\hat{r} + \varepsilon_r).$$

(b) Zero ez den zenbaki baten alderantzizkoa:

$$\frac{1}{q} = \frac{1}{\hat{q} + \varepsilon_q}.$$

(c) Zero ez den zenbaki batez zatitzea:

$$\frac{p}{q} = \frac{\hat{p} + \varepsilon_p}{\hat{q} + \varepsilon_q}.$$

MATLABez ebazteko problemak:

35. Formula koadratiko klasikoak dio $ax^2 + bx + c = 0$ ekuazioaren bi erroak honela kalkulatzeko direla:

$$x_1 = \frac{-b + \sqrt{b^2 - 4ac}}{2a} \quad \text{eta} \quad x_2 = \frac{-b - \sqrt{b^2 - 4ac}}{2a}.$$

- (a) Sortu MATLABeko M fitxategi bat (`[x1,x2]=fkklas(a,b,c)` motakoa) erroak kalkulatzeko, eta erabili funtzio hori bi erroak kalkulatzeko kasu honetan:

$$a = 1, \quad b = -100000000, \quad c = 1.$$

- (b) Konpara itzazu emaitza horiek MATLABeko funtzio honek ematen duenarekin:
`roots([a b c])`
- (c) Zer gertatzen da erroak eskuz edo kalkulagailu arrunt batez kalkulatzeko badituzu? Ikusi beharko duzu formula klasikoa ona dela erro bat kalkulatzeko, baina ez bestea. Beraz, erabili ezazu zuk sortutako funtzio hura zehaztasunez erro bat aurkitzeko, eta gero erabili propietate hau:

$$x_1 x_2 = \frac{c}{a}$$

beste erroa kalkulatzeko.

36. *Formula hobetua.* Erabili aurreko 32. problemaren informazioa ariketa hauek egiteko.

- (a) Idatzi algoritmo bat erroak era horretan kalkulatu dituzan, eta $|b| \approx \sqrt{b^2 - 4ac}$ deanean, kontuz ibil dadila ezeztatzearen bidezko zehaztasunaren galera saihesteko. Alegia, zera kontuan hartuz:
- Baldin $b > 0$ bada, x_1 erroa azken formularen bidez kalkulatu beharko genuke, eta x_2 erroa formula klasikoaz.
 - Aldiz, $b < 0$ bada, x_1 erroa formula klasikoaren bidez kalkulatu beharko genuke, eta x_2 erroa azken formula erabiliz.
- (b) Gero, inplementatu algoritmo hori MATLABeko M fitxategi bat eraikiz (adibidez, `[x1,x2]=fkhobe(a,b,c)` motakoa) eta probatu ekuazio koadratiko egoki batzuekin (esate baterako, $x^2 - 5x + 6 = 0$ edo $x^2 - 100000000x + 1 = 0$).

37. Formula klasikoa eta formula hobetua erabiliz, kalkula itzazu bigarren mailako ekuazio hauen erroak:

- (a) $x^2 - 1000.001x + 1 = 0$.
 (b) $x^2 - 100000.0001x + 1 = 0$.
 (c) $x^2 - 100000.00001x + 1 = 0$.
 (d) $x^2 - 1000000.000001x + 1 = 0$.

(e) $x^2 - 100000000.00000001x + 1 = 0$.

Egiaztatu emaitzak ($x_1 + x_2 = -b/a$ eta $x_1x_2 = c/a$ bete behar dute), eta konpara itzazu kasu bakoitzeko formula klasikoak eta formula hobetuak lorturiko emaitzak. Zein da metodo egokiena? Zergatik huts egiten du besteak?

38. Hau da $f(x) = e^x$ funtzioaren Taylorren seriearen garapena:

$$f(x) = e^x = 1 + x + \frac{x^2}{2!} + \frac{x^3}{3!} + \frac{x^4}{4!} + \frac{x^5}{5!} + \dots$$

Erabili ekuazio hori e^{-2} kalkulatzeko, kasu hauetan:

- (a) Lehenengo lau batugaiak erabiliz.
- (b) Lehenengo sei batugaiak erabiliz.
- (c) Lehenengo zortzi batugaiak erabiliz.

Kasu bakoitzean, kalkula ezazu trunkatze-errore absolutua eta errore erlatiboa. Erabili MATLAB, `format long` instrukzioaz, e^{-2} -ren benetako balioa kalkulatzeko. Erabili sei zenbaki esanguratsuko zenbaki hamartarrak (biribilduz), eragiketa guztietan.

39. Hau da $\sin(x)$ -rako berretura-seriea:

$$\sin(x) = x - \frac{x^3}{3!} + \frac{x^5}{5!} - \frac{x^7}{7!} + \dots$$

MATLABeko funtzio honek seriea erabiltzen du $\sin(x)$ kalkulatzeko:

```
function s = berresin(x)
% sin(x) berretura seriearen bidez kalkulatu du.
s = 0;
t = x;
n = 1;
while s+t ~= s;
s = s+t;
t = -x.^2/((n+1)*(n+2)).*t;
n = n+2;
end
```

- (a) Zergatik bukatuko da `while` begizta?
- (b) Aldatu `berresin.m`-ren lehenengo lerroa honela:

```
function [s,tmax,tkop]=berresin(x)
```

Gero, sartu lerro hauek `while` begizta hasi baino lehen:

```
tmax = abs(t);
tkop = 0;
```

eta lerro hauek begitzaren bukaeran:

```
tmax = max(tmax,abs(t));
```

```
tkop = tkop+1;
```

Erantzun galdera hauek $x = \pi/2, 11\pi/2, 21\pi/2$ eta $31\pi/2$ balioetarako:

- Zein da emaitzaren zehaztasuna?
- Zenbat gai erabili behar izan ditu?
- Zein izan da seriearen tamaina handieneko gaia?

Galdera horiek erantzuteko, komeni da honelako taula bat egitea:

x	$\pi/2$	$11\pi/2$	$21\pi/2$	$31\pi/2$
sin(x)-berresin(x)				
tmax				
tkop				

- (c) Zer ondorioztatzen da puntu higitokorreko aritmetikaren eta berretura-serieen erabilera funtzioak balioztatze orduan?

40. [20] liburuko 3.22. eta 3.23. adibideak kontuan hartuz, frogatu $\{1/2^n\}_{n=1}^{\infty}$ segidaren gaiak garatzeko hiru metodo hauek erabil ditzakegula:

- (a) $r_0 = 1$ eta $r_n = \frac{1}{2}r_{n-1}$, $n = 2, 3, \dots$ izanik.
- (b) $p_0 = 1$, $p_1 = 0.5$ eta $p_n = \frac{3}{2}p_{n-1} - p_{n-2}$, $n = 2, 3, \dots$ izanik.
- (c) $q_0 = 1$, $q_1 = 0.5$ eta $q_n = \frac{5}{2}q_{n-1} - q_{n-2}$, $n = 2, 3, \dots$ izanik.

Orain, kasu bakoitzean hasierako errore txiki bat sortzen da:

- (a) $r_0 = 0.994$.
- (b) $p_0 = 1$, $p_1 = 0.497$.
- (c) $q_0 = 1$, $q_1 = 0.497$.

MATLAB erabiliz, sortu metodo bakoitzerako lehenengo 10 iterazioak, eta aurkeztu emaitzak [20] liburuko 3.1. eta 3.2. tauletan bezala (MATLABen bidez, hori ere).

Nolako errorea (egonkorra/ezegonkorra) gertatzen da kasu bakoitzean? Non txikitzen da errore hori?

2.2. Problema batzuen ebazpena

4. (a) $2^4 + 2^2 + 2^0 = 21$;

(c) $2^{-1} + 2^{-2} + 2^{-4} + 2^{-5} = 0.84375$;

$$(e) 2^0 + 2^{-2} + 2^{-3} + 2^{-5} + 2^{-7} = 1.4140625.$$

$$5. (a) 23 = 2 \cdot 11 + 1;$$

$$11 = 2 \cdot 5 + 1;$$

$$5 = 2 \cdot 2 + 1;$$

$$2 = 2 \cdot 1 + 0;$$

$$1 = 2 \cdot 0 + 1.$$

Beraz, $23=10111_{bi}$ dugu.

(d) $R = 7/16$ denez, honela kalkulatu dugu:

$$\begin{array}{lll} 2R = 7/8 & d_1 = \lfloor 7/8 \rfloor = 0 & Z_1 = zat(7/8) = 7/8 \\ 2Z_1 = 7/4 & d_2 = \lfloor 7/4 \rfloor = 1 & Z_2 = zat(7/4) = 3/4 \\ 2Z_2 = 3/2 & d_3 = \lfloor 3/2 \rfloor = 1 & Z_3 = zat(3/2) = 1/2 \\ 2Z_3 = 1 & d_4 = \lfloor 1 \rfloor = 1 & Z_4 = zat(1) = 0. \end{array}$$

Beraz, $7/16=0.0111_{bi}$ dugu.

$$6. (a) 81 = 2 \cdot 40 + 1;$$

$$40 = 2 \cdot 20 + 0;$$

$$20 = 2 \cdot 10 + 0;$$

$$10 = 2 \cdot 5 + 0;$$

$$5 = 2 \cdot 2 + 1;$$

$$2 = 2 \cdot 1 + 0;$$

$$1 = 2 \cdot 0 + 1.$$

Beraz, $81=1010001_{bi}$ dugu.

(b) Era normalizatuan $81 = 1.010001 \cdot 2^6$ dugu.

(c) Zeinua positiboa denez, lehenengo bit 0 da.

Hurrengo zortzi bitak honela kalkulatu dira:

$$6+127=133$$

$$133=10000101_{bi}$$

Hamargarren bitetik aurrera 1.010001 zenbakiaren **010001** mantisa da.

Beraz, ordenagailuak $0|10000101|010001000000000000000000$ gordeko du 32 bit-eko zehaztasun bakuneko kasuan.

11. (a) $1/3 = 0.010101\dots_{bi} = 1.\overline{01}_{bi} \cdot 2^{-2} \approx 1.0101_{bi} \cdot 2^{-2}$
 $1/5 = 0.00110011\dots_{bi} = 1.\overline{1001}_{bi} \cdot 2^{-3} \approx 1.1010_{bi} \cdot 2^{-3}$
 $1/6 = 0.0010101\dots_{bi} = 1.\overline{01}_{bi} \cdot 2^{-3} \approx 1.0101_{bi} \cdot 2^{-3},$
 $1/3 + 1/5 \approx 1.0101_{bi} \cdot 2^{-2} + 1.1010_{bi} \cdot 2^{-3} = 10.101_{bi} \cdot 2^{-3} + 1.1010_{bi} \cdot 2^{-3} = (10.101_{bi} + 1.1010_{bi}) \cdot 2^{-3} = 1.0001_{bi} \cdot 2^{-1},$
 $(1/3 + 1/5) + 1/6 \approx 1.0001_{bi} \cdot 2^{-1} + 1.0101_{bi} \cdot 2^{-3} = 1.0001_{bi} \cdot 2^{-1} + 0.010101_{bi} \cdot 2^{-1} = (1.0001_{bi} + 0.010101_{bi}) \cdot 2^{-1} = 1.0110_{bi} \cdot 2^{-1} = 11/16.$
 Bestalde, $(1/3 + 1/5) + 1/6 = 7/10.$
 Ondorioz, errore absolutua $= |7/10 - 11/16| = 2/160.$

18. (a) $\sum_{k=1}^6 \frac{1}{3^k} = (((((1/3 + 1/9) + 1/27) + 1/81) + 1/243) + 1/729)$ kalkulatu dugu hiru zifra eta biribiltzeko koma mugikorrek aritmetika erabiliz.
 $0.333 + 0.111 = 0.444;$
 $0.444 + 0.037 = 0.481;$
 $0.481 + 0.012 = 0.493;$
 $0.493 + 0.004 = 0.497;$
 $0.497 + 0.001 = 0.498.$
 Beraz, $\sum_{k=1}^6 \frac{1}{3^k} = 0.498$ ematen du.

(b) Era berean jokatuz, zera dugu:

$$\sum_{k=1}^6 \frac{1}{3^{7-k}} = (((((1/729 + 1/243) + 1/81) + 1/27) + 1/9) + 1/3) = 0.499.$$

Hori da zehatzagoa (a)-rena baino; (b) kalkuluan biribiltzean, ez da galtzen hamarren txikien pisua, zenbaki txikienetik handienara batzen baitira.

19. Hau dugu: $\frac{1}{1-h} = 1 + h + h^2 + h^3 + O(h^4)$ eta $\cos(h) = 1 - \frac{h^2}{2!} + \frac{h^4}{4!} + O(h^6).$

Beraz,

$$\begin{aligned} \frac{1}{1-h} + \cos(h) &= 1 + h + h^2 + h^3 + O(h^4) + 1 - \frac{h^2}{2!} + \frac{h^4}{4!} + O(h^6) = \\ &= \left(1 + h + h^2 + h^3 + 1 - \frac{h^2}{2!}\right) + \left(O(h^4) + \frac{h^4}{4!} + O(h^6)\right) = \\ &= 2 + h + \frac{h^2}{2!} + h^3 + O(h^4). \end{aligned}$$

Bestalde,

$$\begin{aligned}
 \frac{1}{1-h} \cos(h) &= (1+h+h^2+h^3+O(h^4)) \left(1 - \frac{h^2}{2!} + \frac{h^4}{4!} + O(h^6)\right) = \\
 &= 1+h+h^2 - \frac{h^2}{2!} + h^3 - \frac{h^3}{2!} + \left(\frac{h^4}{4!} - \frac{h^4}{2!} + \frac{h^5}{4!} - \frac{h^5}{2!} + \frac{h^6}{4!} + \frac{h^7}{4!}\right) \\
 &+ (1+h+h^2+h^3)O(h^6) + \left(1 - \frac{h^2}{2!} + \frac{h^4}{4!}\right)O(h^4) + O(h^4)O(h^6) \\
 &= 1+h + \frac{h^2}{2} + \frac{h^3}{2} + O(h^4) + O(h^6) + O(h^4) + O(h^{10}) \\
 &= 1+h + \frac{h^2}{2} + \frac{h^3}{2} + O(h^4)
 \end{aligned}$$

23. (a) Adierazpen hori erabiltzen badugu $f'(x)$ hurbiltzeko, h positiboa hartuz, hau da errorea:

$$\left| f'(x) - \frac{\overline{f(x+h)} - \overline{f(x)}}{h} \right|, \quad h > 0.$$

Bestalde, $\overline{f(x)} = f(x) + \varepsilon_2$ eta $\overline{f(x+h)} = f(x+h) + \varepsilon_1$ dugu, $|\varepsilon_1| \leq \varepsilon$ eta $|\varepsilon_2| \leq \varepsilon$ izanik. Hortaz,

$$\begin{aligned}
 \overline{f(x+h)} - \overline{f(x)} &= f(x+h) + \varepsilon_1 - (f(x) + \varepsilon_2) \\
 &= f(x+h) - f(x) + \varepsilon_1 - \varepsilon_2.
 \end{aligned}$$

Emaitza hori errorearen kalkuluan erabiliz, hau lortzen da:

$$\begin{aligned}
 \left| f'(x) - \frac{\overline{f(x+h)} - \overline{f(x)}}{h} \right| &= \left| f'(x) - \frac{f(x+h) - f(x) + \varepsilon_1 - \varepsilon_2}{h} \right| \\
 &= \left| f'(x) - \frac{f(x+h) - f(x)}{h} + \frac{\varepsilon_2 - \varepsilon_1}{h} \right| \\
 &\leq \left| f'(x) - \frac{f(x+h) - f(x)}{h} \right| + \left| \frac{\varepsilon_2 - \varepsilon_1}{h} \right| \\
 &= \left| f'(x) - \frac{f'(x)h + (1/2)f''(c)h^2}{h} \right| + \left| \frac{\varepsilon_2 - \varepsilon_1}{h} \right| \\
 &= \left| \frac{f''(c)h}{2} \right| + \left| \frac{\varepsilon_2 - \varepsilon_1}{h} \right| \quad (c \text{ dago } x \text{ eta } x+h \text{ balioen artean}) \\
 &\leq \frac{Mh}{2} + \frac{2\varepsilon}{h}.
 \end{aligned}$$

Azken urratsean, kontuan hartu dugu $M > 0$ konstantea $|f''(\cdot)|$ -aren goi-borne bat dela, eta $|\varepsilon_2 - \varepsilon_1| \leq |\varepsilon_2| + |\varepsilon_1| \leq 2\varepsilon$ dugula.

(b) $\alpha(h) = \frac{Mh}{2} + \frac{2\varepsilon}{h}$ funtzioa badugu, $\alpha'(h) = \frac{M}{2} - \frac{2\varepsilon}{h^2} = 0$ bete behar denez, $h^2 = \frac{4\varepsilon}{M}$. Beraz, $h > 0$ denean, $\hat{h} = 2\sqrt{\varepsilon/M}$ balioan $\alpha(h)$ erroreak hartzen du balio txikiena ($\alpha''(\hat{h}) > 0$ baita).

(c) [20] liburuko 3.3. adibideko kasuan $M = 1$ eta $\varepsilon = 10^{-16}$ direnez, $\hat{h} = 2 \cdot 10^{-8}$. [20] liburuko 3.1 irudian eta taulan ikusten da 10^{-8} -rako, gutxi gorabehera, errore txikiak gertatzen direla.

26. (b) $\sqrt{x^2+1}-x = (\sqrt{x^2+1}-x) \frac{\sqrt{x^2+1}+x}{\sqrt{x^2+1}+x} = \frac{1}{\sqrt{x^2+1}+x}$. **Lau digitu esangarriko sistema baterako** x handi bat hartuz, esate baterako $x = 10^3$, hau gertatzen da:

$$\sqrt{x^2+1}-x = \sqrt{1000000+1}-1000 = \sqrt{1000000}-1000 = 0.$$

Aldiz,

$$\begin{aligned} \frac{1}{\sqrt{x^2+1}+x} &= \frac{1}{\sqrt{1000000+1}+1000} \\ &= \frac{1}{\sqrt{1000000}+1000} = \frac{1}{2000} \\ &= 5 \cdot 10^{-4}. \end{aligned}$$

(c) $\cos^2(x) - \sin^2(x) = \cos(2x)$ dugu. Dematzagun **lau digitu esangarriko sistema bat** eta $x \approx \pi/4$. Adibidez, $x = \pi/4 + 10^{-6} = 0.7854 + 0.000001 = 0.7854$ betetzen denez, hau gertatzen da:

$$\begin{aligned} \cos^2(x) - \sin^2(x) &= (\cos(x))^2 - (\sin(x))^2 \\ &= (\cos(0.7854))^2 - (\sin(0.7854))^2 \\ &= 0.5000 - 0.5000 = 0. \end{aligned}$$

Aldiz, $\cos(2x) = \cos(2 \cdot 0.7854) = -3.673 \cdot 10^{-6}$.

27. (a) $x - \sqrt{x^2-1} \cdot \frac{x + \sqrt{x^2-1}}{x + \sqrt{x^2-1}} = \frac{1}{x + \sqrt{x^2-1}}$ denez, $\ln(x - \sqrt{x^2-1}) = -\ln(x + \sqrt{x^2-1})$ betetzen da.


(b) $|x| \gg 1$ denean, $x - \sqrt{x^2-1} \approx 0$ da, eta zifra esanguratsuen galera gertatzen da. Esate baterako, sistema hamartarrean $t = 5$ bada eta $x = 10^3$, $\ln(x - \sqrt{x^2-1}) = \ln(10^3 - \sqrt{999999})$ eta sistema horren mantisaren luzera 5 denez, 999999 balioa biribiltzean 10^6 bihurtzen da, eta, ondorioz, $\ln(x - \sqrt{x^2-1}) = -\infty$. Aldiz, $-\ln(x + \sqrt{x^2-1}) = -7.6009$.

31. (a) Emandako baldintzekin funtzio hau eraikitzen da:

```
function arik31
x=[];

for i=1:0.25:1.75
    for j=-2:3
        x=[x i*2^j]; % zenbaki positibo guztiak
    end
end
x=[x -x 0]; % zenbaki guztiak, 0-a sartuta
x=sort(x); % x ordenatzeko txikienetik handienera
n=length(x) % x-ren dimentsioa
y=zeros(1,n); % zeroz lerro-bektore bat osatzen da (abzisan jartzeko)
plot(x,y,'+') % + ikurrarekin adieraziz marrazten da
end
```

Funtzio hori exekutatzen badugu, irudi hau lortuko dugu:



(b) Berreduren balioak txikiak direnean, distantziak ere txikiak dira. Baina berredurak handitzen diren neurrian distantziak ere handitu egiten dira.

33. (a) eta (b) ekuazioetarako $\sqrt{b^2 - 4ac} \approx -b$ denez, erroak adierazpen hauen bidez kalkulatuko ditugu:

$$x_1 = \frac{-b + \sqrt{b^2 - 4ac}}{2a} \quad \text{eta} \quad x_2 = \frac{-2c}{b - \sqrt{b^2 - 4ac}} \quad \text{edo} \quad x_2 = \frac{c/a}{x_1}.$$

(c) ekuaziorako $\sqrt{b^2 - 1} \approx b$ denez, erroak adierazpen hauen bidez kalkulatuko ditugu:

$$x_2 = \frac{-b - \sqrt{b^2 - 4ac}}{2a} \quad \text{eta} \quad x_1 = \frac{-2c}{b + \sqrt{b^2 - 4ac}} \quad \text{edo} \quad x_1 = \frac{c/a}{x_2}.$$

34. (a) $|(p + q + r) - (\hat{p} + \hat{q} + \hat{r})| = \varepsilon_p + \varepsilon_q + \varepsilon_r$;

(b) $R_q = \varepsilon_q/q$ errore erlatiboa da. Orduan, $\hat{q}/q \approx 1$ denean, zera dugu:

$$\left| \frac{1}{q} - \frac{1}{\hat{q}} \right| = \left| \frac{1}{\hat{q} + \varepsilon_q} - \frac{1}{\hat{q}} \right| = \left| \frac{-\varepsilon_q}{\hat{q}(\hat{q} + \varepsilon_q)} \right| \approx \left| \frac{\varepsilon_q/q}{q} \right| = \frac{R_q}{|q|}.$$

Bestalde, hau da errore erlatiboa:

$$R_{1/q} = \frac{|1/q - 1/\hat{q}|}{|1/q|} \approx \frac{R_q/|q|}{|1/q|} = R_q.$$

2.3. Azterketa-problemak

2011-12 ikasturteko ekainekoa

Izan bitez zuzen bateko (x_0, y_0) eta (x_1, y_1) puntuak; aurkitu lerro horren ebakitze-puntua x ardatzarekin. Bi formula hauek erabil ditzakegu:

$$x = \frac{x_0 y_1 - x_1 y_0}{y_1 - y_0} \quad \text{eta} \quad x = x_0 - \frac{(x_1 - x_0) y_0}{y_1 - y_0}$$

1. Froga ezazu bi adierazpenak aljebraikoki ondo daudela.
2. $(x_0, y_0) = (1.31, 3.24)$ eta $(x_1, y_1) = (1.93, 4.76)$ datuak eta hiru digituko aritmetika erabiliz, kalkula ezazu ebakidura bi metodoen bidez. Zein metodo da hoberena? Zergatik?

2013-14 ikasturteko urtarrilekoa

Demagun oinarri hamartarreko eta 4 digitu esangarriko ordenagailu bat dugula eta berak eragiketa aritmetika bakoitzaren ondoren honela trunkatzen duela: e.b., $24.57 + 128.3 = 152.87$ batura 152.8 bihurtzen da.

- (a) Zeintzuk dira emaitzak 128.3, 24.57, 3.163, eta 0.4825 batzen direnean goranzko ordenan eta beheranzko ordenan makina horretan?
- (b) Zein da kasu bakoitzean izandako errore absolutua benetako emaitzarekin konparatuz (∞ digitu esangarriz izandakoarekin)? Zer izan nahi du horrek?
- (c) Demagun ordenagailu berean kalkulu hau egiten dugula: $\left(\frac{1}{3} - 0.3300\right) / 0.3300$. Benetako emaitzarekin konparatuz, zenbat digitu zuzen izango du? Zer erakusten du horrek zenbakitzailean zenbaki ia berdinak kentzekoari buruz?

2014-15 ikasturteko urtarrilekoa

Demagun $(\beta, t, L, U) = (10, 8, -50, 50)$ koma higikorreko sistema duen makina bat dugula.

- (a) Zenbat zenbaki positibo adierazi daitezke sistema horretan?
- (b) Zein dira sistema horretan adierazi daitezkeen zenbaki hamartar positibo handiena eta txikiena?
- (c) Zein da biribiltzearen unitatea?
- (d) Zelako zenbakizko zailtasunak gerta daitezke $10^{-30}x^2 - 10^{30}x + 10^{30} = 0$ ekuazioa ebazteko koma higikorreko sistema horretan? Nola konponduko zenituzke (baten bat konpon badaiteke)?

2015-16 ikasturteko urtarrilekoa

Erantzun galdera hauek:

- (a) (β, t, L, U) adierazpenak koma higikorreko sistema bat ematen du. Azaldu hitz gutxitan parametro bakoitzaren esangura eta garrantzia.
- (b) Bai inaustea bai biribiltzea erabiliz, idatzi 3.4863, -3.4863, 3.4868, -3.4868, 3.4893 eta 3.4895 zenbakien koma mugikorreko adierazpena sistema hamartar batean, $t = 4$ izanik.
- (c) Defini ezazu η biribiltzearen unitatea (makinaren zehaztasuna) eta azaldu bere garrantzia. Zein da η zehaztasun bakuneko sistema bitarrean ($t = 23$)?
- (d) Froga ezazu $\text{fl}(x) = x(1 + c)$ non $|c| \leq \eta$.

2015-16 ikasturteko ekainekoa

- (a) Defini ezazu η biribiltzearen unitatea (makinaren zehaztasuna), eta azaldu bere garrantzia. Zein da η zehaztasun bakuneko sistema bitarrean, $t = 23$ bada?
- (b) Froga ezazu $\text{fl}(x) = x(1 + c)$ non $|c| \leq \eta$.
- (c) Defini itzazu gainezkatzea (overflow) eta azpigainezkatzea (underflow). Zergatik jotzen dugu lehena kaltegarriagoa dela bigarrena baino?
- (d) Aztertu kalkulu honen zenbakizko egonkortasuna:

$$x = \frac{1}{1 + 2a} - \frac{1 - a}{1 + a}, \quad |a| \ll 1.$$

Nola kalkulatu zenuke x era egonkorrago batean?

3. kapitulua

Ekuaizio ez-linealen ebazpena

Medikuntza-ikasketek baieztatu dute puenting-jauzilari batek bizkarrezurreko kalte garrantzitsu bat jasateko duen probabilitatea handitu egiten dela baldin erorketa libreko abiadura 36 m/s baino handiagoa bada, erorketa librean 4 s egon ondoren. Orduan, zure nagusiak nahi du puenting-enpresan zuk zehaztea zein masatarako gaintitzen den irizpide hori, airearen erresistentzia-koefizientea 0.25 kg/m bada.

Zuk badakizu, aurreko ikasketen bidez, adierazpen hau erabil dezakegula denboraren menpeko erorketaren abiadura jakiteko:

$$v(t) = \sqrt{\frac{g \cdot m}{c_d}} \tanh\left(\sqrt{\frac{g \cdot c_d}{m}} t\right).$$

Ezin da bakandu m . Aukera bat da m aurkitzeko funtzio berri honen *erroa* kalkulatzeko:

$$f(m) = \sqrt{\frac{g \cdot m}{c_d}} \tanh\left(\sqrt{\frac{g \cdot c_d}{m}} t\right) - v(t). \quad (3.1)$$

Kapitulu honetan ikusiko dugu nola erabil dezakegun ordenagailua $f(x)$ funtzio baten erroak kalkulatzeko. Besteak beste, problemetan *bakartze-metodoak* landuko dira, bisekzio-metodoa eta regula-falsi metodoa Bolzanoren teoreman oinarritzen dira. Bisekzio-metodoak bi eragozpen nabari ditu, eta hauexek dira: bata, metodoa astiro hurbiltzen dela soluziorantz; eta, bestea, hurbildu bitartean alde batean utz ditzakeela hurbilketa onak. Metodo honek soluziorantz jotzen du, eta, horregatik, erabilgarria da hasierako estimazio bat asmatzeko, eta, jarraian, beste metodo eraginkorrago bat aplikatu ahal izateko. Metodo horrek huts egin dezake p puntuan, baldin abszisa $y = f(x)$ kurbaren zuzen ukitzaila bada eta kurbak abszisa ez badu zeharkatzen.

Bestalde, *metodo irekiak* ditugu. Oinarritzko metodo bat puntu finkoaren metodoa da, haren konbergentzia-analisisa egiten da. Zenbakizko metodoetan, Newtonen metodoa da

erreferentziako metodo bat, bere konbergentzia koadratikoagatik baldintza batzuk betetzen direnean. Honela kalkulatzen da hurrengo iterazioa:

$$p_n = p_{n-1} - \frac{f(p_{n-1})}{f'(p_{n-1})}.$$

Dagokion algoritmoan $f'(x)$ deribatua kalkulatu behar da. Baina, batzuetan, ezin da deribatua kalkulatu iterazioaren formularen ordezkatzeko; orduan, zenbakizko metodoak erabiliz zehaztu dezakegu malda. Hots, Newtonen metodoaren ordez *ebakitzailaren metodoa* erabiliko dugu. Kasu horietan, deribatua hurbil dezakegu adierazpen honen bitartez:

$$f'(p_k) \approx \frac{f(p_k) - f(p_{k-1})}{p_k - p_{k-1}},$$

eta, Newtonen ekuazioan ordezkatuz $k = n - 1$ erako,

$$p_n = p_{n-1} - \frac{f(p_{n-1})(p_{n-1} - p_{n-2})}{f(p_{n-1}) - f(p_{n-2})}. \quad (3.2)$$

Adierazpen horretan ikusten den bezala, hasierako bi puntu behar ditugu. Hau da, p_0 eta p_1 puntuak erroretik nahiko hurbil egon behar dute (Newtonen metodoan bezala); p_2 izango da lortuko duguna 1. iterazioan. Newtonen metodoaren antzeko baldintzak betetzen badira, metodo horren konbergentzia superlineala da.

Ebakitzailaren metodoak aurreko bi puntu erabiltzen ditu puntu berri bat lortzeko. *Muller-en metodoan* hiru puntu erabiltzen dira. Demagun iterazioen hasieran $(p_0, f(p_0))$, $(p_1, f(p_1))$ eta $(p_2, f(p_2))$ hiru puntuak ditugula. Orduan, hiru puntu horietatik pasatzen den parabola bakarra eraikitzen dugu, eta, abszisa-ardatzarekin ebakitze-puntua kalkulatuz, hurrengo p_3 puntua izango dugu.

Alderantzizko interpolazio koadratikoaren metodoan, x -rekiko hurbilpen koadratikoa erabili beharrean, y -rekikoa erabiliko da. Hots, $(a, f(a))$, $(b, f(b))$ eta $(c, f(c))$ hiru puntuak ezagutuz, alderantzizko funtzioarekin arituko gara; lortuko dugun polinomio koadratikoa $P(y)$ motakoa izango da, eta interpolazio-baldintza hauek erabiliz zehaztuko dugu:

$$a = P(f(a)), \quad b = P(f(b)), \quad c = P(f(c)).$$

Parabola honek beti ebakitzen du x ardatza; hots, $y = 0$. Beraz, $x = P(0)$ hurrengo iterazioa izango da.

Azkenik, MATLABeko `fzero` funtzioa erabiltzen duen *zeroin algoritmoa* dugu.

3.1. Problemak

Eskuz ebazteko problemak:

1. $e^x - 3x = 0$ ekuazioak erro bat dauka $p \approx 0.61906129$ puntuan. Erabili bisekzio-metodoaren sei iterazio, erro hori aurkitzeko, $[0, 1]$ tartetik hasiz. Zenbat iterazio behar dira erroaren hurbilpena balioztatzeko lau zifra esanguratsurekin (hots, 0.6191 lortzeko)?
2. Bistakoa da $(x - 0.4)(x - 0.6) = x^2 - x + 0.24 = 0$ ekuazioak $x = 0.4$ eta $x = 0.6$ erroak dituela. Kontuan izan $[0, 1]$ tarteko muturrak ez direla onak bisekzioaren metodoa hasteko; zergatik? Funtzioaren marrazketa erabiliz, aurkitu erroen tarte egokiak bisekzio-metodoak erro bakoitzera jotzeko. Bestalde, $[0.5, 1]$ tartetik bisekzio-metodoaz bilaketa hasten badugu, zein da $|p - p_5|$ zehaztasunaren bornea bost iterazio igaro ondoren? Zein da benetako zehaztasuna, bost iterazio igaro ondoren?
3. Erabili bisekzioaren metodoa, ekuazio hauen erro positibo txikiena aurkitzeko:
 - (a) $e^x - x - 2 = 0$,
 - (b) $x^2 - e^x = 0$,
 - (c) $\sin(x) - 2\cos(x) = 0$,
 - (d) $x^3 - x^2 - 2x + 1 = 0$,
 - (e) $2e^{-x} - \sin x = 0$,
 - (f) $3x^3 + 4x^2 - 8x - 1 = 0$.

Kasu bakoitzean, aurkitu tarte egoki bat, eta, gero, kalkulatu erroaren hurbilpena % 0.5 zehaztasun erlatiboarekin. Lehen erabilitako tartearrekin, kalkula ezazu *regula falsi* metodoaz erroaren hurbilpena % 0.5 zehaztasun erlatiboarekin. Zein metodok du konbergentzia azkarrena?

4. Izan bedi $f(x) = e^x - x^2 + 3x - 2$ funtzioa.
 - (a) Aurkitu, konbergentzia-irizpidea erabiliz, iterazioen kopuru maximoa $f(x) = 0$ ekuazioa bisekzio-metodoaz ebazteko, $a = 0$ eta $b = 1$ hartuz, $\tau = 10^{-4}$ zehaztasun absolutuarekin.
 - (b) Bisekzio-metodoa erabiliz, aurkitu $f(x) = 0$ ekuazioaren $p \in [0, 1]$ erroaren lehenengo hurbilpena, non $\frac{|p_n - p_{n-1}|}{|p_n|} < 10^{-2}$ edo $|f(p_n)| < 5.0 \times 10^{-2}$ betetzen baita.
 - (c) *Regula falsi* metodoa erabiliz, aurkitu $f(x) = 0$ ekuazioaren $p \in [0, 1]$ erroaren lehenengo hurbilpena, non $\frac{|p_n - p_{n-1}|}{|p_n|} < 10^{-2}$ edo $|f(p_n)| < 5.0 \times 10^{-2}$ betetzen baita.
 - (d) Zein metodok du konbergentzia azkarrena?

5. Izan bedi $f(x) = x^4 + 2x^2 - x - 3$ funtzioa.
- Aurkitu, konbergentzia-irizpidea erabiliz, iterazioen kopuru maximoa $f(x) = 0$ ekuazioa bisekzio-metodoaz ebazteko, $a = 1$ eta $b = 2$ hartuz, $\tau = 10^{-4}$ zehaztasun absolutuarekin.
 - bisekzio-metodoa erabiliz, aurkitu $f(x) = 0$ ekuazioaren $p \in [1, 2]$ erroaren lehenengo hurbilpena, non $\frac{|p_n - p_{n-1}|}{|p_n|} < 5.0 \times 10^{-4}$ edo $|f(p_n)| < 10^{-4}$ betetzen baita.
 - Regula falsi* metodoa erabiliz, aurkitu $f(x) = 0$ ekuazioaren $p \in [1, 2]$ erroaren lehenengo hurbilpena, non $\frac{|p_n - p_{n-1}|}{|p_n|} < 5.0 \times 10^{-4}$ edo $|f(p_n)| < 10^{-4}$ betetzen baita.
 - Zein metodok du konbergentzia azkarrena?
6. Zer gertatuko da bisekzio-metodoa erabiltzen badugu $f(x) = 1/(x - 2)$ funtzioarekin tarte hauetan: (a) $[3, 7]$ eta (b) $[1, 7]$.
7. Emandako tartetan, aztertu funtzio hauek puntu finko bakar bat duten ala ez:
- $F(x) = 1 - x^2/4$, $[0, 1]$.
 - $F(x) = 2^{-x}$, $[0, 1]$.
 - $F(x) = 1/x$, $[0.5, 5.2]$.
- Aintzat hartu 4.5. adibidea.
8. Aztertu puntu finkoko iterazioaren konbergentzia, $F(x) = -4 + 4x - \frac{1}{2}x^2$ denean.
- Ebatzi analitikoki $F(x) = x$, eta frogatu $p = 2$ eta $p = 4$ puntu finkoak direla.
 - Hartu $p_0 = 1.9$, eta kalkula itzazu p_1, p_2, p_3 , eta balio horiei dagozkien zehaztasun absolutuak eta erlatiboak.
 - Hartu $p_0 = 3.8$, eta kalkula itzazu p_1, p_2, p_3 , eta balio horiei dagozkien zehaztasun absolutuak eta erlatiboak.
 - 4.3. teorema erabiliz, zer ondoriozta daiteke?
9. Izan bedi $F(x) = x^2 + x - 4$. Orduan, erabil dezakegu puntu finkoko iterazioa $x = F(x)$ ekuazioaren erroak kalkulatzeko? Zergatik?
10. Puntu finkoaren metodoan, zergatik da abantaila $F'(p) \approx 0$ izatea?
11. Demagun $F, F' \in C(p - r_0, p + r_0)$, $r_0 > 0$, non $F(p) = p$, eta ez dela n existitzen $F(p_n) = p$ betetzen duenik. Froga ezazu hau betetzen bada:

$$|F'(p)| > 1,$$

p puntu finko aldaragarria dela. Hots, p_n iterazioa p -tik nahiko hurbil badago, $|p_{n+1} - p| > |p_n - p|$ dugula.

12. Demagun [20] testuliburuko 4.1. korolarioaren hipotesiak betetzen direla, $F'(p) = 0$, eta $F''(p)$ existitzen dela. Froga ezazu r positibo bat existitzen dela, $r < r_0$, non $p_0 \in [p-r, p+r]$ betetzen bada, $p_n = F(p_{n-1})$ segidako gai guztiak $[p-r, p+r]$ tartean baitaude eta $\{p_n\} \rightarrow p$ konbergentzia koadratikoarekin. (*Iradokizuna*: erabili F -ren bigarren mailako Taylorren polinomioa p -ren ingurunean $F(p_n)$ hurbiltzeko).
13. Izan bedi $e^x - 3x^2 = 0$ ekuazioa; aurkitu $x = -0.5$ eta $x = 4$ puntuetatik gertuko erroak Newton-Raphson metodoaz, sei digituko zehaztasun erlatiboarekin (hots, $ze = 10^{-6}$ izanik).
14. Izan bedi $x^2 - x + 2 = 0$ ekuazioa.
- Zehaztu Newton-Raphsonen $p_n = F(p_{n-1})$ iterazio-funtzioa.
 - Hasi $p_0 = -1.5$ puntutik, eta aurkitu p_1 , p_2 eta p_3 .
 - Zein da $|f(p_3)|$ errorea p_3 puntuan?
 - Zergatik gertatzen da hori?
15. Izan bedi $x^2 - x - 3 = 0$ ekuazioa.
- Zehaztu Newton-Raphsonen $p_n = F(p_{n-1})$ iterazio-funtzioa.
 - Hasi $p_0 = 1.6$ puntutik, eta aurkitu p_1 , p_2 , p_3 eta p_4 .
 - Zein da $|f(p_4)|$ errorea p_4 puntuan?
16. Izan bedi $(x - 2)^4 = 0$ ekuazioa.
- Zehaztu Newton-Raphsonen formulako $p_n = F(p_{n-1})$ iterazio-funtzioa.
 - Hasi $p_0 = 2.1$ puntutik, eta aurkitu p_1 , p_2 , p_3 eta p_4 .
 - Zein da $|f(p_4)|$ errorea p_4 puntuan?
 - Aztertu $\{p_n\}$ segidaren konbergentzia-ordena.
17. Izan bedi $x^3 - 3x - 2 = 0$ ekuazioa.
- Zehaztu Newton-Raphsonen formulako $p_n = F(p_{n-1})$ iterazio-funtzioa.
 - Hasi $p_0 = 2.1$ puntutik, eta aurkitu p_1 , p_2 , p_3 eta p_4 .
 - Zein da $|f(p_4)|$ errorea p_4 puntuan?
 - Aztertu $\{p_n\}$ segidaren konbergentzia-ordena.
18. Izan bedi $xe^{-x} = 0$ ekuazioa.
- Zehaztu Newton-Raphsonen formulako $p_n = F(p_{n-1})$ iterazio-funtzioa.
 - Hasi $p_0 = 0.2$ puntutik, eta aurkitu p_1 , p_2 , p_3 eta p_4 . Zein da $|f(p_4)|$ errorea p_4 puntuan? Zein da $\lim_{n \rightarrow \infty} p_n$? Zein da zehaztasun absolutua p_4 puntuan?
 - Hasi $p_0 = 20$ puntutik, eta aurkitu p_1 , p_2 , p_3 eta p_4 . Zein da $|f(p_4)|$ errorea p_4 puntuan? Zein da $\lim_{n \rightarrow \infty} p_n$? Zein da zehaztasun absolutua p_4 puntuan?

(d) Azaldu zer gertatzen den (b) eta (c) kasuetan.

19. Ebakitzabilearen metodoa erabiliz, aurki itzazu ekuazio hauen p_2 eta p_3 hurbilpenak, emandako hastapen-puntuetatik hasiz:

(a) $x^2 - 2x - 1 = 0$, non $p_0 = 2.6$ eta $p_1 = 2.5$.

(b) $x^2 - x - 3 = 0$, non $p_0 = 1.7$ eta $p_1 = 1.67$.

(c) $x^2 - 2x - 1 = 0$, non $p_0 = -1.5$ eta $p_1 = -1.52$.

20. Erabil dezakegu Newton-Raphsonen metodoa $x^2 - 14x + 50 = 0$ ebazteko? Zergatik?

21. Erabil dezakegu Newton-Raphsonen metodoa $x^{1/3} = 0$ ebazteko? Zergatik?

22. Erabil dezakegu Newton-Raphsonen metodoa $(x - 3)^{1/2} = 0$ ebazteko, $p_0 = 4$ hartuz? Zergatik?

23. Erabili Mullerren metodoa $x^3 - x - 2 = 0$ ekuazioaren erro bat hurbiltzeko. Hasi $p_0 = 1.0$, $p_1 = 1.2$ eta $p_2 = 1.4$ puntuetatik, eta kalkula itzazu p_3 eta p_4 . Zein da $|f(p_4)|$ erroa p_4 puntuan?

24. Erabili Mullerren metodoa $4x^2 - e^x = 0$ ekuazioaren erro bat hurbiltzeko. Hasi $p_0 = 4.0$, $p_1 = 4.1$ eta $p_2 = 4.2$ puntuetatik, eta kalkula itzazu p_3 eta p_4 . Zein da $|f(p_4)|$ erroa p_4 puntuan?

25. Izan bedi $xe^{0.5x} + 1.2x - 5 = 0$ ekuazioa. $f(x) = xe^{0.5x} + 1.2x - 5$ funtzioa marrazten badugu, $x = 1$ eta $x = 2$ artean erro bat dagoela ikusten dugu. Ekuazio hori $x = F(x)$ era desberdinetan berridatz dezakegu. Honako hiru aukera hauetatik, zein da zure aburuz egokiena? Eman arrazioa funtzioen deribatuak aztertuz:

(a) $x = \frac{5 - xe^{0.5x}}{1.2}$;

(b) $x = \frac{5}{e^{0.5x} + 1.2}$;

(c) $x = \frac{5 - 1.2x}{e^{0.5x}}$.

MATLABez ebazteko problemak:

26. Metodo grafikoa erabiliz, bakartu tartetean funtzio hauen erroak:

(a) $f(x) = \sin(x) + 0.8 \cos(x)$.

(b) $f(x) = x^2 - 4x + 3.5 - \ln(x)$.

(c) $f(x) = (x - 2.1)^2 - 7x \cos(x)$.

Egiaztatu analitikoki tarte bakoitzean erro bat dagoela (hots, Bolzanoren teorema erabiliz).

27. Implementatu bisekzio-metodoa honelako MATLABeko funtzio bat garatuz:

- (a) Lehenengo lerroa honela izan behar:
`function [p,z,e,i]=bisekzioa(f,a,b,ztol,etol,imax)`
- (b) Sarrerak: `f`= funtzioa, `a,b`= funtzio horrek erro bat duen tarte bat, `ztol`= zehaztasunaren tolerantzia, `etol`= errorearen tolerantzia, eta `imax`= iterazio kopuru maximoa.
- (c) Irteerak: `p`= erroaren azken hurbilpena tolerantzia horiekin, `i`= erabilitako iterazio kopurua, `z`= zehaztasun absolutua, eta `e`= erroa azken iterazioan.
- (d) MATLABeko funtzio horrek, datu horiek emateaz gain, ondo eraikitako (formatu egokiak erabiliz) taula bat sortu behar du zutabe desberdinak erabiliz era honetan:
- | i | a_i | b_i | p_i | z_i | e_i |
|--|-------|-------|-------|-------|-------|
| i iterazio bakoitzerako, a_i eta b_i zutabe horietan agertu behar dira erroa daukan tartearen muturrak, $p_i = (a_i + b_i)/2$ hurbilpen berria, $z_i = p_i - p_{i-1} $ zehaztasun absolutua eta $e_i = f(p_i) $ erroa. | | | | | |
- (e) Egiaztatu kode hori ondo dabilela, zuk aukeratuz ekuazio egoki bat non soluzio zehatza aurrez ezagutzen baituzu eta bisekzio-metodoaren urrats batzuk eginda baitaitezazu. Aukera itzazu tarte egoki bat, iterazio kopuru maximoa, eta zehaztasunaren eta errorearen tolerantziak.

28. Bisekzio-metodoaren kodea erabiliz, ebatzi 26. problema.

- (i) Kalkulatu erroa 10^{-4} errore-tolerantziarekin, 10^{-4} zehaztasun erlatiboarekin, eta gehienez 100 iterazio erabiliz.
- (ii) Kalkula ezazu, arkatzez, kasu bakoitzean zenbat iterazio beharko dituen gehienez metodoak, zehaztasun absolutua 10^{-6} izateko. Orain, MATLABen bidez, kalkulatu metodoak erabiltzen duen benetako iterazio kopurua zehaztasun hori lortzeko. Horretarako, hartu `etol` oso txikia (esate baterako, 10^{-10}).

29. Zure kodean zati batzuk aldatuz, lortu `regula_falsi.m` fitxategi-kode bat; metodo honetan, erroaren hurbilpen berria ez da lortzen $p_i = (a_i + b_i)/2$ eginez, honela baizik:

$$p_i = b_i - f(b_i) \frac{b_i - a_i}{f(b_i) - f(a_i)}.$$

- (i) Ebatzi 26. problemako ekuazioak `M` fitxategi berri hau erabiliz, eta 10^{-4} errore-tolerantziarekin, 10^{-4} zehaztasun erlatiboarekin, eta gehienez 100 iterazio erabiliz.
- (ii) Zein du konbergentzia azkarrena? Bisekzioarena edo regula falsirena?
- (iii) Orain, MATLABen bidez, kalkulatu metodoak erabiltzen duen benetako iterazio kopurua zehaztasun absolutua 10^{-6} izateko. Horretarako, hartu `etol` oso txikia (esate baterako, 10^{-10}). Konparatu 28. problemako (ii) atalean lortutako emaitzarekin. Ondorioren bat atera dezakezu?

30. `newton.m` fitxategia lortzeko, implementa ezazu Newtonen metodoa ([20] testuliburuko 4.1. algoritmoa) honelako MATLABeko funtzio bat garatuz:

- (a) Lehenengo lerroa honela izan behar:

```
function [p,ze,e,i]=newton(f,df,p0,zetol,etol,imax)
```

- (b) Sarrerak: `f`= funtzioa, `df`= funtzioaren deribatua, `p0`= hasierako puntua, `zetol`= zehaztasun erlatiboaren tolerantzia, `etol`= errorearen tolerantzia eta `imax`= iterazio kopuru maximoa.

- (c) Irteerak: `p`= erroaren hurbilpen hoberena tolerantzia horiekin, `i`= iterazio kopurua, `ze`= zehaztasun erlatiboa eta `e`= errorea.

- (d) MATLABeko funtzio horrek, datu horiek emateaz gain, ondo eraikitako (formatu egokiak erabiliz) taula bat sortu behar du zutabe desberdinak erabiliz era honetan:

i	p_i	ze_i	e_i
-----	-------	--------	-------

i iterazio bakoitzerako, p_i hurbilpenak, $ze_i = |p_i - p_{i-1}|/|p_i|$ zehaztasun erlatiboa eta $e_i = |f(p_i)|$ errorea.

- (e) Egiaztatu kode hori ondo dabilela, zuk aukeratuz ekuazio egoki bat non soluzio zehatza aurrez ezagutzen baituzu eta Newtonen metodoaren urrats batzuk eginda baitaizkazu. Aukera itzazu hasierako puntu egoki bat, iterazio kopuru maximoa, eta zehaztasunaren eta errorearen tolerantziak.

31. Aurreko ariketa egin ondoren, ebatzi ekuazio hauek hasierako puntuetatik abiatuz eta Newton-en metodoa erabiliz:

(a) $f(x) = 2^{-x} - x = 0$, non $p_0 = 1$.

(b) $f(x) = x^2 - 4x + 3.5 - \ln(x) = 0$, non $p_0 = 1$.

(c) $f(x) = (x - 2.1)^2 - 7x \cos(x) = 0$, non $p_0 = 1.5$.

- (i) Kalkulu hauek egiteko, erabili lehenengo ariketako `newton.m` fitxategia.

- (ii) Kalkulatu erroa ekuazio bakoitzean 10^{-6} errore-tolerantziarekin, 10^{-6} zehaztasun erlatiboarekin, eta gehienez 100 iterazio erabiliz.

32. Newtonen metodoari dagokion implementazioa adibide moduan hartuz, implementa ezazu ebakitzailaren metodoa; ikus ezazu [20] testuliburuko 4.2. algoritmoaren sasikodea. Ebatzi:

(a) $f(x) = 2^{-x} - x = 0$, $p_0 = 1, p_1 = 1.5$.

(b) $f(x) = x^2 - 4x - 3.5 - \log(x) = 0$, $p_0 = 1, p_1 = 1.5$.

(c) $f(x) = (x - 2.1)^2 - 7x \cos(x) = 0$, $p_0 = 1.5, p_1 = 2$.

Konparatu emaitza horiek MATLABeko `fzero.m` funtzioaz lortutakoekin.

33. (a) Garatu sasikode bat puntu finkoaren metodorako, gai dena $x = F(x)$ ekuazioa ebazteko.

- (b) Inplementatu sasikode hori MATLABeko `fpuntufinko.m` fitxategi berri bat bezala.
- (c) Ebatzi $x = F(x) = 2^{-x}$ ekuazioa, $p_0 = 1$ puntutik hasiz. Zer gertatzen da? Zergatik?
34. Garatu [20] testuliburuko 4.3.5. ataleko Mullerren metodoaren sasikode bat, eta, gero, inplementatu MATLABeko `M` fitxategi batean, non sartutako balioak `f, p0, p1, p2, etol, zeto1, imax` baitira, eta ateratzen diren balioak `p, ze, e, i` (ikus ezazu 30. problemako (b) eta (c) ataletan parametro horien esanahia). Kontuan hartu $\sqrt{b^2 - 4ac}$ zenbaki konplexua izan daitekeela, eta zein erro gorde behar dugun.
35. Erabili Mullerren metodoa $p_0 = 1.5$, $p_1 = 1.4$ eta $p_2 = 1.3$ hasierako balioak $f(x) = 1 + 2x - \tan(x)$ funtzioaren erro baten hurbilpena lortzeko, `etol`= 10^{-8} errorearen tolerantziarekin, `zeto1`= 10^{-12} zehaztasun erlatiboarekin, eta `imax`=50 iterazio kopuru maximoarekin.
36. Konparatu Newtonen, ebakitzailaren eta Mullerren metodoen konbergentzia aurreko problemaren funtziorako, Newtonen metodorako $p_0 = 1.5$ hartuz, eta ebakitzailaren metodorako $p_0 = 1.5$ eta $p_1 = 1.4$. Hartu aurreko problemako balio berdinak `etol`, `zeto1` eta `imax` parametroetarako.

3.2. Problema batzuen ebazpena

1. [20] testuliburuko 4.1. konbergentziaren teorema kontuan hartuz, zera bete behar da:

$$\varepsilon_n = |p - p_n| \leq \frac{|b - a|}{2^n} \leq 10^{-4}.$$

Beraz,

$$\frac{|1 - 0|}{2^n} \leq 10^{-4} \Rightarrow n \geq 4 / \log_{10} 2 = 4 / 0.30103 = 13.288 \dots \Rightarrow n \geq 14.$$

3. (a) Bisekzio-metodoaz: $a_1 = a$ eta $b_1 = b$ balioen tartean eta $f(x) = e^x - x - 2$ funtziorako, $p_0 = a$ hartuz, honela lortuko dugu erro bat:

n	a_n	b_n	p_n	<i>zeh.erl.</i>
1	0	2	1	1
2	1	2	1.5	0.33333
3	1	1.5	1.25	0.20000
4	1	1.25	1.125	0.11111
5	1.125	1.25	1.1875	0.05263
6	1.125	1.1875	1.1562	0.02703
7	1.125	1.1562	1.1406	0.01370
8	1.1406	1.1562	1.1484	0.00680
9	1.1406	1.1484	1.1445	0.00341

Beraz, bisekzio-metodorako $p_b = 1.1445$, $i_b = 9$ dugu.

Bestalde, regula falsi metodoaz, $p_0 = a$ hartuz, hau lortzen da:

n	a_n	b_n	p_n	$zeh.ertl.$
1	0	2	0.45568	1
2	0.45568	2.00000	0.77357	0.41094
3	0.77357	2.00000	0.95962	0.19388
4	0.95962	2.00000	1.05673	0.09190
5	1.05673	2.00000	1.10425	0.04303
6	1.10425	2.00000	1.12674	0.01996
7	1.12674	2.00000	1.13722	0.00921
8	1.13722	2.00000	1.14206	0.00424

Ondorioz, regula falsi metodoaz $p_{rf} = 1.1421$, $i_{rf} = 8$ dugu.

Beraz, ia konbergentzia azkartasun berdina izan dute. Regula falsirena pixka bat azkarragoa izan da kasu honetan, $i_{rf} < i_b$.

5. (a) $|b - a|/2^n < 10^{-4}$, beraz: $n = 14$;

(b) Bisekzio-metodoaren bitartez, $p_0 = a$ hartuz, zera dugu:

n	a_n	b_n	p_n	$zeh.ertl.$	$errorea$
1	1.00000	2.00000	1.50000	0.50000	5.06250
2	1.00000	1.50000	1.25000	0.16667	1.31641
3	1.00000	1.25000	1.12500	0.10000	0.00806
4	1.00000	1.12500	1.06250	0.05556	0.53026
5	1.06250	1.12500	1.09375	0.02941	0.27006
6	1.09375	1.12500	1.10938	0.01429	0.13329
7	1.10938	1.12500	1.11719	0.00704	0.06320
8	1.11719	1.12500	1.12109	0.00350	0.02772
9	1.12109	1.12500	1.12305	0.00174	0.00987
10	1.12305	1.12500	1.12402	0.00087	0.00091
11	1.12402	1.12500	1.12451	0.00043	0.00357

Ondorioz, $p_b = 1.12451$, $i_b = 11$; $|f(p_b)| = 0.00357$; $ze = 0.00043$ (ze=zehaztasun erlatiboa);

(c) Regula falsi metodoaz, $p_0 = a$ hartuz, hau lortzen da:

n	a_n	b_n	p_n	$zeh.ertl.$	$errorea$
1	1.00000	2.00000	1.05000	0.04762	0.62949
2	1.05000	2.00000	1.08047	0.02820	0.38282
3	1.08047	2.00000	1.09863	0.01653	0.22786
4	1.09863	2.00000	1.10931	0.00963	0.13389
5	1.10931	2.00000	1.11554	0.00559	0.07807
6	1.11554	2.00000	1.11916	0.00323	0.04532
7	1.11916	2.00000	1.12126	0.00187	0.02624
8	1.12126	2.00000	1.12247	0.00108	0.01517
9	1.12247	2.00000	1.12317	0.00062	0.00876
10	1.12317	2.00000	1.12357	0.00036	0.00506

Beraz, $p_{rf} = 1.12357$, $i_{rf} = 10$; $|f(p_b)| = 0.00506$; $ze = 0.00036$.

(d) Azkarrena regula falsi metodoa izan da, $i_{rf} < i_b$.

7. (a) Puntu finko bat du $(0, 1)$ tartean, $F([0, 1]) = [3/4, 1] \subset [0, 1]$ baita.

Puntu finko bakarra da, zeren $|F'(x)| < 1 \quad \forall x \in [-2, 2]$ eta $[0, 1] \subset [-2, 2]$ baititugu.

9. $x = -2$ eta $x = 2$ erroak dira, eta $|F'(-2)| > 1$, $|F'(2)| > 1$ direnez, bi erro horiek ez dira puntu erakargarriak; ondorioz, ezin ditugu kalkulatu puntu finkoaren metodoa erabiliz.

13. $p_0 = -0.50$ bada, Newton-Rapshonen metodorako $f(x) = e^x - 3x^2$ eta $f'(x) = e^x - 6x$ denez, zera lortzen dugu:

$$p_n = p_{n-1} - \frac{e^{p_{n-1}} - 6p_{n-1}}{e^{p_{n-1}} - 3p_{n-1}^2},$$

beraz:

n	p_n	$zeh.ertl.$	$errorea$
0	-0.500000	1.000001	0.143469
1	-0.460220	0.086438	0.004261
2	-0.458964	0.002737	0.000004
3	-0.458962	0.000003	0.000000
4	-0.458962	0.000000	0.000000

Ondorioz, $p^* \approx p_4 = -0.458962$, 4 iterazio erabiliz, eta $ze = 2.7 \cdot 10^{-12}$ izanik.

$p_0 = 4$ bada,

n	p_n	$zeh.ertl.$	$errorea$
0	4.000000	1.000001	6.598150
1	3.784361	0.056982	1.043379
2	3.735379	0.013113	0.044743
3	3.733084	0.000615	0.000095
4	3.733079	0.000001	0.000000
5	3.733079	0.000000	0.000000

Ondorioz, $p^* \approx p_5 = 3.733079$, $i = 5$ iterazio erabiliz, eta $ze = 5.86 \cdot 10^{-12}$ izanik.

15. (a) $p_n = \frac{p_{n-1}^2 + 3}{2p_{n-1} - 1}$.

(b) $p_0 = 1.6$ bada,

n	p_n	<i>zeh.ertl.</i>	<i>errorea</i>
0	1.600000	1.000001	2.040000
1	2.527273	0.366906	0.859835
2	2.315206	0.091597	0.044972
3	2.302818	0.005379	0.000153
4	2.302776	0.000018	0.000000

Ondorioz, $p_1 = 2.527273$, $p_2 = 2.315206$, $p_3 = 2.302818$, $p_4 = 2.302776$.

(c) $|f(p_3)| = 1.8 \cdot 10^{-9}$.

17. (a) Newton-Rapshonen metodorako $f(x) = x^3 - 3x - 2$ eta $f'(x) = 3x^2 - 3$ denez, zera lortzen dugu:

$$p_n = p_{n-1} - \frac{p_{n-1}^3 - 3p_{n-1} - 2}{3p_{n-1}^2 - 3} = \frac{2p_{n-1}^3 + 2}{3p_{n-1}^2 - 3}$$

(b) $p_0 = 2.1$ denez, hau dugu:

n	p_n	<i>zeh.ertl.</i>	<i>errorea</i>
0	2.100000	1.000001	0.961000
1	2.006061	0.046828	0.054766
2	2.000024	0.003018	0.000219
3	2.000000	0.000012	0.000000
4	2.000000	0.000000	0.000000

Ondorioz, $p_1 = 2.006061$, $p_2 = 2.000024$, $p_3 = 2.000000$, $p_4 = 2.000000$.

(c) $|f(p_4)| = 0$.

(d) $n \rightarrow \infty$ denean $p_n \rightarrow 2$ dugunez, konbergentziaren ordena aztertzeko, limite hau kalkulatu dugu:

$$\begin{aligned} \lim_{p_n \rightarrow 2} \left| \frac{p_{n+1} - 2}{p_n - 2} \right| &= \lim_{p_n \rightarrow 2} \left| \frac{\frac{2p_n^3 + 2}{3p_n^2 - 3} - 2}{p_n - 2} \right| \\ &= \lim_{p_n \rightarrow 2} \left| \frac{2p_n^3 - 6p_n^2 + 8}{3(p_n^2 - 1)(p_n - 2)} \right| \\ &= \lim_{p_n \rightarrow 2} \left| \frac{2p_n^2 - 2p_n - 4}{3(p_n^2 - 1)} \right| = 0. \end{aligned}$$

Beraz, konbergentzia superlineala da gutxienez.

Orain aztertuko dugu koadratikoa den ala ez. Hori dela eta, limite hau kalkulatu dugu:

$$\begin{aligned} \lim_{p_n \rightarrow 2} \left| \frac{p_{n+1} - 2}{(p_n - 2)^2} \right| &= \lim_{p_n \rightarrow 2} \left| \frac{2p_n^3 - 6p_n^2 + 8}{3(p_n^2 - 1)(p_n - 2)^2} \right| \\ &= \lim_{p_n \rightarrow 2} \left| \frac{2(p_n - 2)^2(p_n + 1)}{3(p_n^2 - 1)(p_n - 2)^2} \right| \\ &= \lim_{p_n \rightarrow 2} \left| \frac{2(p_n + 1)}{3(p_n^2 - 1)} \right| = \frac{2}{3}. \end{aligned}$$

Ondorioz, Newton-Rapshonen algoritmoak konbergentzia koadratikoa du $p_n \rightarrow 2$ kasuan. Edonola ere, konbergentzia koadratikoz konturatzeko, nahiko izaten da goiko taulan nabaritzea zehaztasunaren zutabearen komaren eskuinaldeko zeroen kopurua bikoiztu egiten dela iterazio bakoitzean.

19. (a) $x^2 - 2x - 1 = 0$ ekuazioa ebazteko, ebakitzailaren metodoa erabiliko dugu $p_0 = 2.6$ eta $p_1 = 2.5$ hartuz. p_2 eta p_3 hurbilpenak kalkulatu ditugu adierazpen hau erabiliz:

$$p_n = p_{n-1} - \frac{f(p_{n-1})(p_{n-1} - p_{n-2})}{f(p_{n-1}) - f(p_{n-2})}$$

Hori kontuan hartuz, hau lortzen da bi iterazioetan:

n	p_{n-1}	p_n	p_{n+1}	<i>zeh.ertl.</i>	<i>errorea</i>
1	2.600000	2.500000	2.419355	0.074667	0.014568
2	2.500000	2.419355	2.414365	0.035469	0.000427

Ondorioz, $p_2 = 2.419355$ eta $p_3 = 2.414365$.

20. Ez, ekuazioak ez baitu erro errealik.
21. $f(x) = x^3 - x - 2$, $a = p_0 = 1.0$, $b = p_1 = 1.2$, $c = p_2 = 1.4$ direnez, Mullerren metodoaz hau egiten da:

1. iterazioan zera kalkulatu da:

$$c = f(p_2),$$

$$a = \frac{e_0 h_1 - e_1 h_0}{h_1 h_0^2 - h_0 h_1^2}, \text{ eta}$$

$$b = \frac{e_0 h_0^2 - e_1 h_1^2}{h_1 h_0^2 - h_0 h_1^2},$$

non $h_0 = p_0 - p_2$, $h_1 = p_1 - p_2$, $e_0 = f(p_0) - c$ eta $e_1 = f(p_1) - c$.

Hortik,

$$z = \frac{-2c}{b \pm \sqrt{b^2 - 4ac}},$$

non aukeratu den zeinua $|z|$ -ri balio txikiena ematen diona baita. Gero, $p_3 = p_2 + z$ izango da.

2. iterazioan era antzeko batean jokatzen da, p_0, p_1, p_2 balioen ordez p_1, p_2, p_3 balioak erabiliz.

Horrela jokatuz, hau lortzen da:

n	p_{n-1}	p_n	p_{n+1}	z	p_{n+2}	<i>zeh.erl.</i>	<i>errorea</i>
1	1.000000	1.200000	1.400000	0.124956	1.524956	0.081941	0.021316
2	1.200000	1.400000	1.524956	-0.003600	1.521356	0.002366	0.000140

$p_3 = 1.524956$ eta $p_4 = 1.521356$. Errorea $|f(p_4)| = 1.40 \cdot 10^{-4}$ da.

3.3. Azterketa-problemak

2011-12 ikasturteko ekainekoa

- (A) Frogatu puntu finkoaren teoremako (i) atala. Hots,

“Demagun (a) $F, F' \in C[a, b]$, (b) $K > 0$, (c) $p_0 \in (a, b)$ eta (d) $F(x) \in [a, b]$, $x \in [a, b]$ guztietarako. Orduan, badago F -ren $p \in [a, b]$ puntu finko bat.

- (i) Baldin $|F'(x)| \leq K < 1$, $x \in [a, b]$ guztietarako, orduan p da F -ren puntu finko bakarra $[a, b]$ tartean, eta $p_n = F(p_{n-1})$ iterazioa p puntura konbergitzen da. Kasu horretan, p puntu finko erakargarria dela esaten da.”

- (B) Izan bedi $x + \ln x = 0$ ekuazioa, $x_0 = 0.55$ -etik hurbil erro bat daukala. Puntu finkoaren metodoa erabiltzeko, besteak beste, iterazio-funtzio hauek erabil ditzakegu:

- (a) $x_n = -\ln(x_{n-1})$,
 (b) $x_n = \exp(-x_{n-1})$,
 (c) $x_n = \frac{x_{n-1} + \exp(-x_{n-1})}{2}$.

Emandako x_0 hastapen-puntu horretarako, iterazio-funtzio horietako zein konbergitzen dira? Horietako zein konbergitzen da azkarrago? (A) atala kontuan hartuz, arrazoitu bi erantzunak iterazioak egin gabe. Kalkulatu iterazio-funtzio horien lehenengo hiru iterazioak, aurreko ondorioekin konparatzeko.

2012-13 ikasturteko urtarrilekoa

Izan bedi urtegi kubiko bat; bere oinarri laukizuzenak $y = 110$ metroko luzera finkoa du, eta x zabalera aldakorra. Baldin h ur-maila (metrotan) adierazpen honen arabera t denboraren (egunetan) eta x zabalaren menpean badago:

$$h = \frac{t^2 \ln(x^2 + 2)}{x + 4},$$

zenbat neurtu behar du x zabalarak 4.5 egunetan urtegiak 10000 m^3 ur gordetzeko? Galdera hori erantzuteko, aurkitu x aldagairako $[a, a + 1]$ tarte egoki bat, eta, gero, egin bi iterazio zuk aukeratutako metodo egokiena erabiliz.

2012-13 ikasturteko ekainekoa

Izan bitez $f(x)$ eta bere goi-ordenako deribatuak jarraituak eta bornatuak, p erroa daukan (a, b) tarte batean.

- (a) Azaldu eta frogatu Newton-Raphsonen konbergentzia koadratikoaren teorema.
- (b) Izan bedi $e^x - 2x^2 - 1 = 0$ ekuazioa.
- Metodo grafikoa erabiliz, egiaztatu bi erro ez-nulu daudela $[0.5, 1]$ eta $[2.5, 3]$ tarteetan, hurrenez hurren.
 - Aurkitu erro horiek Newton-Raphsonen metodoa erabiliz, 0.0001 zehaztasun erlatiboarekin eta 3 iterazio, gehienez, eginez. Egin eragiketak 6 digitu esangarriekin.

2013-14 ikasturteko urtarrilekoa

- (a) Izan bedi $f(x) = 0$ ekuazio ez-lineala. Azaldu Newton-Raphson-en metodoa eta bere teorema.
- (b) Aurkitu Newton-Raphson-en metodoaren konbergentzia-ordena ekuazio hauek ebaztean (baina iterazioak kalkulatu barik): $x^2 = 0$, $x^3 = 0$, $x + x^3 = 0$ eta $x + x^4 = 0$. Zergatik ez da ekuazio batzuetan teorema betetzen?

2013-14 ikasturteko ekainekoa

Izan bedi $F(x) = x^2 + \frac{3}{16}$ funtzioa.

- (a) Funtzio horrek bi puntu finko ditu; zein dira?

- (b) Izan bedi $x_{k+1} = F(x_k)$ puntu finkoaren iterazioa F horretarako. (a) atalean lortutako zein puntutara konbergituko da? Hori arrazoitzeko, hasierako puntua puntu finko horretatik nahiko hurbil dagoela jo dezakegu.
- (c) Aurreko atalean lortutako puntu finkorako/etarako zenbat iterazio, gutxi gora-behera, beharko dira zehaztasun absolutua 10 bider txikiagoa egiteko?
- (d) Azkenik, $f(x) = xe^{-x}$ funtzioaren errotik nahiko hurbil hasiz gero, zein da Newton-Raphson-en metodoaren konbergentzia-ordena?

2014-15 ikasturteko urtarrilekoa

- (a) Enuntziatu puntu finkoaren metodoaren konbergentziaren teorema. Egin teorema horren frogapen osoa.
- (b) Aurkitu puntu finko erakargarria duen F bat. Arrazoitu hautaketaren zergatia.
- (c) Aurkitu puntu finko aldaragarria duen F bat. Arrazoitu hautaketaren zergatia.

2015-16 ikasturteko urtarrilekoa

Erantzun, arrazoituz, galdera hauek.

- (a) Izan bedi $f(x) = 0$ ekuazioa, eta demagun $[a, b]$ tartean ekuazio horrek dituen erroen anizkoiztasuna *bikoitia* dela. Ekuazio hori ebaz dezakegu bisekzio-metodoaz $[a, b]$ tartean?
- Eta tarte horretan dauden erroen anizkoiztasuna *bakoitia* bada, aplikatu dezakegu bisekzio-metodoa?
- (b) Newton-Raphsonen metodoa aplikatu nahi dugu $x^3 = a$ ekuazioa ebazteko.
- (i) $a \neq 0$ bada eta hartzen bada tarte bat metodo hori konbergentzia izateko, zein konbergentzia-ordena du metodo horrek tarte horretan?
- (ii) $a = 0$ bada, zein konbergentzia-ordena du konbergentzia-tartean?

2015-16 ikasturteko ekainekoa

Izan bedi matrize hau:

$$A = \begin{bmatrix} 1-x & 1 & 0 \\ 0 & x & 0 \\ 0 & 1 & x \end{bmatrix}$$

Demagun $f(x) = \det(A)$ dela. A matrizea singularra izateko, x -ren balioa kalkulatu nahi dugu Newton-Raphsonen metodoa aplikatuz.

- (a) Zein da iterazio-funtzioa?
- (b) Puntu finkoaren teorema erabiliz, frogatu Newton-Raphsonen metodoak $[-0.5, 0.4]$ tartean bermatzen duela erro bat aurkitzea.
- (c) Aurreko (a) atalean lortutako puntu finkoaren iterazio-funtzioa erabiliz, iterazioak egin gabe, zenbat iterazio behar dira zehaztasun absolutua 0.0001 bider txikiagoa egiteko?

2016-17 ikasturteko urtarrilekoa

- (i) Enuntziatu eta frogatu puntu finkoaren metodoaren konbergentziari buruzko teorema.
- (ii) Dakigunez, $f(x) = e^{-x} - \cos x$ funtzioak 1.29tik hurbil p erro bat dauka.
 - (a) Froga ezazu p hori funtzio hauen puntu finko bat dela:

$$F_1(x) = \arccos(e^{-x}); \quad F_2(x) = -\ln(\cos x); \quad F_3(x) = x - 0.01(e^{-x} - \cos x)$$

- (b) Ikasitako teoria erabiliz, justifika ezazu zein den zure iritziaz iterazio-funtzio egokiena p kalkulatzeko, puntu finkoaren metodoaz.

2016-17 ikasturteko ekainekoa

- (i) Izan bedi $x_0 = 1$, $x_{k+1} = 0.2 \left(4x_k + \frac{a}{x_k} \right)$ puntu finkoaren iterazioa, $a > 0$ izanik. Aurkitu analitikoki (iteraziorik egin gabe) puntu finko hori, eta aztertu konbergentzia ratioa.
- (ii) $x^4 - 6x^3 + 12x^2 - 10x + 3 = 0$ ekuazioaren soluzio bat $x = 1$ da. Aztertu soluzio horretarako Newton-Raphsonen metodoaren konbergentzia.

2017-18 ikasturteko urtarrilekoa

Izan bedi $x + \ln x = 0$ ekuazioa.

- (a) Erakutsi analitikoki x^* erro bat eta bakarrik bat duela $(0, +\infty)$ tartean.
- (b) Erakutsi erro hori $[0.5, 0.6]$ tartean dagoela, eta hurbildu x^* -ren balioa bisekzio-metodoaren 3 iterazio eginez. Zein da lortutako zehaztasun absolutua?
- (c) Iterazio gehiago egin barik, arrazoitu zenbat iteraziotan izango den zehaztasun absolutua 10^{-8} baino txikiago.

- (d) Ekuazio horren erroa kalkulatzeko puntu finkoaren metodoa erabiltzen badugu, aukeratu $F_1(x)$ iterazio-funtzio egoki bat algoritmoa konbergitzeko; arrazoitu aukera hori.
- (e) $F_1(x)$ horretarako eta iterazioak kalkulatu barik, zenbat iterazio erabiliko lituzke puntu finkoaren metodoak zehaztasun absolutua 10^{-8} baino txikiago izateko? Zein da bere konbergentzia-ordena?
- (f) Aurkitu $F_2(x)$ egoki bat konbergentzia koadratikoa izateko, hasierako hurbilpena x^* tik nahiko hurbil badago. Hurbildu ezazu erroa metodo hori erabiliz $x_0 = 0.5$ bada eta zehaztasun absolutuaren tolerantzia 10^{-5} bada.

2018-19 ikasturteko ekainekoa

Izan bedi $f(x) = x^2 - 3x + 2 = 0$ ekuazioa.

1. Froga ezazu funtzio hauek erabil ditzakegula puntu finkoaren metodoarekin ekuazio hori ebazteko:

$$F_1(x) = (x^2 + 2)/3$$

$$F_2(x) = \sqrt{3x - 2}$$

$$F_3(x) = 3 - 2/x$$

2. Egiaztatu $f(2) = 0$ dela, eta aurreko F funtzioen $x = 2$ puntu finkoa dela.
3. Aurreko F funtzioetarako $x = 2$ puntu finko erakargarria da? Aztertu konbergentzia kasu bakoitzean. Konbergente den kasuetan, zein da konbergentzia-ratioa? Zein da konbergentzia-ordena? Zein da azkarren konbergitzen dena?
4. Konbergentzia azkarrena duen kasuan, zein izan behar da n iterazioen kopurua x_n -tik $x = 2$ puntu finkora dagoen distantzia x_0 puntutik puntu finkorako distantzia baino 10^8 bider txikiago izateko?
5. Konbergentzia azkarreneko kasuan, aplikatu puntu finkoaren metodoa, $x_0 = 1.6$ hartuz eta zehaztasun erlatiboaren balioa 10^{-1} baino txikiagoa izan dadin.

2019-20 ikasturteko urtarrilekoa

1. Definitu konbergentzia-ordenaren motak.
2. Aurreko definizioak kontuan hartuz, aztertu segida hauen konbergentzia-ordena:

$$\{1 + k^{-k}\}; \quad \{1 + 0.5^{2^k}\}$$
3. Froga ezazu segida baten konbergentzia-ordena koadratikoa bada, superlineala ere bada.
4. Froga ezazu segida baten konbergentzia-ordena superlineala bada, lineala ere badela.

eta ezezagun bateko ekuazio hau hartuko dugu:

$$7x = 21.$$

Sistema hori ebazteko modu hoberena zatiketa da:

$$x = \frac{21}{7} = 3.$$

Alderantzizko matrizea erabiltzeak honetara eramaten gaitu:

$$x = 7^{-1} \times 21 = 0.142857 \times 21 = 2.99997.$$

Alderantzizkoak aritmetika gehiago behar du (zatiketa bat eta biderketa bat, zatiketa bat bakarrik izan beharrean), eta emaitzaren zehaztasuna txikiagoa da. Antzeko zerbait gertatzen da sistema handiagoetan. Ondorioz, ekuazio-sistemen ebazpen zuzenean zentratuko gara, alderantzizkoaren kalkulua egin beharrean.

Aplikazio askotan sistema linealak ebatzi behar dira era eraginkor batean. Berez, sistema linealen ebazpena da ordenagailuek gehien duten eginbeharra, prozesu askotan bitarteko urrats batean ekuazio-sistema linealen ebazpena eskatzen baitute. Ondorioz, gaur egun ere, helburu interesgarria da ikertzaileentzat sistemak ebazteko metodo ahalik eta eraginkorrenak sortzea.

Kapitulu honetan, metodo zuzenak (*LU* metodoa edo Choleskyren metodoa bezalakoak) landuko dira. Sistema lineal bat ebaztean zenbakizko baldintzak sor ditzakeen arazoak ere aztertuko ditugu. Azkenik, metodo iteratiboak eta haien konbergentzia jorratuko dira.

LU eta Choleskyren faktORIZAZIOA *metodo zuzenak* dira; izan ere, ez balira egongo biribiltze-erroreak, ikusi dugun bezala, urratsen kopuru finitu batean soluzio zehatzera helduko lirarteko. Baina, sistemaren matrizea eskasa bada (hots, gaien ehuneko handi bat zeroak direnean), Gaussen metodoak zeroak hondatzen ditu (hots, ez-zero bihurtzen ditu). Edonola ere, matrizearen egitura hori eskasa denean, badaude estrategia egokiak esplotatzeko; ikus [10], [13]. MATLABeko `nnz(A)` funtzioak **A** matrizean zero ez diren gaien kopurua zenbatzen du.

Metodo iteratiboak egokiak dira matrizearen egitura aprobetxatuz eragiketa gutxiago egiteko eta ordenagailuaren memoria gutxiago erabiltzeko, eta hori oso interesgarria da sistema oso handia denean, deribatu partzialetako ekuazioen sistemetan bezala.

4.1. Problemak

Eskuz ebazteko problemak:

1. FaktORIZATU matrize hauek LU deskonposizioaren bidez eta pibotatze partziala erabiliz:

$$a) \begin{bmatrix} 1 & 3 & 2 \\ 1 & 5 & 3 \\ 2 & 4 & -6 \end{bmatrix}, \quad b) \begin{bmatrix} 2 & 1 & 1 & 0 \\ 4 & 3 & 3 & 1 \\ 8 & 7 & 9 & 5 \\ 6 & 7 & 9 & 8 \end{bmatrix}.$$

$$c) \begin{bmatrix} -5 & 2 & -1 \\ 1 & 0 & 3 \\ 3 & 1 & 6 \end{bmatrix}, \quad d) \begin{bmatrix} 2 & -1 & 1 \\ 3 & 3 & 9 \\ 3 & 3 & 5 \end{bmatrix}.$$

$$e) \begin{bmatrix} 1 & 1 & 0 & 4 \\ 2 & -1 & 5 & 0 \\ 5 & 2 & 1 & 2 \\ -3 & 0 & 2 & 6 \end{bmatrix}, \quad f) \begin{bmatrix} 4 & 8 & 4 & 0 \\ 1 & 5 & 4 & -3 \\ 1 & 4 & 7 & 2 \\ 1 & 3 & 0 & -2 \end{bmatrix}.$$

Zein dira matrize horien bat-norma eta infinitu-norma?

Aurkitu matrize horien baldintzazko zenbakiak bi norma horietarako (hots, κ_1 eta κ_∞).

2. Ebatzi sistema lineal hauek LU deskonposizioaren bidez eta pibotatze partziala erabiliz:

$$\begin{array}{ll} a) & \begin{array}{l} x_1 + 3x_2 + 2x_3 = 5 \\ x_1 + 5x_2 + 3x_3 = 10 \\ 2x_1 + 4x_2 - 6x_3 = -4. \end{array} \\ b) & \begin{array}{l} 2x_1 + x_2 + x_3 = 3 \\ 4x_1 + 3x_2 + 3x_3 + x_4 = 7 \\ 8x_1 + 7x_2 + 9x_3 + 5x_4 = 17 \\ 6x_1 + 7x_2 + 9x_3 + 8x_4 = 15. \end{array} \\ c) & \begin{array}{l} -5x_1 + 2x_2 - x_3 = 2 \\ x_1 + 3x_3 = 2 \\ 3x_1 + x_2 + 6x_3 = 2. \end{array} \\ d) & \begin{array}{l} 2x_1 - x_2 + x_3 = -1 \\ 3x_1 + 3x_2 + 9x_3 = 0 \\ 3x_1 + 3x_2 + 5x_3 = 4. \end{array} \\ e) & \begin{array}{l} x_1 + x_2 + 4x_4 = 5 \\ 2x_1 - 1x_2 + 5x_3 = -6 \\ 5x_1 + 2x_2 + x_3 + 2x_4 = 3 \\ -3x_1 + 2x_3 + 6x_4 = 4. \end{array} \\ f) & \begin{array}{l} 4x_1 + 8x_2 + 4x_3 = 8 \\ x_1 + 5x_2 + 4x_3 - 3x_4 = -4 \\ x_1 + 4x_2 + 7x_3 + 2x_4 = 10 \\ x_1 + 3x_2 - 2x_4 = -4. \end{array} \end{array}$$

Kalkula ezazu sistema guztietarako $\kappa(A)_\infty$ -ren behe-borne bat.

3. Izan bedi $\mathbf{U}\mathbf{x} = \mathbf{b}$ sistema, non $\mathbf{U} \in \mathbb{R}^{n \times n}$ matrize goi-triangeluarra eta $\mathbf{b} \in \mathbb{R}^{n \times 1}$ baitira. Zenbat eragiketa aritmetiko behar ditugu sistema hori ebazteko?

4. (a) Izan bedi $\mathbf{A} \in \mathbb{R}^{n \times n}$ matrizea. Zenbat biderketa/zatiketa behar ditu pibotatzerik gabeko LU deskonposizioak? (*Iradokizuna:* $1^2 + 2^2 + \dots + m^2 = m(m+1)(2m+1)/6$ berdintza erabili, zeina indukzioz frogatu baitaiteke).
- (b) Zenbat biderketa/zatiketa behar ditu aurreranzko ordezkapenak? Eta atzeranzko ordezkapenak?
- (c) Sistema lineal bat pibotatzerik gabeko LU metodoaz ebazteko, zenbat biderketa/zatiketa egin behar ditugu?
5. (a) Izan bedi \mathbf{U} matrize ez-singular goi-triangeluarra. Frogatu \mathbf{U}^{-1} -en diagonaleko gaiak \mathbf{U} -ren diagonaleko gaien erreziprokoak direla.
- (b) Aurreko atalaren emaitza erabiliz, frogatu hau betetzen dela:

$$\|\mathbf{U}\|_{\infty} \geq \max_i |u_{ii}| \quad \text{eta} \quad \|\mathbf{U}^{-1}\|_{\infty} \geq \frac{1}{\min_i |u_{ii}|}.$$

Infinitu-normako bi desberdintza horiek hau inplikatzan dute:

$$\kappa_{\infty}(\mathbf{U}) \geq \frac{\max_i |u_{ii}|}{\min_i |u_{ii}|}.$$

Desberdintza horren eskuinaldeko kantitatea sarri erabiltzen dugu matrize goi-triangeluar baten baldintzazko zenbakiaren hurbilpena bezala.

6. Faktorizatu matrize simetriko hauek, $\mathbf{R}^T \mathbf{R}$ eran, Choleskyren metodoa erabiliz:

$$a) \quad \begin{bmatrix} 4 & -2 & 2 \\ -2 & 2 & -1 \\ 2 & -1 & 10 \end{bmatrix}. \quad b) \quad \begin{bmatrix} 4 & 2 & -2 \\ 2 & 10 & 2 \\ -2 & 2 & 3 \end{bmatrix}.$$

$$c) \quad \begin{bmatrix} 2 & -1 & 0 \\ -1 & 2 & -1 \\ 0 & -1 & 2 \end{bmatrix}. \quad d) \quad \begin{bmatrix} 4 & 1 & 1 & 1 \\ 1 & 3 & -1 & 1 \\ 1 & -1 & 2 & 0 \\ 1 & 1 & 0 & 2 \end{bmatrix}.$$

$$e) \quad \begin{bmatrix} 6 & 2 & 1 & -1 \\ 2 & 4 & 1 & 0 \\ 1 & 1 & 4 & -1 \\ -1 & 0 & -1 & 3 \end{bmatrix}. \quad f) \quad \begin{bmatrix} 4 & 1 & -1 & 0 \\ 1 & 3 & -1 & 0 \\ -1 & -1 & 5 & 2 \\ 0 & 0 & 2 & 4 \end{bmatrix}.$$

Zein kasutan da matrizea hertsiki diagonal menperatzaile? Hori gertatzen denean, nolakoa da matrizea? Kalkulatu matrize horietarako baldintzazko zenbakiaren beheborne bat.

7. Aurkitu a -ren eta b -ren balio guztiak, matrize hau simetriko definitu positiboa izateko:

$$\begin{bmatrix} a & 1 & 1+b \\ 1 & a & 1 \\ 1-b^2 & 1 & a \end{bmatrix}.$$

8. Sistema hauetarako, aurkitu Jacobiren eta Gauss-Seidelen lehenengo hiru iterazioak, $\mathbf{x}^{(0)} = \mathbf{0}$ erabiliz:

$$\begin{array}{ll}
 a) & \begin{array}{l} -x_1 + 3x_2 = 1 \\ 6x_1 - 2x_2 = 2. \end{array} \\
 c) & \begin{array}{l} 3x_1 - 0.1x_2 - 0.2x_3 = 7.85 \\ 0.1x_1 + 7x_2 - 0.3x_3 = -19.3 \\ 0.3x_1 - 0.2x_2 + 10x_3 = 71.4. \end{array} \\
 e) & \begin{array}{l} 2x_1 - x_2 + 10x_3 = -11 \\ 3x_2 - x_3 + 8x_4 = -11 \\ 10x_1 - x_2 + 2x_3 = 6 \\ -x_1 + 11x_2 - x_3 + 3x_4 = 25. \end{array} \\
 b) & \begin{array}{l} 5x_1 - x_2 + x_3 = 10 \\ 2x_1 + 8x_2 - x_3 = 11 \\ -x_1 + x_2 + 4x_3 = 3. \end{array} \\
 d) & \begin{array}{l} 2x_1 - x_2 + x_3 = -1 \\ 3x_1 + 3x_2 + 9x_3 = 0 \\ 3x_1 + 3x_2 + 5x_3 = 4. \end{array} \\
 f) & \begin{array}{l} 4x_1 - 2x_2 = 0 \\ -2x_1 + 5x_2 - x_3 = 2 \\ -x_2 + 4x_3 + 2x_4 = 3 \\ 2x_3 + 3x_4 = -2. \end{array}
 \end{array}$$

Beste galdera batzuk:

- i) Zein da metodo bakoitzeko zehaztasun erlatiboa hirugarren iterazioan? Metodo horiek konbergenteak badira, zein baliotara uste duzu konbergitzen direla? Egiaztatu hori dela, hain zuzen, sistemaren soluzioa sisteman ordezkatzuz.
- ii) Sistema bakoitzean iterazioekin hasi baino lehen, aztertu jakin dezakegun Jacobiren metodoa konbergentea den ala dibergentea. Zergatik?
- iii) Ez bada konbergentea, nola bihur dezakegu konbergente (ahal bada)? Kasu horretan, ebatzi berriro sistema hori hasierako puntu berdina erabiliz.
- iv) Zein metodok egiten du konbergentzia azkarren (egiten badu)? Justifikatu erantzuna konbergentziari buruzko teoria erabiliz.
- v) Zein da problema bakoitzean Jacobiren metodoaren konbergentzia-ratioa?
- vi) Zenbat iterazio behar ditu gehienez Jacobiren metodoak hasierako errorea 10^4 bider txikiago egiteko? Erantzuna konbergentziaren teoreman oinarritu behar da.

$$\left(\text{Oharra: } k. \text{ iterazioko zehaztasun erlatiboa} = \frac{\|\mathbf{x}^{(k)} - \mathbf{x}^{(k-1)}\|_\infty}{\|\mathbf{x}^{(k)}\|_\infty} \right).$$

9. Izan bedi matrize hau:

$$\mathbf{A} = \begin{bmatrix} 1 & a & a \\ a & 1 & a \\ a & a & 1 \end{bmatrix}.$$

Aurkitu a -ren balioak \mathbf{A} simetriko definitu positiboa izan dadin, baina Jacobiren iterazioa ez konbergitzeko.

10. Froga ezazu \mathbf{A} 2×2 -matrize simetriko definitu positiboa bada, Jacobiren metodoa konbergentea dela edozein hasierako baliotarako.

MATLABez ebazteko problemak:

11. Izan bedi matrize hau:

$$\mathbf{A} = \begin{bmatrix} 1 & 3 & 5 & 7 \\ 2 & -1 & 3 & 5 \\ 0 & 0 & 2 & 5 \\ -2 & -6 & -3 & 1 \end{bmatrix}$$

eta izan bitez matrize-norma hauek:

- $\|\mathbf{A}\|_1 = \max_j \|\mathbf{A}_{:,j}\|_1$ (zutabe guztien bat-normetako maximoa)
 - $\|\mathbf{A}\|_\infty = \max_i \|\mathbf{A}_{i,:}\|_1$ (lerro guztien bat-normetako maximoa)
- (a) Aztertu **eskuz** \mathbf{A} matrize honen singularitasuna, eta kalkulatu bat-norma eta infinitu-norma.
 - (b) Kalkulatu \mathbf{A}^{-1} MATLABeko `inv(A)` funtzioa erabiliz, eta kalkulatu matrize horren bat-norma eta infinitu-norma.
 - (c) Kalkulatu **eskuz** \mathbf{A} matrizearen baldintzazko zenbakia, hau da: $\kappa(\mathbf{A}) = \|\mathbf{A}^{-1}\| \cdot \|\mathbf{A}\|$ bi norma horietarako.
 - (d) Egiaztatu lortutako emaitzak MATLABeko `cond(A,1)` eta `cond(A,inf)` funtzioak erabiliz.
 - (e) Eranskinetik kopiatu kodea MATLABeko `lup.m` funtzio-fitxategia sortzeko, eta kalkulatu \mathbf{A} matrizearen \mathbf{L} , \mathbf{U} eta \mathbf{P} matrizeak funtzio hori erabiliz.
 - (f) Kalkulatutako matrize horiek erabiliz (ikus (5.10)-(5.11) adierazpenak), ebatzi **eskuz** sistema hau:

$$\begin{bmatrix} 1 & 3 & 5 & 7 \\ 2 & -1 & 3 & 5 \\ 0 & 0 & 2 & 5 \\ -2 & -6 & -3 & 1 \end{bmatrix} \begin{bmatrix} x_1 \\ x_2 \\ x_3 \\ x_4 \end{bmatrix} = \begin{bmatrix} 1 \\ 2 \\ 3 \\ 4 \end{bmatrix}.$$

12. Izan bedi $\mathbf{L}\mathbf{y} = \mathbf{P}\mathbf{b}$ sistema. Sortu MATLABeko funtzio bat `aurrerantz.m` izeneko, adierazpen hauek kontuan hartuz:

$$x_1 = b_1$$

$$x_i = b_i - \sum_{j=1}^{i-1} l_{ij}x_j, \quad i = 2, 3, \dots, n-1, n,$$

ikus [20] testuliburuko (5.5)-(5.6) berdintzak.

Egiaztatu aurreko problemako $\mathbf{L}\mathbf{y} = \mathbf{P}\mathbf{b}$ sistema ondo ebatzi duzula funtzio hori erabiliz.

13. Izan bedi $\mathbf{U}\mathbf{x} = \mathbf{y}$ sistema. Sortu MATLABeko funtzio bat `atzerantz.m` izenekoa, adierazpen hauek kontuan hartuz:

$$x_n = \frac{b_n}{u_{nn}}$$

$$x_i = \frac{b_i - \sum_{j=i+1}^n u_{ij}x_j}{u_{ii}}, \quad i = n-1, n-2, \dots, 3, 2, 1,$$

ikus [20] testuliburuko (5.2) berdintzak

Egiaztatu aurreko problemako $\mathbf{U}\mathbf{x} = \mathbf{y}$ sistema ondo ebatzi duzula funtzio hori erabiliz.

14. Sortu M fitxategi bat, $\mathbf{A}\mathbf{x} = \mathbf{b}$ sistema LU faktORIZAZIOAZ ebazteko gai izan dadin. Programa horrek sistema hori ebazteko ondoz ondoko lan hauek egin behar ditu:

- (a) Programa horrek goiburu hau izan behar du:
`function x=ebatzi(A,b).`
- (b) Egiaztatu \mathbf{A} ez dela singularra, hots $\det(\mathbf{A}) \neq 0$. Kalkulu hori egiteko, MATLABek `det` funtzioa du. Baldin singularra bada, mezu bat eman ez bukatuko da.
- (c) $\mathbf{LU} = \mathbf{PA}$ faktORIZAZIOA egin behar du. Lan hori `lup` funtzioak egin dezake.
- (d) \mathbf{Pb} kalkulatu behar du. Lan hori egiteko modu errazena `b(p)` idaztea da (MATLABi esker), non `p` permutazio-bektorea baita (`lup` funtzioak kalkulatu du).
- (e) $\mathbf{LU}\mathbf{x} = \mathbf{Pb}$ sistema ebatzi behar du, urrats hauei jarraituz:
 (L) Ebatzi $\mathbf{L}\mathbf{y} = \mathbf{Pb}$. Lan hori `aurrerantz` funtzioak egin dezake.
 (U) Ebatzi $\mathbf{U}\mathbf{x} = \mathbf{y}$. Lan hori `atzerantz` funtzioak egin dezake.

Egiaztatu `ebatzi.m` funtzioa ondo dabilela aurreko sistema ebatziz (ez ahaztu M fitxategiak izen hori izan behar duela).

15. Izan bedi sistema hau:

$$\begin{array}{rcccc} 4x_1 & -2x_2 & & & = & 0 \\ -2x_1 & +5x_2 & -x_3 & & = & 2 \\ & -x_2 & +4x_3 & +2x_4 & = & 3 \\ & & 2x_3 & +3x_4 & = & -2. \end{array}$$

- (a) Garatu Jacobiren metodorako M fitxategi bat, `jacobi.m` izenekoa. Programa horrek gai izan behar du $\mathbf{A}\mathbf{x} = \mathbf{b}$ sistema lineala ebazteko, non $\mathbf{A} \in \mathbb{R}^{n \times n}$ hertsiki diagonal menperatzailea baita. Programa horrek goiburu hau izan behar du:

`function x=jacobi(A,b,x0,ze,imax),`

non `x` soluzioaren hurbilpen bat baita, `x0` hasierako hurbilpen bat, eta `ze` eta `imax` eskatutako zehaztasun erlatiboa eta iterazioen kopuru maximoa baitira, hurrenez hurren. Programaren exekuzioa bukatuko da, k -garren iterazioan lortutako

zehaztasun erlatiboak hau betetzen duenean:

$$\frac{\|\mathbf{x}^{(k)} - \mathbf{x}^{(k-1)}\|_\infty}{\|\mathbf{x}^{(k)}\|_\infty} \leq ze,$$

edo $k = imax$ denean.

- (a) Asmatu zure kabuz sistema bat diagonal menperatzailekoa, eta ebatzi egingdako programa erabiliz. Egiaztatu emaitza.
 - (b) Emandako sistema Jacobiren metodoaz ebatzi gabe, esan konbergituko den ala ez. Eta 11. problemako (f) atalekoa? Arrazoitu erantzunak.
 - (c) Gutxi gorabehera, zenbat iterazio erabiliko ditu hasierako errorea mila bider txikiagoa egiteko?
 - (d) Ebatzi emandako sistema kode hori erabiliz, eta egiaztatu aurreko analisia betetzen dela.
- (b) Garatu Gauss-Seidelen metodorako MATLABeko M fitxategi bat `gaussseidel.m` izenekoa. Programa horrek gai izan behar du $\mathbf{Ax} = \mathbf{b}$ sistema lineala ebazteko, non $\mathbf{A} \in \mathbb{R}^{n \times n}$ hertsiki diagonal menperatzailea baita. Programa horrek goiburu hau izan behar du:

```
function x=gaussseidel(A,b,x0,ze,imax),
```

non \mathbf{x} soluzioaren hurbilpen bat baita, \mathbf{x}_0 hasierako hurbilpen bat, eta ze eta $imax$ eskatutako zehaztasun erlatiboa eta iterazioen kopuru maximoa baitira, hurrenez hurren. Programaren exekuzioa bukatuko da k -garren iterazioan lortutako zehaztasun erlatiboak hau betetzen duenean:

$$\frac{\|\mathbf{x}^{(k)} - \mathbf{x}^{(k-1)}\|_\infty}{\|\mathbf{x}^{(k)}\|_\infty} \leq ze,$$

edo $k = imax$ denean.

- (a) Asmatu zure kabuz sistema bat diagonal menperatzailekoa, eta ebatzi egingdako programa erabiliz. Egiaztatu emaitza.
- (b) Emandako sistema Gauss-Seidelen metodoaz ebatzi gabe, esan konbergituko den ala ez. Eta 11. problemako (f) atalekoa? Arrazoitu erantzunak.
- (c) Gutxi gorabehera zenbat iterazio erabiliko ditu hasierako errorea mila bider txikiagoa egiteko?
- (d) Ebatzi emandako sistema kode hori erabiliz, eta egiaztatu aurreko analisia betetzen dela.

ERANSKINA

Kode hau $LU = PA$ faktORIZAZIOA kalkulatzeko erabil daiteke:

```
function [L,U,p] = lup(A)
%%%%%%%%%%%%%%%%%%%%%%%%%%%%%%%%%%%%%%%%%%%%%%%%%%%%%%%%%%%%%%%%%%%%%%%%
% LUP  Triangelu faktORIZAZIOA L*U = PA bete dadin.
%   SARRERAK:
%   A deskonposatu nahi dugun matrizea,
%   EMAITZAK:
%   L matrize behe-triangeluarra,
%   U matrize goi-triangeluarra eta
%   p=permutazio-bektorea.
%
%   (P=permutazio-matrizea eman dezake goiburuan p P-rekin trukatzuz.)
%%%%%%%%%%%%%%%%%%%%%%%%%%%%%%%%%%%%%%%%%%%%%%%%%%%%%%%%%%%%%%%%%%%%%%%%
[n,n] = size(A);
p = (1:n)';

for k = 1:n-1

    % Pibotatze partziala egiten du.
    % Aurkitu diagonaleko (k,k) gaitik behera dagoen tamaina
    % handieneko gaia (pibota) eta posizioa (m) azpibektore horretan.
    [pibota,m] = max(abs(A(k:n,k)));

    % pibotaren lerroa A matrizean:
    m = m+k-1;

    % Jauzi ezabapena zutabea 0 bada.
    if (A(m,k) ~= 0)

        % Trukatu m eta k lerroak, eta eguneratu permutazio-bektorea.
        if (m ~= k)
            A([k,m],:) = A([m,k],:);
            p([k,m]) = p([m,k]);
        end

        % Biderkatzaileak kalkulatzeko ditugu, eta A matrizearen diagonal
        % azpian gordetzen ditugu. Gero L matrizeko diagonal azpian jarriko
        % ditugu.
        i = k+1:n;
        A(i,k) = A(i,k)/A(k,k);

        % Eguneratu matrizearen gainerakoa. Gero, U matrize
        % goi-triangeluarrean gordeko dugu.
        j = k+1:n;
        A(i,j) = A(i,j) - A(i,k)*A(k,j);
    end
end
```

```

% L, U eta P matrizeak idazten dira;
% tril(A,-1): A-ren diagonal azpikoa gordetzen du, bestea zero da.
% triu(A): A-ren diagonal eta bere goiko aldea gordetzen ditu, bestea
% zero da.
L = tril(A,-1) + eye(n,n);
U = triu(A);
P=zeros(n,n);
for i=1:n
    P(i,p(i))=1;
end

```

4.2. Problema batzuen ebazpena

1. (b) LU deskonposizioa garatuko dugu matrize honetarako:

$$\mathbf{A} = \begin{bmatrix} 2 & 1 & 1 & 0 \\ 4 & 3 & 3 & 1 \\ 8 & 7 & 9 & 5 \\ 6 & 7 & 9 & 8 \end{bmatrix}.$$

1. eta 3. errenkadak permutatzeko matrize hau erabiliko dugu:

$$\mathbf{P}_1 = \begin{bmatrix} 0 & 0 & 1 & 0 \\ 0 & 1 & 0 & 0 \\ 1 & 0 & 0 & 0 \\ 0 & 0 & 0 & 1 \end{bmatrix}.$$

Gero, 1. zutabeaz zeroak egiteko, biderkatzaileen matrize (ezabapen-matrize) hau dugu:

$$\mathbf{M}_1 = \begin{bmatrix} 1 & 0 & 0 & 0 \\ -1/2 & 1 & 0 & 0 \\ -1/4 & 0 & 1 & 0 \\ -3/4 & 0 & 0 & 1 \end{bmatrix}.$$

Beraz,

$$\mathbf{M}_1 \mathbf{P}_1 \mathbf{A} = \begin{bmatrix} 8 & 7 & 9 & 5 \\ 0 & -1/2 & -3/2 & -3/2 \\ 0 & -3/4 & -5/4 & -5/4 \\ 0 & 7/4 & 9/4 & 17/4 \end{bmatrix}.$$

Matrize horretako $\mathbf{A}(2,2)$ pibotetik behera bigarren zutabeaz zeroak egiteko, berdin jokatuko dugu:

$$\mathbf{P}_2 = \begin{bmatrix} 1 & 0 & 0 & 0 \\ 0 & 0 & 0 & 1 \\ 0 & 0 & 1 & 0 \\ 0 & 1 & 0 & 0 \end{bmatrix}, \mathbf{M}_2 = \begin{bmatrix} 1 & 0 & 0 & 0 \\ 0 & 1 & 0 & 0 \\ 0 & 3/7 & 1 & 0 \\ 0 & 2/7 & 0 & 1 \end{bmatrix}, \mathbf{M}_2 \mathbf{P}_2 (\mathbf{M}_1 \mathbf{P}_1 \mathbf{A}) = \begin{bmatrix} 8 & 7 & 9 & 5 \\ 0 & 7/4 & 9/4 & 17/4 \\ 0 & 0 & -2/7 & 4/7 \\ 0 & 0 & -6/7 & -2/7 \end{bmatrix}.$$

Matrize horretako $\mathbf{A}(3,3)$ pibotetik behera hirugarren zutabeen zeroak egiteko, berdin jokatuko dugu:

$$\mathbf{P}_3 = \begin{bmatrix} 1 & 0 & 0 & 0 \\ 0 & 1 & 0 & 0 \\ 0 & 0 & 0 & 1 \\ 0 & 0 & 1 & 0 \end{bmatrix}, \quad \mathbf{M}_3 = \begin{bmatrix} 1 & 0 & 0 & 0 \\ 0 & 1 & 0 & 0 \\ 0 & 0 & 1 & 0 \\ 0 & 0 & -1/3 & 1 \end{bmatrix}.$$

Horrek hau ematen du:

$$\mathbf{U} = \mathbf{M}_3 \mathbf{P}_3 (\mathbf{M}_2 \mathbf{P}_2 (\mathbf{M}_1 \mathbf{P}_1 \mathbf{A})) = \begin{bmatrix} 8 & 7 & 9 & 5 \\ 0 & 7/4 & 9/4 & 17/4 \\ 0 & 0 & -6/7 & -2/7 \\ 0 & 0 & 0 & 2/3 \end{bmatrix}.$$

Bestalde, $\mathbf{M}_3 \mathbf{P}_3 \mathbf{M}_2 \mathbf{P}_2 \mathbf{M}_1 \mathbf{P}_1 \mathbf{A} = \mathbf{U}$ honela eraldatuko dugu, ezkerretik eskuinera:

$$\mathbf{M}_3 \mathbf{P}_3 \mathbf{M}_2 \mathbf{P}_2 \mathbf{M}_1 \mathbf{P}_1 \mathbf{A} = \mathbf{M}_3 (\mathbf{P}_3 \mathbf{M}_2 \mathbf{P}_3) \mathbf{P}_3 \mathbf{P}_2 \mathbf{M}_1 \mathbf{P}_1 \mathbf{A} = \mathbf{M}_3 \tilde{\mathbf{M}}_2 \mathbf{P}_3 \mathbf{P}_2 \mathbf{M}_1 \mathbf{P}_1 \mathbf{A},$$

non $\tilde{\mathbf{M}}_2 = \mathbf{P}_3 \mathbf{M}_2 \mathbf{P}_3$ definitzen baita. Eta gero, hau eginez:

$$\mathbf{M}_3 \tilde{\mathbf{M}}_2 \mathbf{P}_3 \mathbf{P}_2 \mathbf{M}_1 \mathbf{P}_1 \mathbf{A} = \mathbf{M}_3 \tilde{\mathbf{M}}_2 (\mathbf{P}_3 \mathbf{P}_2 \mathbf{M}_1 \mathbf{P}_2 \mathbf{P}_3) \mathbf{P}_3 \mathbf{P}_2 \mathbf{P}_1 \mathbf{A} = \mathbf{M}_3 \tilde{\mathbf{M}}_2 \tilde{\mathbf{M}}_1 \mathbf{P}_3 \mathbf{P}_2 \mathbf{P}_1 \mathbf{A} = \mathbf{U},$$

non $\tilde{\mathbf{M}}_1 = \mathbf{P}_3 \mathbf{P}_2 \mathbf{M}_1 \mathbf{P}_2 \mathbf{P}_3$.

Horrela, hau dugu:

$$\mathbf{M}_3 \tilde{\mathbf{M}}_2 \tilde{\mathbf{M}}_1 \mathbf{P}_3 \mathbf{P}_2 \mathbf{P}_1 \mathbf{A} = \mathbf{U},$$

Beraz,

$$\mathbf{L}_1 \mathbf{L}_2 \mathbf{L}_3 \mathbf{U} = \mathbf{P}_3 \mathbf{P}_2 \mathbf{P}_1 \mathbf{A}.$$

non $\mathbf{L}_1 = \tilde{\mathbf{M}}_1^{-1}$, $\mathbf{L}_2 = \tilde{\mathbf{M}}_2^{-1}$ eta $\mathbf{L}_3 = \mathbf{M}_3^{-1}$ baitira, eta hori kalkulatzeko da $\tilde{\mathbf{M}}_1$ -tik, $\tilde{\mathbf{M}}_2$ -tik eta \mathbf{M}_3 -tik diagonalaren azpiko biderkatzaileen zeinuak aldatuz, eta gero permutazioak aplikatuz. Beraz, hau badugu:

$$\begin{aligned} \mathbf{L} &= \mathbf{L}_1 \mathbf{L}_2 \mathbf{L}_3 \\ \mathbf{P} &= \mathbf{P}_3 \mathbf{P}_2 \mathbf{P}_1, \end{aligned}$$

Ondorioz, ariketa honetan hau dugu:

$$\mathbf{L} = \begin{bmatrix} 1 & 0 & 0 & 0 \\ 3/4 & 1 & 0 & 0 \\ 1/2 & -2/7 & 1 & 0 \\ 1/4 & -3/7 & 1/3 & 1 \end{bmatrix} \quad \mathbf{P} = \begin{bmatrix} 0 & 0 & 1 & 0 \\ 0 & 0 & 0 & 1 \\ 0 & 1 & 0 & 0 \\ 1 & 0 & 0 & 0 \end{bmatrix}$$

zera egiaztatuz:

$$\mathbf{LU} = \mathbf{PA}.$$

Jarraian, \mathbf{A} matrizearen 1-norma eta ∞ -norma kalkulatuko ditugu:

$$\|\mathbf{A}\|_1 = \max_j \|\mathbf{A}_{:,j}\|_1 = \max_{1 \leq j \leq 4} \{20, 18, 22, 14\} = 22$$

$$\|\mathbf{A}\|_\infty = \max_i \|\mathbf{A}_{i,:}\|_1 = \max_{1 \leq i \leq 4} \{4, 11, 29, 30\} = 30.$$

Bestalde, hau dugunez:

$$\mathbf{A}^{-1} = \begin{bmatrix} 9/4 & -3/4 & -1/4 & 1/4 \\ -3 & 5/2 & -1/2 & 0 \\ -1/2 & -1 & 1 & -1/2 \\ 3/2 & -1/2 & -1/2 & 1/2 \end{bmatrix}$$

$$\|\mathbf{A}^{-1}\|_1 = \max_j \|\mathbf{A}_{:,j}^{-1}\|_1 = \max_{1 \leq j \leq 4} \{7.25, 4.75, 2.25, 1.25\} = 7.25$$

$$\|\mathbf{A}^{-1}\|_\infty = \max_i \|\mathbf{A}_{i,:}^{-1}\|_1 = \max_{1 \leq i \leq 4} \{3.5, 6, 3, 3\} = 6.$$

Ondorioz,

$$\kappa_1(\mathbf{A}) = \|\mathbf{A}\|_1 \|\mathbf{A}^{-1}\|_1 = 22 \cdot 7.25 = 159.5$$

$$\kappa_\infty(\mathbf{A}) = \|\mathbf{A}\|_\infty \|\mathbf{A}^{-1}\|_1 = 30 \cdot 6 = 180.$$

2. (b) Aurreko ariketan kalkulatuak \mathbf{L} , \mathbf{U} eta \mathbf{P} matrizeak kontuan hartuko ditugu, eta baita $\mathbf{b} = [3, 7, 17, 15]^T$ dela ere.

Lehenengo $\mathbf{L}\mathbf{y} = \mathbf{P}\mathbf{b}$ goitik behera ebazten badugu, $\mathbf{y} = [17, 2.25, -0.85714, 0]^T$ da.

Gero, $\mathbf{U}\mathbf{x} = \mathbf{y}$ behetik gora, $\mathbf{x} = [1, 0, 1, 0]^T$ lortuz.

Jarraian, sistema horren κ_∞ -ren behe-borne bat aurkituko dugu. Jo dezagun \mathbf{b} bektorea honela perturbatzen dugula:

$$\tilde{\mathbf{b}} = \mathbf{b} + \delta\mathbf{b} = \begin{bmatrix} 3 \\ 7 \\ 17 \\ 15 \end{bmatrix} + \begin{bmatrix} 0.001 \\ 0 \\ 0 \\ 0 \end{bmatrix} = \begin{bmatrix} 3.001 \\ 7 \\ 17 \\ 15 \end{bmatrix}.$$

$\mathbf{A}\mathbf{x} = \mathbf{b}$ sistemaren soluzio zehatza $\mathbf{x} = (1, 0, 1, 0)^T$ da, baina $\mathbf{A}\tilde{\mathbf{x}} = \tilde{\mathbf{b}}$ sistemaren soluzio zehatza $\mathbf{x} = (1.00225, -0.003, 0.9995, 0.0015)^T$ da, hots:

$$\delta\mathbf{x}_b = (0.00225, -0.003, -0.0005, 0.0015)^T.$$

Infinitu-norma erabiltzen badugu, \mathbf{b} -ren eta \mathbf{x} -ren perturbazio erlatiboak kalkulatzeko, zera dugu:

$$\frac{\|\delta\mathbf{b}\|_\infty}{\|\mathbf{b}\|_\infty} = \frac{0.001}{17} = 5.8824 \cdot 10^{-5} \quad \text{eta} \quad \frac{\|\delta\mathbf{x}_b\|_\infty}{\|\mathbf{x}\|_\infty} = \frac{0.003}{1} = 0.003.$$

eta [20] testuliburuko (5.25) adierazpena kontuan hartuz, hau dugu:

$$\kappa_\infty(\mathbf{A}) \geq \frac{\|\delta\mathbf{x}_b\|/\|\mathbf{x}\|}{\|\delta\mathbf{b}\|/\|\mathbf{b}\|} = \frac{0.003}{5.8824 \cdot 10^{-5}} = 51.$$

3.

Ezezaguna	\div	*	+/-
$x_n = b_n/u_{nn}$	1	0	0
$x_{n-1} = (b_{n-1} - u_{n-1,n}x_n)/u_{n-1,n-1}$	1	1	1
$x_{n-2} = (b_{n-2} - u_{n-2,n-1}x_{n-1} - u_{n-2,n}x_n)/u_{n-2,n-2}$	1	2	2
\vdots	\vdots	\vdots	\vdots
$x_1 = (b_1 - u_{12}x_2 - \dots - u_{1n}x_n)/u_{11}$	1	$n-1$	$n-1$

$\{a_n\}$ progresio aritmetiko baten lehenengo n gaien batuketa kalkulatzeko, adierazpen hau erabiltzen da:

$$S_n = \frac{a_1 + a_n}{2}n.$$

Hortaz, $1 + 2 + \dots + (n-1) = \frac{1 + (n-1)}{2} \cdot (n-1) = \frac{n(n-1)}{2}$ dugu. Ondorioz, n zatiketa, $n(n-1)/2$ biderketa eta $n(n-1)/2$ kenketa ditugu; guztira, n^2 eragiketa aritmetiko.

4. (a) LU deskonposizioan, zutabez zutabe biderketa eta zatiketa hauek egin behar dira:

Zutabea	*	\div
1	$(n-1)(n-1)$	$n-1$
2	$(n-2)(n-2)$	$n-2$
\vdots	\vdots	\vdots
$n-2$	$2 \cdot 2$	2
$n-1$	$1 \cdot 1$	1

Oharra: oraingo zutabearekin egiten diren eragiketak zatiketak bakarrik dira, biderkatzaileak kalkulatzeko; baina, zutabe horren diagonaleko gaia ez da biderkatzen azpiko gaia zeroak bihurtzeko beharrezkoa ez delako, emaitza ezagutzen baitugu.

Beraz, biderketen kopurua honela aurkituko dugu enuntziatuaren iradokizuna erabiliz:

$$1^2 + 2^2 + \dots + (n-2)^2 + (n-1)^2 = \frac{(n-1)(n)(2n-1)}{6} = \frac{2n^3 - 3n^2 + n}{6}$$

Bestalde, zatiketen kopurua aurkitzeko, progresio aritmetiko baten lehenengo $n-1$ gaien batura kalkulatzeko, $S_n = \frac{a_1 + a_n}{2}n$ adierazpena erabiliko dugu:

$$1 + 2 + \dots + (n-2) + (n-1) = \frac{1 + (n-1)}{2}(n-1) = \frac{n^2 - n}{2}$$

Guztira, $\frac{2n^3 - 3n^2 + n}{6} + \frac{n^2 - n}{2} = \frac{n^3 - n}{3}$.

(b) $\mathbf{L}\mathbf{y} = \mathbf{b}$ ebazten da aurreranzko ordezkapena erabiliz. Beraz, biderketa hauek egin behar ditugu y_i ezezagun bakoitza kalkulatzeko (ez dago zatiketarik):

y_i	*
y_1	0
y_2	1
y_3	2
\vdots	\vdots
y_{n-1}	$(n-2)$
y_n	$(n-1)$

Hots, $1 + 2 + \dots + (n-2) + (n-1) = \frac{n^2 - n}{2}$.

\mathbf{y} kalkulatu eta gero, $\mathbf{U}\mathbf{x} = \mathbf{y}$ ebazten da atzeranzko ordezkapena erabiliz. Beraz, biderketa eta zatiketa hauek egin behar ditugu x_i ezezagun bakoitza kalkulatzeko:

x_i	*	\div
x_n	0	1
x_{n-1}	1	1
x_{n-2}	2	1
\vdots	\vdots	\vdots
x_2	$(n-2)$	1
x_1	$(n-1)$	1

Hots, $1 + 2 + \dots + (n-2) + (n-1) = \frac{n^2 - n}{2}$ biderketak eta n zatiketak, guztira $\frac{n^2 - n}{2} + n = \frac{n^2 + n}{2}$.

(c) Ondorioz, LU faktORIZAZIOA eta $\mathbf{L}\mathbf{y} = \mathbf{b}$ eta $\mathbf{U}\mathbf{x} = \mathbf{y}$ sistemak ebazteko erabiltzen diren biderketak/zatiketak hauek dira:

$$\frac{n^3 - n}{3} + \frac{n^2 - n}{2} + \frac{n^2 + n}{2} = \frac{n^3 + 3n^2 - n}{3}.$$

6. (a) Lehenengo lerrorako ($i = 1$), zera dugu:

$$r_{11} = \sqrt{a_{11}} = \sqrt{4} = 2.$$

Beraz,

$$r_{12} = \frac{a_{12}}{r_{11}} = \frac{-2}{2} = -1$$

$$r_{13} = \frac{a_{13}}{r_{11}} = \frac{2}{2} = 1.$$

Hurrengo lerroko ($i = 2$), zera dugu:

$$r_{22} = \sqrt{a_{22} - r_{12}^2} = \sqrt{2 - (-1)^2} = 1$$

$$r_{23} = \frac{a_{23} - r_{12}r_{13}}{r_{22}} = \frac{-1 - (-1) \cdot 1}{1} = 0.$$

Hirugarren lerroko ($i = 3$), hau lortuko dugu:

$$r_{33} = \sqrt{a_{33} - r_{13}^2 - r_{23}^2} = \sqrt{10 - (-1)^2 - (0)^2} = 3.$$

Ondorioz, Choleskyren faktORIZAZIOAK zera ematen du:

$$\mathbf{R} = \begin{bmatrix} 2 & -1 & 1 \\ 0 & 1 & 0 \\ 0 & 0 & 3 \end{bmatrix}.$$

Ez da hertsiki diagonal menperatzaile; izan ere, $|a_{22}| \not\geq |a_{21}| + |a_{23}|$. (Matrize simetriko bat hertsiki diagonal menperatzaile bada eta diagonaleko gai guztiak positiboak badira, definitu positiboa da).

$$\kappa_2(\mathbf{A}) \geq \frac{\max_i r_{ii}^2}{\min_i r_{ii}^2} = \frac{\max\{4, 1, 9\}}{\min\{4, 1, 9\}} = \frac{9}{1} = 9.$$

8. (a) Ebatzi behar dugun sistema hau da:

$$\begin{aligned} -x_1 + 3x_2 &= 1 \\ 6x_1 - 2x_2 &= 2. \end{aligned}$$

Sistema ebazteko, Jacobiren metodoko adierazpen hau dugu; ikus [20] testuliburuko (5.32):

$$x_i^{(k+1)} = \left(b_i - \sum_{j=1}^{i-1} a_{ij}x_j^{(k)} - \sum_{j=i+1}^n a_{ij}x_j^{(k)} \right) / a_{ii}, \quad i = 1, \dots, n,$$

eta adierazpen hori hiru iteraziotan erabiliz, hau dugu:

$$\mathbf{x}_J^{(1)} = [-1, -1]^T,$$

$$\mathbf{x}_J^{(2)} = [-4, -4]^T, \text{ eta}$$

$$\mathbf{x}_J^{(3)} = [-13, -13]^T.$$

Gauss-Seidelen metodoan adierazpen hau dugu; ikus [20] testuliburuko (5.34):

$$x_i^{(k+1)} = \left(b_i - \sum_{j=1}^{i-1} a_{ij}x_j^{(k+1)} - \sum_{j=i+1}^n a_{ij}x_j^{(k)} \right) / a_{ii}, \quad i = 1, \dots, n.$$

Eta adierazpen hori hiru iteraziotan erabiliz, hau dugu:

$$\mathbf{x}_{GS}^{(1)} = [-1, -4]^T,$$

$$\mathbf{x}_{GS}^{(2)} = [-13, -40]^T, \text{ eta}$$

$$\mathbf{x}_{GS}^{(3)} = [-121, -364]^T.$$

(i) Jacobiren metodorako zehaztasun erlatiboa $ze_J = 0.69231$ da.

Gauss-Seidelen metodorako zehaztasun erlatiboa $ze_{GS} = 0.89011$ da.

Bistan dago ez metodo baterako ez besterako iterazioak ez direla konbergitzen. Jarraian, konbergentzia aztertuko dugu ikuspuntu teoriko batetik.

$$(ii) \mathbf{T}_J = \mathbb{1} - \mathbf{D}^{-1}\mathbf{A} = -\mathbf{D}^{-1}(\mathbf{L} + \mathbf{U}) = - \begin{bmatrix} -1 & 0 \\ 0 & -2 \end{bmatrix}^{-1} \begin{bmatrix} 0 & 3 \\ 6 & 0 \end{bmatrix} = \begin{bmatrix} 0 & 3 \\ 3 & 0 \end{bmatrix}.$$

$\det(\mathbf{T}_J - \lambda\mathbb{1}) = \lambda^2 - 9 = 0 \Rightarrow \lambda = \pm 3 \Rightarrow |\lambda_{max}| = 3$ dugu. Ondorioz, $\rho(\mathbf{T}_J) = 3 > 1$ eta 5.10. teoremagatik, Jacobiren metodoa dibergentea izan behar da kasu horretan.

$$\mathbf{T}_{GS} = \mathbb{1} - (\mathbf{L} + \mathbf{D})^{-1}\mathbf{A} = -(\mathbf{L} + \mathbf{D})^{-1}\mathbf{U} = - \begin{bmatrix} -1 & 0 \\ 6 & -2 \end{bmatrix}^{-1} \begin{bmatrix} 0 & 3 \\ 0 & 0 \end{bmatrix} = \begin{bmatrix} 0 & 3 \\ 0 & 9 \end{bmatrix}.$$

$\det(\mathbf{T}_{GS} - \lambda\mathbb{1}) = \lambda^2 - 9\lambda = 0 \Rightarrow \lambda_1 = 0$ eta $\lambda_2 = 9 \Rightarrow |\lambda_{max}| = 9$ dugu. Ondorioz, $\rho(\mathbf{T}_{GS}) = 9 > 1$ eta 5.10. teoremagatik, Gauss-Seidelen metodoa dibergentea izan behar.

(iii) Bi ekuazioen ordena trukatur, hau lortzen da:

$$\begin{aligned} 6x_1 - 2x_2 &= 2 \\ -x_1 + 3x_2 &= 1. \end{aligned}$$

Orduan, $\mathbf{A} = \begin{bmatrix} 6 & -2 \\ -1 & 3 \end{bmatrix}$ eta matrize hori diagonal menperatzailea denez, nahitaez $\rho(\mathbf{T}_J) < 1$ betetzen da; hortaz, Jacobiren metodoa konbergituko da. Ikus dezagun, sistema baliokide horretan, Jacobiren metodoa lehen bezala aplikatur:

$$\mathbf{x}_J^{(1)} = [0.33333, 0.33333]^T,$$

$$\mathbf{x}_J^{(2)} = [0.44444, 0.44444]^T, \text{ eta}$$

$$\mathbf{x}_J^{(3)} = [0.48148, 0.48148]^T.$$

Gauza bera gertatzen da Gauss-Seidelen metodorako. Sistema baliokide horretan, Gauss-Seidelen metodoa lehen bezala aplikatur:

$$\mathbf{x}_{GS}^{(1)} = [0.33333, 0.44444]^T,$$

$$\mathbf{x}_{GS}^{(2)} = [0.48148, 0.49383]^T, \text{ eta}$$

$$\mathbf{x}_{GS}^{(3)} = [0.49794, 0.49931]^T.$$

$\mathbf{x}^* = [1/2, 1/2]^T$ soluziora jotzen dute.

- (iv) Ekuazioen trukaketa egin ondoren, berriro $\rho(\mathbf{T}_J)$ eta $\rho(\mathbf{T}_{GS})$ kalkulatu behar ditugu. \mathbf{A} matrizerako antzeko eragiketak eginez, hau lortzen dugu:

$$\rho(\mathbf{T}_J) = \rho(-\mathbf{D}^{-1}(\mathbf{L} + \mathbf{U})) = \rho\left(\begin{bmatrix} 0 & 1/3 \\ 1/3 & 0 \end{bmatrix}\right) = 1/3 < 1 \Rightarrow \text{konbergentea.}$$

$$\rho(\mathbf{T}_{GS}) = \rho(-(\mathbf{L} + \mathbf{D})^{-1}\mathbf{U}) = \rho\left(\begin{bmatrix} 0 & 1/3 \\ 0 & 1/9 \end{bmatrix}\right) = 1/9 < 1 \Rightarrow \text{konbergentea.}$$

$\rho(\mathbf{T}_{GS}) < \rho(\mathbf{T}_J)$ denez, konbergentzia azkarrena Gauss-Seidel metodoaz lortzen da.

- (v) $\text{Ratioa} = -\log_{10} \rho(\mathbf{T}_J) = 0.4771$, $\text{konbergentziaren ratioa} = 1/\text{ratioa} = 2.096$.

- (vi) [20] liburuko 5.11. teoremaren arabera, $\|\mathbf{e}_n\| \approx \rho(\mathbf{T}_J)^n \|\mathbf{e}_0\|$; beraz, hau bete behar da:

$$\frac{\|\mathbf{e}_n\|}{\|\mathbf{e}_0\|} \approx \rho(\mathbf{T}_J)^n \leq 10^{-4}$$

Logaritmo hamartarrak aplikatuz, zera erdiesten dugu:

$$n \geq \frac{4}{\text{ratioa}} = 8.384.$$

Beraz, n zenbaki osoa izan behar denez, $n = 9$ tik aurrera beteko da.

9. Aurkitu behar ditugu a -ren balioak \mathbf{A} hau simetriko definitu positiboa izan dadin:

$$\mathbf{A} = \begin{bmatrix} 1 & a & a \\ a & 1 & a \\ a & a & 1 \end{bmatrix}.$$

Horretarako, Sylvester-en irizpidea noiz betetzen den aztertuko dugu; hots, zein diren a -ren balioak minor nagusiak positiboak izateko. Azter dezagun,

$$1 > 0 \text{ eta } 1 - a^2 > 0 \text{ eta } \det(\mathbf{A}) > 0$$

$$1 - a^2 > 0 \iff |a| < 1 \iff -1 < a < 1.$$

$$\det(\mathbf{A}) = 2a^3 - 3a^2 + 1 = 2(a - 1)^2(a + 1/2) > 0 \iff a \neq 1 \text{ eta } a > -\frac{1}{2}$$

Baldintza horiek batera bete behar direnez, $-1/2 < a < 1$ balioetarako \mathbf{A} definitu positiboa da.

Jacobiren iterazioa ez konbergitzeko, [20] liburuko 5.11. teorema erabiliko dugunez, $\rho(\mathbf{T})$ kalkulatuko dugu:

$$\mathbf{T} = -\mathbf{D}^{-1}(\mathbf{L} + \mathbf{U}) = \begin{bmatrix} 0 & -a & -a \\ -a & 0 & -a \\ -a & -a & 0 \end{bmatrix}$$

Jarraian, \mathbf{T} -ren autobaloreak honela kalkulatuko ditugu:

$$\det(\mathbf{T} - \lambda \mathbf{1}) = \begin{vmatrix} -\lambda & -a & -a \\ -a & -\lambda & -a \\ -a & -a & -\lambda \end{vmatrix} = -\lambda^3 - 2a^3 + 3\lambda a^2 = -(\lambda - a)^2(\lambda + 2a) = 0 \Rightarrow$$

$$\lambda_1 = a, \quad \lambda_2 = -2a.$$

Ondorioz, $\rho(\mathbf{T}) = \max\{|a|, |-2a|\} = |2a|$. Orain, [20] liburuko 5.11. teoremaren arabera, Jacobiren metodoa dibergituko da baldin eta soilik baldin $\rho(\mathbf{T}) \geq 1$ bada; kasu honetan, hori gertatzen da $|a| \geq 1/2 \iff a \in (-\infty, -1/2] \cup [1/2, \infty)$ betetzen bada.

Azkenik, \mathbf{A} definitu positiboa eta Jacobiren metodoa dibergitzeko, zera bete behar da:

$$a \in (-1/2, 1) \quad \text{eta} \quad a \in (-\infty, -1/2] \cup [1/2, \infty),$$

horrek $a \in [1/2, 1)$ bete behar dela inplikatzeko du.

4.3. Azterketa-problemak

2011-12 ikasturteko urtarrilekoa

Izan bedi $\mathbf{Ax} = \mathbf{b}$ sistema lineala non

$$\mathbf{A} = \begin{bmatrix} 0 & 1 & 2 & 1 \\ 0 & 0 & 1 & 2 \\ 2 & 1 & 0 & 0 \\ 1 & 2 & 1 & 0 \end{bmatrix} \quad \text{eta} \quad \mathbf{b} = \begin{bmatrix} 12 \\ 11 \\ 4 \\ 8 \end{bmatrix}$$

1. Berrordenatu egokiro sistema horren lerroak Gauss-Seidel-en metodoa konbergente izateko.
2. Berrordenazio hori eginez gero eta Gauss-Seidel-en metodoa erabiliz 3 digitu esangarriekin, zein da bigarren iterazioa $\mathbf{x}^{(0)} = (0.9, 1.9, 2.9, 3.9)^T$ bada?

2012-13 ikasturteko ekainekoa

Izan bedi $\mathbf{Ax} = \mathbf{b}$ sistema gaindeterminatua, non

$$\mathbf{A} = \begin{bmatrix} 1 & 1 \\ -1 & 3 \\ 1 & 2 \end{bmatrix} \text{ eta } \mathbf{b} = \begin{bmatrix} -2 \\ 0 \\ 8 \end{bmatrix}$$

1. Ebatzi sistema hori ekuazio normalak erabiliz eta haiek osatutako sistema LU metodoaz ebatziz. Zein da beren hondarraren norma euklidearra?
2. Ebatzi sistema QR faktORIZAZIOAREN bitartez. Kalkula ezazu hondarraren norma euklidearra.

2013-14 ikasturteko urtarrilekoa

Izan bedi sistema lineal hau:

$$\begin{bmatrix} a & b \\ b & a \end{bmatrix} \begin{bmatrix} x \\ y \end{bmatrix} = \begin{bmatrix} 1 \\ 0 \end{bmatrix},$$

non $a, b > 0$ baitira.

- (a) Baldin $a \approx b$ bada, zein zenbakizko zailtasun dago sistema lineal hori ebazteko?
- (b) Aurkitu formula egonkor bat $z = x + y$ kalkulatzeko, a eta b ezagutuak badira.
- (c) Esan ea esaldi hau egiazkoa den ala faltsua eta azaldu zergatik:

“ $a \approx b$ denean, sistema lineala ebazteko problema txarto baldintzatuta dago, baina $x + y$ kalkulatzeko problema ondo baldintzatuta dago.”

2014-15 ikasturteko urtarrilekoa

- (a) $\mathbf{P} \in \mathbf{R}^{n \times n}$ permutazio matrize bat bada, froga ezazu $\kappa(\mathbf{P}) = 1$ dela 1, 2 eta ∞ matrize-normetarako.
- (b) Izan bitez $\mathbf{x}, \mathbf{y} \in \mathbf{R}^n$ bektore ez-nuluak eta $\mathbf{M} = \mathbf{xy}^T$ matrizea eraikitzen da. Froga ezazu $\|\mathbf{M}\|_2 = \|\mathbf{x}\|_2 \|\mathbf{y}\|_2$ betetzen dela.

2015-16 ikasturteko urtarrilekoa

Izan bedi sistema hau:

$$\begin{aligned} ax + by &= r \\ cx + dy &= t, \end{aligned}$$

a, b, c, d, r, t dira sistemaren parametroak. Zer baldintza bete behar dute Jacobiren eta Gauss-Seidelen metodo iteratiboek konbergitzeko? Zein da metodo azkarrena? Arrazoitu.

2016-17 ikasturteko urtarrilekoa

Izan bitez Izan bedi $\mathbf{A} = \begin{bmatrix} 1 & a & 0 \\ a & 2 & b \\ 0 & b & 1 \end{bmatrix}$, non $a, b \in \mathbb{R}$.

1. Zein baldintzetan \mathbf{A} ez da singularra?
2. Aztertu Jacobiren eta Gauss-Seidelen metodoen konbergentziaren baldintzak \mathbf{A} -rako.
3. Zein da metodo azkarrena? Justifikaiozu aurreko emaitzak erabiliz.

2016-17 ikasturteko ekainekoa

Izan bedi sistema lineal hau:

$$\begin{pmatrix} 2 & 1 & 3 & -1 \\ -6 & 0 & 1 & -1 \\ 4 & 2 & 0 & 1 \\ 2 & 2 & 2 & 0 \end{pmatrix} \begin{pmatrix} x_1 \\ x_2 \\ x_3 \\ x_4 \end{pmatrix} = \begin{pmatrix} 5 \\ -5 \\ 7 \\ 6 \end{pmatrix}.$$

- (a) Aurkitu sistema-matrizearen LU deskonposizioa \mathbf{M}_i ezabapen-matrizeak, eta \mathbf{P} , \mathbf{L} eta \mathbf{U} kalkulatu.
- (b) Ebatzi sistema LU deskonposizioa erabiliz.

2018-19 ikasturteko urtarrilekoa

Izan bedi $\mathbf{A} \in \mathbb{R}^{n \times n}$ matrizea. Defini ezazu \mathbf{A} matrizearen $\rho(\mathbf{A})$ espektro-erradioa.

1. Froga ezazu $\rho(\mathbf{A}) \leq \|\mathbf{A}\|$, non $\|\cdot\|$ bektore-norma batek eragindako matrize-norma baita.

2. Kalkula ezazu $n \times n$ matrize honen espektro-erradioa:

$$\mathbf{A} = \begin{bmatrix} 0 & 1 & \dots & 1 \\ 1 & 0 & \dots & 0 \\ \vdots & \vdots & \ddots & \vdots \\ 1 & 0 & \dots & 0 \end{bmatrix}$$

3. Zein da aurreko matrizearen balio singular handiena? Zergatik?

2018-19 ikasturteko ekainekoa

Izan bedi sistema lineal hau:

$$\begin{aligned} x + \alpha y &= 1 \\ \beta x + y + z &= 1 \\ y + z &= 1 \end{aligned}$$

1. Zein baldintza bete behar dute α -ren eta β -ren balioek sistema horren soluzioa bakarria izateko?
2. Zehaztu α -ren eta β -ren balioak Jacobiren metodoaren konbergentziarako baldintzak bete daitezzen.
3. Zehaztu α -ren eta β -ren balioak Gauss-Seidelen metodoaren konbergentziarako baldintzak bete daitezzen.
4. Aztertu aurreko metodoen konbergentzia eta Choleskyren metodoaren aplikagarritasuna sistemako koefizienteen matrizea simetrikoa den kasurako. Zein α -ren baliotarako Choleskyren metodoa aplikagarria da?

2019-20 ikasturteko urtarrilekoa

1. Izan bedi $\mathbf{A} \in \mathbb{R}^{m \times n}$ matrize bat, $m \geq n$. Frogatu hau balio singularren deskonposizioa erabili gabe:
 - (i) \mathbf{A} hein betekoa bada, $\mathbf{A}^T \mathbf{A}$ definitu positiboa da.
 - (ii) \mathbf{A} -ren heina urria bada, $\mathbf{A}^T \mathbf{A}$ erdidefinitu positiboa da.
2. Izan bedi \mathbf{A} matrize simetriko eta definitu positibo bat. Frogatu hau:

- (i) \mathbf{A} -ren diagonaleko gai guztiak positiboak dira.
- (ii) \mathbf{A} matrizearen tamaina handieneko gaia diagonalean dago.

2020-21 ikasturteko urtarrilekoa

Demagun sistema hau:

$$\begin{aligned}2x - 3y &= 3 \\ x + 3y &= 6,\end{aligned}$$

1. Idatzi sistema horri dagozkion Jacobiren eta Gauss-Seidelen metodoen adierazpenak.
2. Iterazioak egin barik, esan dezakezu konbergitzen diren?
3. Zein metodo konbergituko da azkarrago?
4. Kasu okerreanean, zenbat iterazio erabiliko ditu metodo bakoitzak hasierako errorea 10^4 baino bider txikiago egiteko?

5. kapitulua

QR faktORIZAZIOA eta minimo karratu linealak

Kapitulu honetan, minimo karratu linealen problema ebatziko dugu; alegia:

$$\min_{\mathbf{x}} \|\mathbf{Ax} - \mathbf{b}\|_2,$$

non $\mathbf{A} \in \mathbb{R}^{m \times n}$, $\mathbf{x} \in \mathbb{R}^n$, $\mathbf{b} \in \mathbb{R}^m$ eta $m \geq n$.

Minimo karratuen problema askotan agertzen da mundu errealeko aplikazioetan, bereziki datu-doitzea behar denean. Problema horri aurre egiteko, oso garrantzitsuak dira transformazio ortogonalak, eta horrelako tresnak azaltzen hasiko gara.

Householder-en islapenak matrize-transformazioak dira, eta zenbakizko algoritmo mol-dagarri eta eraginkorrenetariko batzuen oinarria dira. Oso teknika ezaguna da horrelako \mathbf{H}_i matrize ortogonalen segida bat eraikitzea, \mathbf{A} matrize baten diagonalaren pean dauden gaiak zero bihurtzeko. Beraz, $\mathbf{A} \in \mathbb{R}^{n \times n}$ karratua bada, $n - 1$ Householderren transformazioen bidez, \mathbf{R} matrize triangeluar bat ere lor dezakegu; hots:

$$\mathbf{H}_{n-1} \dots \mathbf{H}_2 \mathbf{H}_1 \mathbf{A} = \mathbf{R}$$

eta $\mathbf{Q}^t = \mathbf{H}_{n-1} \dots \mathbf{H}_2 \mathbf{H}_1$ bada, $\mathbf{A} = \mathbf{QR}$ faktORIZAZIOA izango dugu.

Hori guztia erabil dezakegu sistema lineal karratu determinatu bat ebazteko, honela:

$$\mathbf{Ax} = \mathbf{QRx} = \mathbf{b} \quad \Rightarrow \quad \mathbf{Rx} = \mathbf{Q}^t \mathbf{b}.$$

Jarraian, minimo karratu linealen problema ebatziko dugu; hor agertzen den $\mathbf{A} \in \mathbb{R}^{m \times n}$ matrizea, normalean, $m > n$ izango dugu. Problema horretan, \mathbf{x}^* bektorea aurkitu behar dugu $\|\mathbf{Ax}^* - \mathbf{b}\|_2 = \min_{\mathbf{x} \in \mathbb{R}^n} \|\mathbf{Ax} - \mathbf{b}\|_2$ betetzen duela. Soluzio hori kalkulatzeko, bi tresna desberdin hauek erabil ditzakegu: ekuazio normalak eta QR faktORIZAZIOA.

$$\begin{array}{ccccccc}
 & m \times n & & m \times m & & m \times n & n \times n \\
 & \boxed{\mathbf{A}} & = & \boxed{\mathbf{U}} & & \boxed{\mathbf{\Sigma}} & \boxed{\mathbf{V}^t}
 \end{array}$$

5.1. irudia. Balio singularretako deskonposizioa, $m > n$ denean.

\mathbf{u} eta \mathbf{v} bektoreei *ezker* eta *eskuin bektore singularrak* deritzegu, hurrenez hurren.

Matlaben erabiltzen dugun agindua `svd` da (Singular Value Decomposition). Hots, `[U,Sigma,V]=svd(A)` aginduak balio singularretako definizioko hiru matrizeak ematen ditu. Eta `s=svd(A)` idazten badugu, $\min\{m, n\}$ tamainako \mathbf{s} bektore batean balio singularrak lortuko ditugu, handienetik txikienera ordenatuta.

Balio singularretako deskonposizioa erabiliz, minimo karratuen problema era egonkorrean ebatz dezakegu; ikus [20] liburuko 6.8.3. azpiatala.

Edozein \mathbf{A} matritzearako balio singularretako deskonposizioari buruzko teorema honek propietate batzuk ematen ditu, eta geroago proposatzen diren problema batzuen bidez frogatzen dira.

5.1. teorema. *Izan bedi $\mathbf{A} \in \mathbb{R}^{m \times n}$ eta $\mathbf{A} = \mathbf{U}\mathbf{\Sigma}\mathbf{V}^t$ bere balio singularretako deskonposizioa. Izan bitez $\sigma_1 \geq \sigma_2 \geq \dots \geq \sigma_r > 0$ balio singular ez-nuluak eta $\sigma_{r+1} = \dots = \sigma_p = 0$, non $p = \min\{m, n\}$. Orduan baieztapen hauek betetzen dira:*

1. \mathbf{A} -ren heina r da.
2. $\{\mathbf{u}_1, \mathbf{u}_2, \dots, \mathbf{u}_r\}$ bektoreek $K(\mathbf{A})$ -ren oinarri ortonormal bat osatzen dute.
3. $\{\mathbf{u}_{r+1}, \mathbf{u}_2, \dots, \mathbf{u}_m\}$ bektoreek $K(\mathbf{A})$ azpiespazioaren \mathbb{R}^m -ko $K(\mathbf{A})^\perp$ azpiespazio osagarri ortogonaleko oinarri ortonormal bat osatzen dute.
4. $\{\mathbf{v}_1, \mathbf{v}_2, \dots, \mathbf{v}_r\}$ bektoreek $K(\mathbf{A}^t)$ -ren oinarri ortonormal bat osatzen dute.
5. $\{\mathbf{v}_{r+1}, \mathbf{v}_2, \dots, \mathbf{v}_n\}$ bektoreek $K(\mathbf{A}^t)$ azpiespazioaren \mathbb{R}^n -ko $K(\mathbf{A}^t)^\perp$ azpiespazio osagarri ortogonaleko oinarri ortonormal bat osatzen dute.

5.1. Problemak

Eskuz ebazteko problemak:

1. i) Izan bitez sistema hauek:

$$\begin{array}{ll}
 a) & \begin{array}{l} x_1 + 3x_2 + 2x_3 = 5 \\ x_1 + 5x_2 + 3x_3 = 10 \\ 2x_1 + 4x_2 - 6x_3 = -4. \end{array} & b) & \begin{array}{l} 2x_1 + x_2 + x_3 = 3 \\ 4x_1 + 3x_2 + 3x_3 + x_4 = 7 \\ 8x_1 + 7x_2 + 9x_3 + 5x_4 = 17 \\ 6x_1 + 7x_2 + 9x_3 + 8x_4 = 15. \end{array} \\
 c) & \begin{array}{l} -5x_1 + 2x_2 - x_3 = 2 \\ x_1 + 3x_3 = 2 \\ 3x_1 + x_2 + 6x_3 = 2. \end{array} & d) & \begin{array}{l} 2x_1 - x_2 + x_3 = -1 \\ 3x_1 + 3x_2 + 9x_3 = 0 \\ 3x_1 + 3x_2 + 5x_3 = 4. \end{array} \\
 e) & \begin{array}{l} x_1 + x_2 + 4x_4 = 5 \\ 2x_1 - 1x_2 + 5x_3 = -6 \\ 5x_1 + 2x_2 + x_3 + 2x_4 = 3 \\ -3x_1 + 2x_3 + 6x_4 = 4. \end{array} & f) & \begin{array}{l} 4x_1 + 8x_2 + 4x_3 = 8 \\ x_1 + 5x_2 + 4x_3 - 3x_4 = -4 \\ x_1 + 4x_2 + 7x_3 + 2x_4 = 10 \\ x_1 + 3x_2 - 2x_4 = -4. \end{array}
 \end{array}$$

Aurkitu sistemei elkartutako matrizeen QR faktORIZAZIOA, erabilitako Householderren bektoreak emanaz eta Householderren matrizeak kalkulatu barik. Erakutsi, urratsez urrats, egindako eragiketa nagusiak.

- ii) Ebatzi sistemak, aurreko atalean aurkitutako QR faktORIZAZIOAK erabiliz.
2. (a) Izan bedi $\mathbf{x} = [1, 12, 2, 5, 7]^T$ bektorea. Kalkula ezazu biraketa bat $(4, 2)$ planoan x_2 zero bihurtzeko. Zenbat radianetako biraketa eman behar du \mathbf{x} bektoreak, plano horretan emaitza hori lortzeko?
- (b) Bektorea errenkada bat bada, esate baterako $\mathbf{x} = [1, 12, 2, 5, 7]$, nola egingo zenuke $(4, 2)$ planoan x_2 zero bihurtzeko?
3. Aplikatu Givens-en biraketak matrize honi, $(1, 2)$ planoan lehenengo zutabeko bigarren lerroko gaia zero bihurtzeko:

$$\begin{bmatrix} 2 & 1 & 0 & 0 \\ 4 & 3 & 2 & 0 \\ 0 & 1 & 2 & 3 \\ 0 & 0 & 1 & 2 \end{bmatrix}.$$

- (a) Horretarako, c eta s balioak honela kalkulatu ditugu (ikus [\[20\]](#) liburuko 6.3. atala):

$$c = \cos(\theta) = \frac{x_i}{\sqrt{x_i^2 + x_k^2}} \quad \text{eta} \quad s = \sin(\theta) = \frac{-x_k}{\sqrt{x_i^2 + x_k^2}},$$

non (i, k) bikoteak esaten baitigu zein planotan egiten den θ angeluko biraketa, bektore baten i . lerroko gaiaz k . lerroko gaia zero bihurtzeko.

- (b) Gero, kalkula ezazu dagokion $\mathbf{G}(i, k, \theta)$ matrizea.
- (c) Kalkula ezazu $\mathbf{G}(i, k, \theta)^T \mathbf{A}$.
- (d) Diseinatu algoritmo bat $\mathbf{M} \in \mathbb{R}^{m \times m}$ matrize orokor batekin $\mathbf{G}(i, k, \theta)^T \mathbf{M}$ kalkulua egiteko. c -ren eta s -ren kalkulua algoritmoaren barnean egin daiteke.
- (e) Bigarren zutabeko 2. lerroko gaiaz 3. lerroko gaia zero egiteko, zein izango litzateke $\mathbf{G}(i, k, \theta)$ Givensen matrizea?

4. Izan bitez $\mathbf{Ax} = \mathbf{b}$ sistema gaindeterminatu hauek:

$$a) \quad \mathbf{A} = \begin{bmatrix} 1 & 1 \\ 2 & -3 \\ 0 & 0 \end{bmatrix} \text{ eta } \mathbf{b} = \begin{bmatrix} 3 \\ 1 \\ 2 \end{bmatrix}. \quad b) \quad \mathbf{A} = \begin{bmatrix} -1 & 1 \\ 2 & 1 \\ 1 & -2 \end{bmatrix} \text{ eta } \mathbf{b} = \begin{bmatrix} 10 \\ 5 \\ 20 \end{bmatrix}.$$

$$c) \quad \mathbf{A} = \begin{bmatrix} 1 & 1 & 1 \\ -1 & 1 & 1 \\ -1 & 0 & 1 \\ 1 & 0 & 1 \end{bmatrix} \text{ eta } \mathbf{b} = \begin{bmatrix} 4 \\ 0 \\ 1 \\ 2 \end{bmatrix}. \quad d) \quad \mathbf{A} = \begin{bmatrix} 1 & 2 \\ 2 & 4 \\ -1 & -2 \end{bmatrix} \text{ eta } \mathbf{b} = \begin{bmatrix} 3 \\ 2 \\ 1 \end{bmatrix}.$$

$$e) \quad \mathbf{A} = \begin{bmatrix} 1 & 1 \\ -1 & 3 \\ 1 & 2 \end{bmatrix} \text{ eta } \mathbf{b} = \begin{bmatrix} -2 \\ 0 \\ 8 \end{bmatrix}. \quad f) \quad \mathbf{A} = \begin{bmatrix} 1 & -1 & 0 \\ 3 & -1 & 2 \\ -1 & 5 & 4 \\ 0 & 2 & 2 \end{bmatrix} \text{ eta } \mathbf{b} = \begin{bmatrix} 1 \\ 5 \\ 3 \\ 4 \end{bmatrix}.$$

Ebatzi sistema horiek ekuazio normalak erabiliz. Zein da beren hondarraren norma euklidearra?

5. Ebatzi aurreko problemaren sistemak, QR faktORIZAZIOAREN bitartez. Kalkula ezazu hondarraren norma euklidearra.
6. Izan bedi $\mathbf{Ax} = \mathbf{b}$ sistema gaindeterminatua, non

$$\mathbf{A} = \begin{bmatrix} 1 & 1 \\ 1 & 1 \\ 0 & 0.001 \end{bmatrix} \text{ eta } \mathbf{b} = \begin{bmatrix} 2 \\ 2 \\ 1 \end{bmatrix}.$$

- (a) Zein da ekuazio normalei dagokien matrizearen bi-normarako baldintzazko zenbakia?
- (b) Zein da \mathbf{A} -ren bi-normarako baldintzazko zenbaki orokortua? Zein dira QR faktORIZAZIOARAKO \mathbf{R} matrizea eta \mathbf{R} -ren bi-normarako baldintzazko zenbaki orokortua?
- (c) Konparatu aurreko bi ataletan lortutako baldintzazko zenbakiak. Zer esan dezakegu?
- (d) Ebatzi sistema hori bi metodoekin, lau zifra esanguratsuz, eta konpara itzazu emaitzak.

7. Aurkitu $f(x) = ax + b$ funtzio lineal hoberena, minimo karratuen zentzuan, datu multzo hauetarako:

$$a) \quad \frac{x}{y} \left| \begin{array}{cccc} -1 & 0 & 1 & 2 \\ 3 & 2 & 0 & 4 \end{array} \right. \quad b) \quad \frac{x}{y} \left| \begin{array}{cccc} -3 & -1 & 1 & 3 \\ 15 & 5 & 1 & 5 \end{array} \right.$$

Zein da hondarra? Marraztu $a)$ kasurako funtzio lineala eta datuak, koordenatu-sistema kartesiar batean.

8. Aurkitu $f(x) = ax^2 + bx + c$ parabola hoberena, minimo karratuen zentzuan, datu multzo hauetarako:

$$a) \quad \frac{x}{y} \left| \begin{array}{cccc} -1 & 0 & 1 & 2 \\ 3 & 2 & 0 & 4 \end{array} \right. \quad b) \quad \frac{x}{y} \left| \begin{array}{cccc} -3 & -1 & 1 & 3 \\ 15 & 5 & 1 & 5 \end{array} \right.$$

Zein da hondarra? Marraztu $a)$ kasurako funtzio koadratikoa eta datuak, koordenatu-sistema kartesiar batean.

9. Izan bedi matrize hau:

$$\mathbf{A} = \begin{bmatrix} 1 & 2 & 3 \\ 1 & 1 & 2.5 \\ 1 & 0 & 2 \end{bmatrix}.$$

- Aurkitu $K(\mathbf{A})$ azpiespazioaren oinarri ortonormal bat, QR -faktORIZAZIOA erabiliz.
- Aurkitu $K(\mathbf{A})$ -ren azpiespazio nulua oinarri ortonormal bat, QR -faktORIZAZIOA erabiliz.
- Aurkitu $\mathbf{Ax} = \mathbf{b}$ sistemaren \mathbf{x}_B oinarri-soluzioa, baldin $\mathbf{b} = [1 \ 3 \ 5]^T$ bada.
- Aurkitu $\mathbf{Ax} = \mathbf{b}$ sistemaren \mathbf{x}_{LM} soluzioa; hots, norma euklidear minimoa duen minimo karratuen problemaren soluzioa.

10. Izan bedi matrize hau:

$$\mathbf{A} = \begin{bmatrix} 1 & 2 & 3 \\ 1 & 5 & 6 \\ 1 & 8 & 9 \\ 1 & 11 & 12 \end{bmatrix}.$$

- Hein urrikoa da? Arrazoitu erantzuna.
- Kalkula ezazu bere QR -faktORIZAZIOA, zutabeen permutazioak eginez, beharrezkoa bada.
- Aurkitu $K(\mathbf{A})$ azpiespazioaren oinarri ortonormal bat, QR -faktORIZAZIOA erabiliz.
- Aurkitu $K(\mathbf{A})$ -ren azpiespazio nulua oinarri ortonormal bat, QR -faktORIZAZIOA erabiliz.
- Aurkitu $\mathbf{Ax} = \mathbf{b}$ sistemaren \mathbf{x}_B oinarri-soluzioa, baldin $\mathbf{b} = [2 \ 1 \ 4 \ 3]^T$ bada.
- Aurkitu $\mathbf{Ax} = \mathbf{b}$ sistemaren \mathbf{x}_{LM} soluzioa; hots, norma euklidear minimoa duen minimo karratuen problemaren soluzioa.

11. Izan bedi $\mathbf{A} \in \mathbb{R}^{m \times n}$ matrizea eta $\mathbf{A} = \mathbf{U}\mathbf{\Sigma}\mathbf{V}^T$ bere balio singularretako deskonposizioa, non \mathbf{A} -ren heina r baita eta $m \geq n \geq r$ ($n \geq m \geq r$ ere izan liteke). Izan bedi $\mathbf{A}^+ = \mathbf{V}\mathbf{\Sigma}^+\mathbf{U}^T \in \mathbb{R}^{n \times m}$ non

$$\mathbf{\Sigma}^+ = \text{diag} \left\{ \frac{1}{\sigma_1}, \dots, \frac{1}{\sigma_r}, 0, \dots, 0 \right\}.$$

\mathbf{A}^+ matrizeari \mathbf{A} -ren *Moore-Penrose sasi-alderantzizko matrize* deitzen zaio.

Froga ezazu $\mathbf{X} = \mathbf{A}^+$ -ek Moore-Penroseren lau baldintza hauek betetzen dituela:

- (i) $\mathbf{A}\mathbf{X}\mathbf{A} = \mathbf{A}$
- (ii) $\mathbf{X}\mathbf{A}\mathbf{X} = \mathbf{X}$
- (iii) $(\mathbf{A}\mathbf{X})^T = \mathbf{A}\mathbf{X}$
- (iv) $(\mathbf{X}\mathbf{A})^T = \mathbf{X}\mathbf{A}$

Ikus [20] liburuko 6.8.1. atala.

12. Izan bedi $\mathbf{A} \in \mathbb{R}^{m \times n}$ matrizea eta $\mathbf{P} \in \mathbb{R}^{m \times m}$ eta $\mathbf{Q} \in \mathbb{R}^{n \times n}$ matrize ortogonalak. Froga ezazu $\|\mathbf{P}\mathbf{A}\mathbf{Q}\|_2 = \|\mathbf{A}\|_2$ betetzen dela.

13. Izan bedi $\mathbf{A} \in \mathbb{R}^{m \times n}$ r heineko matrize bat eta $\mathbf{A} = \mathbf{U}\mathbf{\Sigma}\mathbf{V}^T$ balio singularretako deskonposizioa, non $\sigma_1 \geq \sigma_2 \geq \dots \geq \sigma_r > 0$ balio singular ez-nuluak eta $\sigma_{r+1} = \dots = \sigma_n = 0$ baitira.

- (a) Froga ezazu $\|\mathbf{A}\|_2 = \|\mathbf{\Sigma}\|_2 = \sigma_1$.
- (b) Froga ezazu $r = n$ bada, $\kappa_2(\mathbf{A}) = \sigma_1/\sigma_n$.
- (c) Baldin balio singular ez-nuluak $\sigma_1 \geq \sigma_2 \geq \dots \geq \sigma_r > 0$ badira, froga ezazu $\mathbf{A} = \sigma_1 \mathbf{u}_1 \mathbf{v}_1^T + \sigma_2 \mathbf{u}_2 \mathbf{v}_2^T + \dots + \sigma_r \mathbf{u}_r \mathbf{v}_r^T$.
 $\mathbf{A} = \widehat{\mathbf{U}} \widehat{\mathbf{\Sigma}} \widehat{\mathbf{V}}^T$ adierazpenari *balio singularretako deskonposizio laburtu* deritzogu, non

$$\begin{aligned} \widehat{\mathbf{\Sigma}} &= \text{diag}\{\sigma_1, \sigma_2, \dots, \sigma_r\} \\ \widehat{\mathbf{U}} &= [\mathbf{u}_1, \mathbf{u}_2, \dots, \mathbf{u}_r] \\ \widehat{\mathbf{V}} &= [\mathbf{v}_1, \mathbf{v}_2, \dots, \mathbf{v}_r] \end{aligned}$$

14. (a) Froga ezazu balio singularretako deskonposiziotik $\mathbf{A}\mathbf{V} = \mathbf{U}\mathbf{\Sigma}$ atera dezakegula.
- (b) Aurreko berdintza erabiliz, froga ezazu $\mathbf{A}^T \mathbf{A}$ eta $\mathbf{A}\mathbf{A}^T$ autobalio berdinak dituztela eta balio singularren karratuak direla.
- (c) Froga ezazu \mathbf{A} -ren heina $\mathbf{A}^T \mathbf{A}$ -ren heinaren berdina dela, eta hori dela balio singular ez-nuluen kopuruaren berdina.

15. (a) Froga ezazu espazio bektorial baten oinarri ortonormal baten bektoreak matrize ortogonal batez biderkatzean lortutako bektore berriek espazio horretako beste oinarri ortonormal bat ematen dutela.
- (b) Espazio bektorial baten $\{\mathbf{e}_1, \mathbf{e}_2, \dots, \mathbf{e}_n\}$ oinarri kanonikoa \mathbf{Q} matrize ortogonal batez biderkatzen badugu, zein da lortzen den oinarri ortonormal berria?
16. Izan bedi $\mathbf{A} \in \mathbb{R}^{m \times n}$ r heineko matrize bat eta $\mathbf{A} = \mathbf{U}\mathbf{\Sigma}\mathbf{V}^T$ balio singularretako deskonposizioa. Izan bitez $\mathbf{U} = [\mathbf{u}_1, \dots, \mathbf{u}_m]$ ezker bektore singularrak, $\mathbf{V} = [\mathbf{v}_1, \dots, \mathbf{v}_n]$ eskuin bektore singularrak eta $\sigma_1 \geq \sigma_2 \geq \dots \geq \sigma_r > 0$ balio singular ez-nuluak eta $\sigma_{r+1} = \dots = \sigma_p = 0$, non $p = \min\{m, n\}$.
- (a) Froga ezazu $\mathbf{A}\mathbf{v}_1, \dots, \mathbf{A}\mathbf{v}_r$ \mathbb{R}^m -ko bektoreak ortogonalak direla.
- (b) Kalkula ezazu $\mathbf{A}^T\mathbf{A}$, eta hortik ondorioztatu nola kalkula ditzakezun σ_i balio singularrak eta $\sigma_i > 0$ betetzen duten balioei dagozkien \mathbf{v}_i eskuin bektore singularrak.
- (c) $\mathbf{A}\mathbf{V} = \mathbf{U}\mathbf{\Sigma}$ erabiliz, azaldu nola kalkula dezakezun $\sigma_i > 0$ bakoitzari dagokion \mathbf{u}_i ezker bektore singularra.
- (d) Froga ezazu $\mathbf{u}_1, \dots, \mathbf{u}_r$ \mathbb{R}^m -ko bektoreek $K(\mathbf{A})$ azpiespazioaren oinarri ortonormal bat osatzen dutela (kontuan hartu $\mathbf{A}\mathbf{V} = \mathbf{U}\mathbf{\Sigma}$).
- (e) Froga ezazu $\mathbf{v}_1, \dots, \mathbf{v}_r$ \mathbb{R}^n -ko bektoreek $K(\mathbf{A}^T)$ azpiespazioaren oinarri ortonormal bat osatzen dutela (kontuan hartu \mathbf{A}^T -ren balio singularretako deskonposiziotik $\mathbf{A}^T\mathbf{U} = \mathbf{V}\mathbf{\Sigma}^T$ lortzen dela).
- (f) Froga ezazu \mathbf{V} matrizeko $\mathbf{v}_{r+1}, \dots, \mathbf{v}_n$ \mathbb{R}^n -ko zutabe-bektoreek $K(\mathbf{A}^T)^\perp$ azpiespazioaren oinarri ortonormal bat osatzen dutela (kontuan hartu $\mathbf{A}\mathbf{V} = \mathbf{U}\mathbf{\Sigma}$).
- (g) Froga ezazu \mathbf{U} matrizeko $\mathbf{u}_{r+1}, \dots, \mathbf{u}_m$ \mathbb{R}^m -ko zutabe-bektoreek $K(\mathbf{A})^\perp$ azpiespazioaren oinarri ortonormal bat osatzen dutela (kontuan hartu $\mathbf{A}^T\mathbf{U} = \mathbf{V}\mathbf{\Sigma}^T$).
- (h) $\mathbf{A}\mathbf{A}^T$ erabiliz, nola kalkula ditzakezu σ_i balio singularrak eta $\sigma_i > 0$ betetzen duten balioei dagozkien \mathbf{u}_i ezker bektore singularrak? Gero, nola kalkulatu zenuke $\sigma_i > 0$ bakoitzari dagokion \mathbf{v}_i ezker bektore singularra?
17. (a) Izan bedi matrize hau:

$$\mathbf{A} = \begin{bmatrix} 1 & 1 \\ 1 & 0 \\ 0 & 1 \end{bmatrix}.$$

16. problemaren emaitzak erabiliz, aurkitu $\mathbf{A} = \mathbf{U}\mathbf{\Sigma}\mathbf{V}^T$ balio singularretako deskonposizioa, eta egiaztatu berdintza hori betetzen dela.

- (b) $\mathbf{b} = [3, 2, 1]^T$ bada, \mathbf{A} -ren deskonposizio hori aprobetxatuz, ebatzi $\min_{\mathbf{x}} \|\mathbf{A}\mathbf{x} - \mathbf{b}\|_2$ minimo karratuen problema \mathbf{x} soluzioa norma minimokoa izanik.

18. Izan bedi matrize hau:

$$\mathbf{A} = \begin{bmatrix} 3 & 2 & 2 \\ 2 & 3 & -2 \end{bmatrix}.$$

16. problemaren emaitzak erabiliz, aurkitu $\mathbf{A} = \mathbf{U}\mathbf{\Sigma}\mathbf{V}^T$ balio singularretako deskonposizioa, eta egiaztatu berdintza hori betetzen dela.

MATLABez programatzeko problemak:

19. Sortu M fitxategi bat $\mathbf{Ax} = \mathbf{b}$ sistema lineal bat (\mathbf{A} karratua eta ez-singularra denean) ebazteko gai izan dadin QR faktORIZAZIOAREN laguntzaz, baina \mathbf{Q} matrize ortogonal eta Householderren matrizeak kalkulatu barik. Aldiz, gorde itzazu lortutako Householderren bektoreak \mathbf{U} matrize batean.

Programa horrek sistema hori ebazteko ondoz ondoko lan hauek egin behar ditu:

(a) Programa horrek goiburu hau izan behar du:

```
function [U,R,x]=qrkes(A,b).
```

(b) Egiaztatu \mathbf{A} karratua eta ez-singularra dela.

(c) $\mathbf{R} = \mathbf{Q}^T \mathbf{A}$ eta $\mathbf{c} = \mathbf{Q}^T \mathbf{b}$ kalkulatu behar ditu.

(d) $\mathbf{Rx} = \mathbf{c}$ sistema ebatzi behar du. Lan hori egiteko, **atzerantz** funtzioa erabili.

20. Izan bedi sistema hau:

$$\begin{bmatrix} 1 & 3 & 5 & 7 \\ 2 & -1 & 3 & 5 \\ 0 & 0 & 2 & 5 \\ -2 & -6 & -3 & 1 \end{bmatrix} \begin{bmatrix} x_1 \\ x_2 \\ x_3 \\ x_4 \end{bmatrix} = \begin{bmatrix} 1 \\ 2 \\ 3 \\ 4 \end{bmatrix}.$$

Egiaztatu `qrkes.m` funtzioa ondo dabilela aurreko sistema ebatziz. Egiaztatu emaitza.

21. Sortu M fitxategi bat $\min_x \|\mathbf{Ax} - \mathbf{b}\|_2$ minimo karratuen problema ebazteko, non $\mathbf{A} \in \mathbb{R}^{m \times n}$ eta $m > n$. \mathbf{A} hein betekoa dela suposatuko dugu. Bi metodo erabiliko ditugu.

- *Ekuzio normalen metodoa.* Kasu honetan, $\mathbf{A}^T \mathbf{A}$ matrizea deskonposatu Choleskyren faktORIZAZIOA erabiliz. Gero, **aurrerantz** eta **atzerantz** funtzioen bidez ebatzi sistema. Sortu funtzio berri hau:

```
function [h,x]=eknorm(A,b)
```

- *QR metodoa.* Kasu honetan, aprobeza dezakezu lehenengo ariketan egindako `qrkes` funtzioa. Baina orain \mathbf{A} matrizea ez da karratua izan behar. Sortu funtzio berri hau:

```
function [h,x]=qrmknb(A,b)
```

Bi metodoetan, h hondar bektorearen bi-norma da.

22. Aurreko ariketan lortutako bi metodoak erabiliz, ebatzi $\min_x \|\mathbf{Ax} - \mathbf{b}\|_2$ minimo karratuen problema balio hauetarako:

$$\mathbf{A} = \begin{bmatrix} 1 & 1 \\ 1 & 0 \\ 0 & 1 \end{bmatrix} \quad \text{eta} \quad \mathbf{b} = \begin{bmatrix} 1 \\ 0 \\ -5 \end{bmatrix}.$$

Problema hau apunteetako 6.3. eta 6.4. adibideetan agertzen da.

5.2. Problema batzuen ebazpena

1. (i) eta (ii) atalak ebatziko ditugu (a) eta (b) sistemetan.

(a) Sistemaren ebazpena QR deskonposizioa erabiliz.

(i) Jarraian QR deskonposizioa kalkulatu dugu.

1. urratsa: $\mathbf{a}_1 = [1, 1, 2]^T$, $\sigma_1 = \text{zeinu}(1)\|\mathbf{a}_1\|_2 = 2.4495$

$$\text{Householderren bektorea: } \mathbf{u}_1 = \begin{bmatrix} 1 + 2.4495 \\ 1 \\ 2 \end{bmatrix} = \begin{bmatrix} 3.4495 \\ 1 \\ 2 \end{bmatrix}$$

$$\rho_1 = 1/(\sigma_1 \mathbf{u}_1(1)) = 0.11835.$$

$$\text{Householderren matrizea: } \mathbf{H}_1 = \mathbb{1} - \rho_1 \mathbf{u}_1 \mathbf{u}_1^T = \begin{bmatrix} -0.40825 & -0.40825 & -0.81650 \\ -0.40825 & 0.88165 & -0.23670 \\ -0.81650 & -0.23670 & 0.52660 \end{bmatrix}$$

$$\mathbf{A}^{(2)} = \mathbf{H}_1 \mathbf{A} = \begin{bmatrix} -2.44949 & -6.53197 & 2.85774 \\ 0 & 2.23670 & 3.24866 \\ 0 & -1.52660 & -5.50269 \end{bmatrix}$$

$$\mathbf{b}^{(2)} = \mathbf{H}_1 \mathbf{b} = \begin{bmatrix} -2.8577 \\ 7.7221 \\ -8.5559 \end{bmatrix}$$

2. urratsa: $\tilde{\mathbf{a}}_2 = [2.2367, -1.5266]^T$, $\sigma_2 = \text{zeinu}(2.2367)\|\tilde{\mathbf{a}}_2\|_2 = 2.7080$

$$\text{Householderren bektorea: } \mathbf{u}_2 = \begin{bmatrix} 0 \\ 2.2367 + 2.7080 \\ -1.5266 \end{bmatrix} = \begin{bmatrix} 0 \\ 4.9447 \\ -1.5266 \end{bmatrix}$$

$$\rho_2 = 1/(\sigma_2 \mathbf{u}_2(2)) = 0.074681$$

$$\text{Householderren matrizea: } \mathbf{H}_2 = \mathbb{1} - \rho_2 \mathbf{u}_2 \mathbf{u}_2^T = \begin{bmatrix} 1 & 0 & 0 \\ 0 & -0.82596 & 0.56373 \\ 0 & 0.56373 & 0.82596 \end{bmatrix}$$

$$\mathbf{R} = \mathbf{A}^{(3)} = \mathbf{H}_2 \mathbf{A}^{(2)} = \begin{bmatrix} -2.44949 & -6.53197 & 2.85774 \\ 0 & -2.70801 & -5.78530 \\ 0 & 0 & -2.71360 \end{bmatrix}$$

$$\mathbf{Q}^T \mathbf{b} = \mathbf{b}^{(3)} = \mathbf{H}_2 \mathbf{b}^{(2)} = \begin{bmatrix} -2.8577 \\ -11.2013 \\ -2.7136 \end{bmatrix}$$

(ii) Azkenik, $\mathbf{R}\mathbf{x} = \mathbf{Q}^T \mathbf{b}$ ebatziz, $\mathbf{x} = [-3 \ 2 \ 1]^T$ lortzen da.

(b) Sistemaren ebazpena QR deskonposizioa erabiliz.

(i) Jarraian QR deskonposizioa erdietsiko dugu.

1. urratsa: $\rho_1 = 0.0070468$

$$\text{Householderren bektorea: } \mathbf{u}_1 = \begin{bmatrix} 12.9545 \\ 4 \\ 8 \\ 6 \end{bmatrix}$$

$$\text{Householderren matrizea: } \mathbf{H}_1 = \begin{bmatrix} -0.18257 & -0.36515 & -0.73030 & -0.54772 \\ -0.36515 & 0.88725 & -0.22550 & -0.16912 \\ -0.73030 & -0.22550 & 0.54901 & -0.33825 \\ -0.54772 & -0.16912 & -0.33825 & 0.74632 \end{bmatrix}$$

$$\mathbf{A}^{(2)} = \mathbf{H}_1 \mathbf{A} = \begin{bmatrix} -10.95445 & -10.22415 & -12.78019 & -8.39841 \\ 0 & -0.46573 & -1.25497 & -1.59321 \\ 0 & 0.06854 & 0.49006 & -0.18643 \\ 0 & 1.80141 & 2.61755 & 4.11018 \end{bmatrix}$$

$$\mathbf{b}^{(2)} = \mathbf{H}_1 \mathbf{b} = \begin{bmatrix} -23.73464 \\ -1.25497 \\ 0.49006 \\ 2.61755 \end{bmatrix}$$

2. urratsa: $\rho_2 = 0.23074$

$$\text{Householderren bektorea: } \mathbf{u}_2 = \begin{bmatrix} 0 \\ -2.32763 \\ 0.06854 \\ 1.80141 \end{bmatrix}$$

$$\text{Householderren matrizea: } \mathbf{H}_2 = \begin{bmatrix} 1 & 0 & 0 & 0 \\ 0 & -0.25014 & 0.03681 & 0.96751 \\ 0 & 0.03681 & 0.99892 & -0.02849 \\ 0 & 0.96751 & -0.02849 & 0.25122 \end{bmatrix}$$

$$\mathbf{A}^{(3)} = \mathbf{H}_2 \mathbf{A}^{(2)} = \begin{bmatrix} -10.95445 & -10.22415 & -12.78019 & -8.39841 \\ 0 & 1.86190 & 2.86446 & 4.36830 \\ 0 & 0 & 0.36876 & -0.36198 \\ 0 & 0 & -0.57057 & -0.50358 \end{bmatrix}$$

$$\mathbf{b}^{(3)} = \mathbf{H}_2 \mathbf{b}^{(2)} = \begin{bmatrix} -23.73464 \\ 2.86446 \\ 0.36876 \\ -0.57057 \end{bmatrix}$$

3. urratsa: $\rho_3 = 1.4044$

$$\text{Householderren bektorea: } \mathbf{u}_2 = \begin{bmatrix} 0 \\ 0 \\ 1.04813 \\ -0.57057 \end{bmatrix}$$

$$\text{Householderren matrizea: } \mathbf{H}_3 = \begin{bmatrix} 1 & 0 & 0 & 0 \\ 0 & 1 & 0 & 0 \\ 0 & 0 & -0.54280 & 0.83986 \\ 0 & 0 & 0.83986 & 0.54280 \end{bmatrix}$$

$$\mathbf{R} = \mathbf{A}^{(4)} = \mathbf{H}_3 \mathbf{A}^{(3)} = \begin{bmatrix} -10.95445 & -10.22415 & -12.78019 & -8.39841 \\ 0 & 1.86190 & 2.86446 & 4.36830 \\ 0 & 0 & -0.67937 & -0.22646 \\ 0 & 0 & 0 & -0.57735 \end{bmatrix}$$

$$\mathbf{Q}^T \mathbf{b} = \mathbf{b}^{(4)} = \mathbf{H}_3 \mathbf{b}^{(3)} = \begin{bmatrix} -23.735 \\ 2.8645 \\ -0.67937 \\ 0 \end{bmatrix}$$

(ii) Azkenik, $\mathbf{R}\mathbf{x} = \mathbf{Q}^T \mathbf{b}$ ebatziz, $\mathbf{x} = [1, 0, 1, 0]^T$ lortzen da.

4. (a) eta (d) ariketak ebatziko dira.

(a) Ekuazio normalen bitartez ebazteko, kalkulu hauek gauzatu behar ditugu:

$$\mathbf{A}^T \mathbf{A} = \begin{bmatrix} 1 & 2 & 0 \\ 1 & -3 & 0 \end{bmatrix} \begin{bmatrix} 1 & 1 \\ 2 & -3 \\ 0 & 0 \end{bmatrix} = \begin{bmatrix} 5 & -5 \\ -5 & 10 \end{bmatrix} \text{ eta } \mathbf{A}^T \mathbf{b} = \begin{bmatrix} 1 & 2 & 0 \\ 1 & -3 & 0 \end{bmatrix} \begin{bmatrix} 3 \\ 1 \\ 2 \end{bmatrix} = \begin{bmatrix} 5 \\ 0 \end{bmatrix}$$

Gero, $\mathbf{A}^T \mathbf{A}\mathbf{x} = \mathbf{A}^T \mathbf{b}$ ebatziz, $\mathbf{x}^* = [2, 1]^T$ lortzen dugu.

Bestalde, hondarraren norma euklidearra: $\min \|\mathbf{A}\mathbf{x} - \mathbf{b}\|_2 = \|\mathbf{A}\mathbf{x}^* - \mathbf{b}\|_2 = 2$.

(d) Bistan dago \mathbf{A} matrizearen bigarren zutabea lehenengoa bider 2 dela; alegia, \mathbf{A} hein urrikoa da.

Ekuazio normalen bitartez ebazteko, kalkulu hauek gauzatu behar ditugu:

$$\mathbf{A}^T \mathbf{A} = \begin{bmatrix} 1 & 2 & -1 \\ 2 & 4 & -2 \end{bmatrix} \begin{bmatrix} 1 & 2 \\ 2 & 4 \\ -1 & -2 \end{bmatrix} = \begin{bmatrix} 6 & 12 \\ 12 & 24 \end{bmatrix} \text{ eta } \mathbf{A}^T \mathbf{b} = \begin{bmatrix} 1 & 2 & -1 \\ 2 & 4 & -2 \end{bmatrix} \begin{bmatrix} 3 \\ 2 \\ 1 \end{bmatrix} = \begin{bmatrix} 6 \\ 12 \end{bmatrix}$$

Sistema bateragarri zehaztugabe hau dugu:

$$\begin{aligned} 6x + 12y &= 6 \\ 12x + 24y &= 12 \end{aligned}$$

Soluzioek $x + 2y = 1$ bete behar dutenez, multzo hau da: $\mathcal{M} = \{(1 - 2y, y) \mid y \in \mathbb{R}\}$. Soluzio horien guztien artean norma euklidear minimoa duena funtzio honen minimoa kalkulatuaz lortuko dugu:

$$f(y) = (1 - 2y)^2 + y^2 = 1 - 4y + 4y^2 + y^2 = 5y^2 - 4y + 1$$

deribatuz eta zerori berdinduz, $f'(y) = 10y - 4 = 0 \Rightarrow y = 0.4$ eta $f''(0.4) = 10 > 0$ denez, norma minimokoa $(0.2, 0.4)^T$ izango da.

$\mathbf{x}^* \in \mathcal{M}$ multzoko bikote guztientzat, jatorrizko sistemaren hondarraren norma euklidearra kalkulatu dugu:

$$\mathbf{Ax}^* - \mathbf{b} = \begin{bmatrix} 1 & 2 \\ 2 & 4 \\ -1 & -2 \end{bmatrix} \begin{bmatrix} 1 - 2y \\ y \end{bmatrix} - \begin{bmatrix} 3 \\ 2 \\ 1 \end{bmatrix} = \begin{bmatrix} 1 - 2y + 2y - 3 \\ 2 - 4y + 4y - 2 \\ -1 + 2y - 2y - 1 \end{bmatrix} = \begin{bmatrix} -2 \\ 0 \\ -2 \end{bmatrix}$$

Beraz, hondarraren norma euklidearra: $\min \|\mathbf{Ax} - \mathbf{b}\|_2 = \|\mathbf{Ax}^* - \mathbf{b}\|_2 = 2.8284$ da.

5. (a) eta (d) ariketak ebatziko dira.

$$(a) \text{ Householderren bektoreak: } \mathbf{u}_1 = \begin{bmatrix} 3.2361 \\ 2 \\ 0 \end{bmatrix}, \quad \mathbf{u}_2 = \begin{bmatrix} 0 \\ -4.4721 \\ 0 \end{bmatrix}.$$

$$\mathbf{Q} = \begin{bmatrix} -0.4472 & 0.8944 & 0 \\ -0.8944 & -0.4472 & 0 \\ 0 & 0 & 1 \end{bmatrix}, \quad \mathbf{R} = \begin{bmatrix} -2.2361 & 2.2361 \\ 0 & 2.2361 \\ 0 & 0 \end{bmatrix}, \quad \mathbf{R}_u = \begin{bmatrix} -2.2361 & 2.2361 \\ 0 & 2.2361 \end{bmatrix}.$$

$$\mathbf{Q}^T \mathbf{b} = \begin{bmatrix} -2.2361 \\ 2.2361 \\ 2 \end{bmatrix}, \quad (\mathbf{Q}^T \mathbf{b})_u = \begin{bmatrix} -2.2361 \\ 2.2361 \end{bmatrix} \text{ eta hondarra } (\mathbf{Q}^T \mathbf{b})_l = 2 \text{ da.}$$

Orain, $\mathbf{R}_u \mathbf{x} = (\mathbf{Q}^T \mathbf{b})_u$ sistema ebatziz, $\mathbf{x}^* = [2 \ 1]^T$ lortzen da. Hondarraren norma euklidearra 2 da (aurreko 4.(a) ariketan lortu dugunaren berdina, bete behar duen bezala).

(d) \mathbf{A} matrizeko bigarren zutabearen norma lehenengoarena baino handiagoa denez, biak trukutzen dira permutazio-matrize hau erabiliz:

$$\mathbf{P} = \begin{bmatrix} 0 & 1 \\ 1 & 0 \end{bmatrix}$$

Beraz, $\bar{\mathbf{A}} = \mathbf{A}\mathbf{P} = \begin{bmatrix} 2 & 1 \\ 4 & 2 \\ -2 & -1 \end{bmatrix}$ matrizeari QR metodoa aplikatuko diogu. Householderren 1. bektorerako, $\mathbf{u}_1 = \begin{bmatrix} 6.8990 \\ 4 \\ -2 \end{bmatrix}$ hau dugu:

$$\mathbf{H}_1 = \begin{bmatrix} -0.40825 & -0.81650 & 0.40825 \\ -0.81650 & 0.52660 & 0.23670 \\ 0.40825 & 0.23670 & 0.88165 \end{bmatrix},$$

eta, kasu horretan, zera lortzen da:

$$\mathbf{Q}\bar{\mathbf{A}} = \mathbf{H}_1\bar{\mathbf{A}} = \begin{bmatrix} -4.8990 & -2.4495 \\ 0.0000 & 0.0000 \\ 0.0000 & 0.0000 \end{bmatrix}, \quad \mathbf{Q} = \mathbf{H}_1\mathbf{b} = \begin{bmatrix} -2.4495 \\ -1.1596 \\ 2.5798 \end{bmatrix}$$

$\mathbf{R}_{11} = [-4.8990 - 2.4495]$, $\mathbf{R}_{12} = [-2.4495]$. Laburtuz, [20] testuliburuko (6.22) adierazpenean bezala, hau lortu dugu:

$$\mathbf{Q}^T\mathbf{A}\mathbf{P} = \tilde{\mathbf{R}} = \begin{bmatrix} \mathbf{R}_{11} & \mathbf{R}_{12} \\ \mathbf{0} & \mathbf{0} \end{bmatrix} \quad \begin{array}{l} r = 1 \\ m - r = 2 \\ r = 1 \quad n - r = 1 \end{array}$$

Gainera, [20] liburuko (6.23) adierazpen hau dugu:

$$\|\mathbf{A}\mathbf{x} - \mathbf{b}\|_2^2 = \|\mathbf{Q}^T(\mathbf{A}\mathbf{x} - \mathbf{b})\|_2^2 = \|(\mathbf{Q}^T\mathbf{A}\mathbf{P})(\mathbf{P}^T\mathbf{x}) - \mathbf{Q}^T\mathbf{b}\|_2^2$$

eta bektore hauek:

$$\begin{bmatrix} \mathbf{y} \\ \mathbf{z} \end{bmatrix} = \mathbf{P}^T\mathbf{x} \quad \text{eta} \quad \begin{bmatrix} \mathbf{c} \\ \mathbf{d} \end{bmatrix} = \mathbf{Q}^T\mathbf{b} = \begin{bmatrix} -2.4495 \\ -1.1596 \\ 2.5798 \end{bmatrix}, \quad \text{non } \mathbf{c} = -2.4495 \text{ eta } \mathbf{d} = \begin{bmatrix} -1.1596 \\ 2.5798 \end{bmatrix}.$$

Orain, [20] liburuko 6.3. algoritmoari jarraituz, honela jokatuko dugu oinarri-soluzioa kalkulatzeko:

3. eta 4. urratsetan $\mathbf{z} = 0$ hartzen badugu, $\mathbf{R}_{11}\mathbf{y}_B = \mathbf{c}$ ebazten dugu, hots: $\mathbf{y}_B = -2.4495 / -4.8990 = 0.5$, eta

$$\mathbf{x}_B = \mathbf{P} \begin{bmatrix} \mathbf{y}_B \\ 0 \end{bmatrix} = \begin{bmatrix} 0 & 1 \\ 1 & 0 \end{bmatrix} \begin{bmatrix} 0.5 \\ 0 \end{bmatrix} = \begin{bmatrix} 0 \\ 0.5 \end{bmatrix}.$$

Jarraian, luzera minimoko soluzioa, \mathbf{x}_{LM} , kalkulatu dugu, eta, horretarako, kontuan hartuko dugu [20] liburuko (6.25) adierazpena:

$$\|\mathbf{x}_{LM}\|_2 = \min_{\mathbf{z} \in \mathbb{R}^{n-r}} \left\| \mathbf{x}_B - \mathbf{P} \begin{bmatrix} \mathbf{R}_{11}^{-1}\mathbf{R}_{12} \\ -\mathbf{1}_{n-r} \end{bmatrix} \mathbf{z} \right\|_2.$$

$$\mathbf{v} = \mathbf{x}_B - \mathbf{P} \begin{bmatrix} \mathbf{R}_{11}^{-1}\mathbf{R}_{12} \\ -\mathbf{1}_{n-r} \end{bmatrix} \mathbf{z} = \begin{bmatrix} 0 \\ 0.5 \end{bmatrix} - \begin{bmatrix} 0 & 1 \\ 1 & 0 \end{bmatrix} \begin{bmatrix} 0.5 \\ -1 \end{bmatrix} \mathbf{z} = \begin{bmatrix} z \\ 0.5 - 0.5z \end{bmatrix}$$

Funtzio hau definituko dugu:

$$\begin{aligned} f(z) &= \|\mathbf{v}\|_2^2 = z^2 + (0.5 - 0.5z)^2 \\ &= z^2 + 0.25 - 0.5z + 0.25z^2 = 1.25z^2 - 0.5z + 0.25 \\ \Rightarrow f'(z) &= 2.5z - 0.5 = 0 \Rightarrow z = 0.2 \end{aligned}$$

eta $f''(0.2) > 0$ denez, $z = 0.2$ rako $f(z)$ -k heltzen du minimoa; ondorioz,

$$\mathbf{x}_{LM} = \begin{bmatrix} 0.2 \\ 0.5 - 0.5 \cdot 0.2 \end{bmatrix} = \begin{bmatrix} 0.2 \\ 0.4 \end{bmatrix}.$$

Hondarra $\|\mathbf{d}\|_2 = 2.8284$ da. Alegia, aurreko problemako emaitza berdinak lortu ditugu, izan behar zuen bezala.

6. Hona hemen atal desberdinen ebazpenak:

- (a) $\mathbf{A}^T \mathbf{A} = \begin{bmatrix} 2 & 2 \\ 2 & 2.000001 \end{bmatrix}$ matrizearen autobalioak $\lambda_1 = 0.0000005$ eta $\lambda_2 = 4.0000005$ dira. Ondorioz:

$$\kappa_2(\mathbf{A}^T \mathbf{A}) = \frac{\lambda_{max}}{\lambda_{min}} = \frac{4.0000005}{0.0000005} = 8.0 \cdot 10^6$$

- (b) $\mathbf{R} = \mathbf{Q}^T \mathbf{A} = \begin{bmatrix} -1.414 & -1.414 \\ 0 & -0.001 \\ 0 & 0 \end{bmatrix}$

Dakigunez, $\kappa_2(\mathbf{A}^T \mathbf{A}) = \kappa_2(\mathbf{A})^2$, beraz: $\kappa_2(\mathbf{A}) = \sqrt{8.0 \cdot 10^6} = 2.828 \cdot 10^3$.

Bestalde, \mathbf{Q} ortogonala denez, $\kappa_2(\mathbf{R}) = \kappa_2(\mathbf{A})$ dugu, eta $\kappa_2(\mathbf{R}) = 2.828 \cdot 10^3$.

- (c) Argi ikusten denez, (a) eta (b) atalen arabera, ekuazio normalen matrizearen zenbakizko baldintza $\kappa_2(\mathbf{A}^T \mathbf{A}) = 8 \cdot 10^6$ da, eta, aldiz, QR metodoa erabiliz gero dugun sistemaren baldintza $\kappa_2(\mathbf{R}) = 2.828 \cdot 10^3$ da; alegia, nahiko hobea da $\mathbf{A}^T \mathbf{A}$ -rena baino.
- (d) Kasu honetan, baldin lau zifra esangarriko aritmetika erabiltzen badugu, hau da $\mathbf{A}^T \mathbf{A} \mathbf{x} = \mathbf{A}^T \mathbf{b}$ ekuazio normalen sistema:

$$\begin{bmatrix} 2 & 2 \\ 2 & 2 \end{bmatrix} \begin{bmatrix} x_1 \\ x_2 \end{bmatrix} = \begin{bmatrix} 4 \\ 4.001 \end{bmatrix}$$

eta bistan dago ez duela soluziorik; ez ahaztu ekuazio normalak beti bateragarriak izan behar direla.


Aldiz, QR faktORIZAZIOA erabiliz, $\mathbf{Q}^T \mathbf{b} = \begin{bmatrix} -2.828 \\ -1 \\ 0 \end{bmatrix}$ dugu. Orduan, zera dugu:

$$\begin{bmatrix} -1.414 & -1.414 \\ 0 & -0.001 \\ 0 & 0 \end{bmatrix} \begin{bmatrix} x_1 \\ x_2 \end{bmatrix} = \begin{bmatrix} -2.828 \\ -1 \\ 0 \end{bmatrix}.$$

Beraz, sistema horren hondarra 0 da, eta $\begin{bmatrix} -1.414 & -1.414 \\ 0 & -0.001 \end{bmatrix} \begin{bmatrix} x_1 \\ x_2 \end{bmatrix} = \begin{bmatrix} -2.828 \\ -1 \end{bmatrix}$ sistema bakarrik ebatzi behar dugu. Emaitza hau da:

$$x_1 = -998, \quad x_2 = 1000.$$

7. (a) Datu horiei doitutako $f(x) = ax + b$ funtzioa kalkulatzeko, $\min \|\mathbf{Ax} - \mathbf{b}\|_2$ problema ebatzi behar dugu, non $\mathbf{A} = \begin{bmatrix} -1 & 1 \\ 0 & 1 \\ 1 & 1 \\ 2 & 1 \end{bmatrix}$ eta $\mathbf{b} = \begin{bmatrix} 3 \\ 2 \\ 0 \\ 4 \end{bmatrix}$ baitira. Orduan, \mathbf{x}^* aurkitu daiteke ekuazio normalak ebatziz: $\mathbf{A}^T \mathbf{Ax} = \mathbf{A}^T \mathbf{b}$. Hortik $\mathbf{x}^* = [0.1 \quad 2.2]^T$ lortzen da. Hondarraren norma euklidearra $\|\mathbf{Ax}^* - \mathbf{b}\|_2 = 2.9496$ da. Ondorioz, eskatutako ekuazio lineala hau da: $y = 0.1x + 2.2$.



9. (a) QR faktORIZAZIOA erabiltzen da. Eragiketak laburtzeko, $\mathbf{P} = \mathbb{1}$ hartuko dugu; hots, kasu honetan ez dugu zutabeen trukaketarik egingo. \mathbf{A} matrizearen QR faktORIZAZIOA eginez gero, hau lortzen da:

$$\mathbf{Q} = \begin{bmatrix} -0.5774 & 0.7071 & 0.4082 \\ -0.5774 & 0 & -0.8165 \\ -0.5774 & -0.7071 & 0.4082 \end{bmatrix}, \quad \mathbf{R} = \begin{bmatrix} -1.7321 & -1.7321 & -4.3301 \\ 0 & 1.4142 & 0.7071 \\ 0 & 0 & 0 \end{bmatrix}.$$

Orduan, $\mathbf{Q}_u = \begin{bmatrix} -0.5774 & 0.7071 \\ -0.5774 & 0 \\ -0.5774 & -0.7071 \end{bmatrix}$ matrizearen zutabeek $K(\mathbf{A})$ azpiespazioaren oinarri bektoriala osatzen dute.

(b) Bestalde, $\mathbf{Q}_l = \begin{bmatrix} 0.4082 \\ -0.8165 \\ 0.4082 \end{bmatrix}$ matrizearen zutabeak $K(\mathbf{A})^\perp$ azpiespazioaren oinarri bektoriala osatzen du.

(c) \mathbf{R} -ren egitura kontuan hartuz, $\mathbf{R}_{11} = \begin{bmatrix} -1.7321 & -1.7321 \\ 0 & 1.4142 \end{bmatrix}$ eta $\mathbf{R}_{12} = \begin{bmatrix} -4.3301 \\ 0.7071 \end{bmatrix}$ (ikus [20] liburuko 6.6. atala). Bestalde $\mathbf{Q}^T \mathbf{b} = \begin{bmatrix} -5.1962 \\ -2.8284 \\ 0 \end{bmatrix}$, orduan, $\mathbf{c} = [-5.1962 \quad -2.8284]^T$ eta hondarra $d = 0$ da.

Orain, $\mathbf{R}_{11} \mathbf{y}_B = \mathbf{c}$ ebatziz, $\mathbf{y}_B = \begin{bmatrix} 5 \\ -2 \end{bmatrix}$. Beraz,

$$\mathbf{x}_B = \mathbf{P} \begin{bmatrix} 5 \\ -2 \\ 0 \end{bmatrix} = \begin{bmatrix} 5 \\ -2 \\ 0 \end{bmatrix}.$$

(d) \mathbf{x}_{LM} kalkulatzeko, [20] liburuko (6.25) adierazpena kontuan hartzen dugu. Bektore hau kalkulatu dugu:

$$\mathbf{q} = \mathbf{x}_B - \mathbf{P} \begin{bmatrix} \mathbf{R}_{11}^{-1} \mathbf{R}_{12} \\ -\mathbf{1} \end{bmatrix} z.$$

Horretarako, $\mathbf{R}_{11} \mathbf{w} = \mathbf{R}_{12}$ sistema ebatzen dugu, $\mathbf{w} = [2 \quad 0.5]$ lortuz. Hortaz,

$$\mathbf{q} = \begin{bmatrix} 5 \\ -2 \\ 0 \end{bmatrix} - \begin{bmatrix} 2 \\ 0.5 \\ -1 \end{bmatrix} z = \begin{bmatrix} 5 - 2z \\ -2 - 0.5z \\ z \end{bmatrix}$$

eta $\|\mathbf{q}\|_2^2 = f(z) = (5 - 2z)^2 + (-2 - 0.5z)^2 + z^2 = 5.25z^2 - 18z + 29$ funtzio horren minimoa $z^* = 1.7143$ da.

Ondorioz, zera dugu:

$$\mathbf{x}_{LM} = \begin{bmatrix} 5 - 2 \cdot 1.7143 \\ -2 - 0.5 \cdot 1.7143 \\ 1.7143 \end{bmatrix} = \begin{bmatrix} 1.5714 \\ -2.8571 \\ 1.7143 \end{bmatrix}.$$

13. (a) $\|\mathbf{A}\|_2 = \max_{\|\mathbf{x}\|_2=1} \|\mathbf{A}\mathbf{x}\|_2$ kontuan hartuko dugu. Beraz, $\|\mathbf{x}\|_2 = 1$ betetzen duen edozein \mathbf{x} hartuz, zera dugu:

$$\begin{aligned} \|\mathbf{A}\mathbf{x}\|_2 &= \|\mathbf{U}\mathbf{\Sigma}\mathbf{V}^T \mathbf{x}\|_2 = \|\mathbf{\Sigma}\mathbf{V}^T \mathbf{x}\|_2, & \mathbf{U} & \text{ortogonola izateagatik} \\ &\leq \|\mathbf{\Sigma}\|_2 \|\mathbf{V}^T \mathbf{x}\|_2 = \|\mathbf{\Sigma}\|_2 \|\mathbf{x}\|_2, & \mathbf{V}^T & \text{ortogonola izateagatik} \\ &= \|\mathbf{\Sigma}\|_2, & \|\mathbf{x}\|_2 &= 1 \text{ izateagatik.} \end{aligned}$$

Beraz, $\|\mathbf{A}\|_2 \leq \|\mathbf{\Sigma}\|_2$ dela frogatu dugu. Frogatzeko $\|\mathbf{A}\|_2 \geq \|\mathbf{\Sigma}\|_2$ betetzen dela, $\mathbf{U}^T \mathbf{A} \mathbf{V} = \mathbf{\Sigma}$ dugula erabiliz lortzen da, lehen bezala jokatuz. Hortaz, $\|\mathbf{A}\|_2 = \|\mathbf{\Sigma}\|_2$ frogatu dugu.

Bestalde, argi dago $\|\mathbf{\Sigma}\|_2 = \max_{\|\mathbf{x}\|_2=1} \|\mathbf{\Sigma}\mathbf{x}\|_2 = \max_{\|\mathbf{x}\|_2=1} \|(\sigma_1 x_1 + \dots + \sigma_r x_r + 0 + \dots + 0)\|_2$. Gainera, $\sigma_1 \geq \sigma_2 \geq \dots \geq \sigma_r$ eta $\|\mathbf{x}\|_2 = 1$ direla kontuan hartuz, $\mathbf{x} = (1, 0, \dots, 0)^T$ hartzen badugu, norma horren balio handiena lortuko dugu; hots, $\|\mathbf{\Sigma}\|_2 = \max_{\|\mathbf{x}\|_2=1} \|\mathbf{\Sigma}\mathbf{x}\|_2 = \sigma_1$ betetzen da.

(b) Dakigunez, $\kappa_2(\mathbf{A}) = \|\mathbf{A}\|_2 \|\mathbf{A}^+\|_2$ dugu, eta $\mathbf{A}^+ = \mathbf{V} \mathbf{\Sigma}^+ \mathbf{U}^T$ da \mathbf{A} matrizearen sasi-alderantzizko matrizea. Kontuan hartu, matrize diagonal hau genuenez,

$$\mathbf{\Sigma} = \begin{bmatrix} \sigma_1 & & & & \\ & \sigma_2 & & & \\ & & \ddots & & \\ & & & \sigma_n & \\ \dots & \dots & \dots & \dots & \dots \end{bmatrix},$$

orain hau dugula:

$$\mathbf{\Sigma}^+ = \begin{bmatrix} 1/\sigma_1 & & & & \vdots \\ & 1/\sigma_2 & & & \vdots \\ & & \ddots & & \vdots \\ & & & 1/\sigma_n & \vdots \\ & & & & \vdots \end{bmatrix}.$$

Aurreko atalean, $\|\mathbf{A}\mathbf{x}\|_2 = \|\mathbf{\Sigma}\|_2$ frogatzeko jokatu dugun bezala, honetan ere joka dezakegu $\|\mathbf{A}^+\|_2 = \|\mathbf{\Sigma}^+\|_2$ frogatzeko. Kasu honetan, argi dago hau betetzen dela:

$$\|\mathbf{\Sigma}^+\|_2 = \max_{\|\mathbf{x}\|_2=1} \|\mathbf{\Sigma}^+ \mathbf{x}\|_2 = \|\mathbf{\Sigma}^+ \mathbf{e}_n\|_2 = 1/\sigma_n$$

non $\mathbf{e}_n = [0, \dots, 0, 1, 0, \dots, 0]^T \in \mathbb{R}^m$, bata n . posizioan egonik.

Hortaz, $\kappa_2(\mathbf{A}) = \|\mathbf{A}\|_2 \|\mathbf{A}^+\|_2 = \|\mathbf{\Sigma}\|_2 \|\mathbf{\Sigma}^+\|_2 = \sigma_1/\sigma_n$.

(c) Hau betetzen da:

$$\mathbf{A} = \mathbf{U} \mathbf{\Sigma} \mathbf{V}^T = [\mathbf{u}_1, \mathbf{u}_2, \dots, \mathbf{u}_r, \mathbf{u}_{r+1}, \dots, \mathbf{u}_m] \begin{bmatrix} \sigma_1 & & & & & & & & \\ & \sigma_2 & & & & & & & \\ & & \ddots & & & & & & \\ & & & \sigma_r & & & & & \\ & & & & 0 & & & & \\ & & & & & \ddots & & & \\ & & & & & & 0 & & \\ & & & & & & & & 0 \end{bmatrix} \begin{bmatrix} \mathbf{v}_1^T \\ \mathbf{v}_2^T \\ \vdots \\ \mathbf{v}_r^T \\ \mathbf{v}_{r+1}^T \\ \vdots \\ \mathbf{v}_n^T \end{bmatrix}$$

$$\begin{aligned}
&= [\sigma_1 \mathbf{u}_1, \sigma_2 \mathbf{u}_2, \dots, \sigma_r \mathbf{u}_r, \mathbf{0}, \dots, \mathbf{0}] \begin{bmatrix} \mathbf{v}_1^T \\ \mathbf{v}_2^T \\ \vdots \\ \mathbf{v}_r^T \\ \mathbf{v}_{r+1}^T \\ \vdots \\ \mathbf{v}_n^T \end{bmatrix} = \begin{bmatrix} \sigma_1 u_{11} & \dots & \sigma_r u_{1r} & 0 & \dots & 0 \\ \vdots & \dots & \vdots & \vdots & \dots & \vdots \\ \sigma_1 u_{m1} & \dots & \sigma_r u_{mr} & 0 & \dots & 0 \end{bmatrix} \begin{bmatrix} v_{11} & \dots & v_{n1} \\ \vdots & \dots & \vdots \\ v_{1n} & \dots & v_{nn} \end{bmatrix} \\
&= \begin{bmatrix} \sigma_1 u_{11} v_{11} + \dots + \sigma_r u_{1r} v_{1r} & \dots & \sigma_1 u_{11} v_{n1} + \dots + \sigma_r u_{1r} v_{nr} \\ \vdots & \dots & \vdots \\ \sigma_1 u_{m1} v_{11} + \dots + \sigma_r u_{mr} v_{1r} & \dots & \sigma_1 u_{m1} v_{n1} + \dots + \sigma_r u_{mr} v_{nr} \end{bmatrix} \\
&= \sigma_1 \mathbf{u}_1 \mathbf{v}_1^T + \dots + \sigma_r \mathbf{u}_r \mathbf{v}_r^T \\
&= [\mathbf{u}_1, \mathbf{u}_2, \dots, \mathbf{u}_r] \begin{bmatrix} \sigma_1 & & & \\ & \sigma_2 & & \\ & & \ddots & \\ & & & \sigma_r \end{bmatrix} \begin{bmatrix} \mathbf{v}_1^T \\ \mathbf{v}_2^T \\ \vdots \\ \mathbf{v}_r^T \end{bmatrix} \\
&= \widehat{\mathbf{U}} \widehat{\mathbf{\Sigma}} \widehat{\mathbf{V}}^T, \text{ balio singularretako deskonposizio laburtua.}
\end{aligned}$$

17. (a) Gogora dezagun \mathbf{U} eta \mathbf{V} ortogonalak direla eta $\mathbf{\Sigma}$ diagonalak; orduan:

$$\mathbf{A}^T \mathbf{A} = (\mathbf{U} \mathbf{\Sigma} \mathbf{V}^T)^T (\mathbf{U} \mathbf{\Sigma} \mathbf{V}^T) = \mathbf{V} \mathbf{\Sigma}^T \mathbf{U}^T \mathbf{U} \mathbf{\Sigma} \mathbf{V}^T = \mathbf{V} \mathbf{\Sigma}^T \mathbf{\Sigma} \mathbf{V}^T = \mathbf{V} \mathbf{\Lambda} \mathbf{V}^T,$$

non $\mathbf{\Lambda} = \mathbf{\Sigma}^T \mathbf{\Sigma} \in \mathbb{R}^{n \times n}$.

Ondorioz, $\mathbf{A}^T \mathbf{A} = \mathbf{V} \mathbf{\Lambda} \mathbf{V}^T$ dugu, non \mathbf{V} ortogonalak baita eta $\mathbf{\Lambda}$ diagonalak; hortaz, hau betetzen da:

$$\mathbf{A}^T \mathbf{A} \mathbf{V} = \mathbf{V} \mathbf{\Lambda},$$

eta \mathbf{V} -ren edozein i zutabetarako $\mathbf{A}^T \mathbf{A} \mathbf{v}_i = \lambda_i \mathbf{v}_i$ dugu. Hots, λ_i da $\mathbf{A}^T \mathbf{A}$ matrizearen i . autobalioa, eta \mathbf{v}_i da horri dagokion autobektore unitario bat.

Problema honetan $\mathbf{A}^T \mathbf{A} = \begin{bmatrix} 1 & 1 \\ 1 & 0 \\ 0 & 1 \end{bmatrix}^T \begin{bmatrix} 1 & 1 \\ 1 & 0 \\ 0 & 1 \end{bmatrix} = \begin{bmatrix} 2 & 1 \\ 1 & 2 \end{bmatrix}$ da, eta zera lortzen dugu:

$$\begin{vmatrix} 2 - \lambda & 1 \\ 1 & 2 - \lambda \end{vmatrix} = 0 \Rightarrow \lambda_1 = 3, \quad \lambda_2 = 1$$

$\lambda_1 = 3$ -ri dagokion autobektore unitario bat aurkituko dugu:

$$\begin{bmatrix} 2 - 3 & 1 \\ 1 & 2 - 3 \end{bmatrix} \begin{bmatrix} x \\ y \end{bmatrix} = \begin{bmatrix} 0 \\ 0 \end{bmatrix}$$

$(x, y) = (t, t)$ eta unitarioa izateko $\mathbf{v}_1 = (x, y) = (1/\sqrt{2}, 1/\sqrt{2})$.

$\lambda_2 = 1$ -i dagokion autobektore unitarioa honela kalkulatzen da:

$$\begin{bmatrix} 2 & -1 & 1 \\ 1 & & 2-1 \end{bmatrix} \begin{bmatrix} x \\ y \end{bmatrix} = \begin{bmatrix} 0 \\ 0 \end{bmatrix}$$

$(x, y) = (t, -t)$ eta unitarioa izateko $\mathbf{v}_2 = (x, y) = (1/\sqrt{2}, -1/\sqrt{2})$.

i guztietarako $\sigma_i = \sqrt{\lambda_i}$ denez, $\sigma_1 = \sqrt{3}$ eta $\sigma_2 = 1$.

Ondorioz, $\mathbf{\Sigma} = \begin{bmatrix} \sqrt{3} & 0 \\ 0 & 1 \\ 0 & 0 \end{bmatrix}$ dugu, eta $\mathbf{V} = \begin{bmatrix} 1/\sqrt{2} & 1/\sqrt{2} \\ 1/\sqrt{2} & -1/\sqrt{2} \end{bmatrix}$.

Bestalde, $\mathbf{A} = \mathbf{U}\mathbf{\Sigma}\mathbf{V}^T$ balio singularretako deskonposiziotik $\mathbf{A}\mathbf{V} = \mathbf{U}\mathbf{\Sigma}$ ateratzen dugu, eta zutabez zutabe hartzen badugu, $\mathbf{A}\mathbf{v}_i = \sigma_i\mathbf{u}_i$ dugu; hortaz:

$$\mathbf{u}_1 = \mathbf{A}\mathbf{v}_1/\sigma_1 = \begin{bmatrix} 1 & 1 \\ 1 & 0 \\ 0 & 1 \end{bmatrix} \begin{bmatrix} 1/\sqrt{2} \\ 1/\sqrt{2} \end{bmatrix} / \sqrt{3} = \begin{bmatrix} 2/\sqrt{6} \\ 1/\sqrt{6} \\ 1/\sqrt{6} \end{bmatrix}$$

$$\mathbf{u}_2 = \mathbf{A}\mathbf{v}_2/\sigma_2 = \begin{bmatrix} 1 & 1 \\ 1 & 0 \\ 0 & 1 \end{bmatrix} \begin{bmatrix} 1/\sqrt{2} \\ -1/\sqrt{2} \end{bmatrix} / 1 = \begin{bmatrix} 0 \\ 1/\sqrt{2} \\ -1/\sqrt{2} \end{bmatrix}$$

Baina, $\mathbf{U} \in \mathbb{R}^{3 \times 3}$ denez eta \mathbf{u}_1 eta \mathbf{u}_2 lehenengo bi zutabeak direnez, kalkulatu behar dugu falta den hirugarren zutabea, \mathbf{u}_3 . Dakigunez, \mathbf{u}_3 horrek \mathbf{u}_1 eta \mathbf{u}_2 bektoreekiko ortogonalak izan behar du, eta unitarioa; alegia:

$$\begin{aligned} \mathbf{u}_1^T \mathbf{u}_3 &= \begin{bmatrix} 2/\sqrt{6} \\ 1/\sqrt{6} \\ 1/\sqrt{6} \end{bmatrix}^T \begin{bmatrix} a \\ b \\ c \end{bmatrix} = 0 \\ \mathbf{u}_2^T \mathbf{u}_3 &= \begin{bmatrix} 0 \\ 1/\sqrt{2} \\ -1/\sqrt{2} \end{bmatrix}^T \begin{bmatrix} a \\ b \\ c \end{bmatrix} = 0 \end{aligned}$$

Hortik, soluzioa $\begin{bmatrix} a \\ b \\ c \end{bmatrix} = \begin{bmatrix} -t \\ t \\ t \end{bmatrix}$ da, eta unitario bihurtuz, $\mathbf{u}_3 = \begin{bmatrix} -1/\sqrt{3} \\ 1/\sqrt{3} \\ 1/\sqrt{3} \end{bmatrix}$ lortzen dugu; eta \mathbf{U} hau da:

$$\mathbf{U} = \begin{bmatrix} 2/\sqrt{6} & 0 & -1/\sqrt{3} \\ 1/\sqrt{6} & 1/\sqrt{2} & 1/\sqrt{3} \\ 1/\sqrt{6} & -1/\sqrt{2} & 1/\sqrt{3} \end{bmatrix}.$$

Hala ere, $\mathbf{u}_3 = \begin{bmatrix} 1/\sqrt{3} \\ -1/\sqrt{3} \\ -1/\sqrt{3} \end{bmatrix}$ ere izan liteke. Alegia, balio singularretako deskonposizio osoa, $\mathbf{A} = \mathbf{U}\mathbf{\Sigma}\mathbf{V}^T$, ez da bakarra. Aldiz, balio singularrak bai, bakarrak dira.

Balio singularretako deskonposizio laburtua hau da problema honetan:

$$\mathbf{A} = [\mathbf{u}_1, \mathbf{u}_2] \begin{bmatrix} \sqrt{3} & 0 \\ 0 & 1 \end{bmatrix} \begin{bmatrix} \mathbf{v}_1^T \\ \mathbf{v}_2^T \end{bmatrix} = \widehat{\mathbf{U}}\widehat{\mathbf{\Sigma}}\widehat{\mathbf{V}}^T,$$

non $\widehat{\mathbf{V}} = \mathbf{V}$.

(b) Alde hau ebazteko, kontuan hartuko dugu [20] liburuko 6.8.3. atala. Minimo karra-tuen problemari $\mathbf{A} = \mathbf{U}\mathbf{\Sigma}\mathbf{V}^T$ deskonposizio izanez gero, zera betetzen da:

$$\|\mathbf{Ax} - \mathbf{b}\|_2 = \|\mathbf{U}\mathbf{\Sigma}\mathbf{V}^T\mathbf{x} - \mathbf{b}\|_2 = \|\mathbf{U}^T(\mathbf{U}\mathbf{\Sigma}\mathbf{V}^T\mathbf{x} - \mathbf{b})\|_2 = \|\mathbf{\Sigma}\mathbf{V}^T\mathbf{x} - \mathbf{U}^T\mathbf{b}\|_2,$$

non $\mathbf{y} = \mathbf{V}^T\mathbf{x} = \begin{bmatrix} \mathbf{w} \\ \mathbf{v} \end{bmatrix}$ eta $\mathbf{z} = \mathbf{U}^T\mathbf{b} = \begin{bmatrix} \mathbf{c} \\ \mathbf{d} \end{bmatrix}$ definituz, hau lortzen baitugu:

$$\|\mathbf{Ax} - \mathbf{b}\|_2 = \|\mathbf{\Sigma}\mathbf{y} - \mathbf{z}\|_2 = \left\| \begin{bmatrix} \widehat{\mathbf{\Sigma}} & \mathbf{0} \\ \mathbf{0} & \mathbf{0} \end{bmatrix} \begin{bmatrix} \mathbf{w} \\ \mathbf{v} \end{bmatrix} - \begin{bmatrix} \mathbf{c} \\ \mathbf{d} \end{bmatrix} \right\|_2,$$

hortik, $w_i = c_i/\sigma_i$, $i = 1, \dots, r$, eta hondarra $\|\mathbf{d}\|_2$ direla ondorioztatzen dugu.

Problema honi aplikatzen badiogu, zera dugu:

$$\|\mathbf{Ax} - \mathbf{b}\|_2 = \|\mathbf{\Sigma}\mathbf{y} - \mathbf{z}\|_2 = \left\| \begin{bmatrix} \widehat{\mathbf{\Sigma}} \\ \mathbf{0} \end{bmatrix} [\mathbf{y}] - \begin{bmatrix} \mathbf{c} \\ \mathbf{d} \end{bmatrix} \right\|_2,$$

hortik, $y_i = c_i/\sigma_i$, $i = 1, 2$, eta hondarra $\|\mathbf{d}\|_2$. Ondorioz, problema honetarako hau dugu:

$$\mathbf{z} = \mathbf{U}^T\mathbf{b} = \begin{bmatrix} 2/\sqrt{6} & 0 & -1/\sqrt{3} \\ 1/\sqrt{6} & 1/\sqrt{2} & 1/\sqrt{3} \\ 1/\sqrt{6} & -1/\sqrt{2} & 1/\sqrt{3} \end{bmatrix}^T \begin{bmatrix} 3 \\ 2 \\ 1 \end{bmatrix} = \begin{bmatrix} 3\sqrt{3}/\sqrt{2} \\ 1/\sqrt{2} \\ 0 \end{bmatrix}$$

Orduan, $|d| = 0$ eta

$$y_1 = (3\sqrt{3}/\sqrt{2})/\sqrt{3} = 3/\sqrt{2} \quad \text{eta} \quad y_2 = (1/\sqrt{2})/1 = 1/\sqrt{2},$$

eta $\mathbf{y} = \mathbf{V}^T\mathbf{x}$ denez, $\mathbf{x} = \mathbf{V}\mathbf{y}$ dugu, hots:

$$\mathbf{x} = \mathbf{V}\mathbf{y} = \begin{bmatrix} 1/\sqrt{2} & 1/\sqrt{2} \\ 1/\sqrt{2} & -1/\sqrt{2} \end{bmatrix} \begin{bmatrix} 3/\sqrt{2} \\ 1/\sqrt{2} \end{bmatrix} = \begin{bmatrix} 2 \\ 1 \end{bmatrix}.$$

5.3. Azterketa-problemak

2013-14 ikasturteko urtarrilekoa

$$\text{Izan bitez } \mathbf{A} = \begin{bmatrix} 1 & 0 \\ 1 & 1 \\ 1 & 2 \end{bmatrix} \quad \text{eta} \quad \mathbf{b} = \begin{bmatrix} 0.1 \\ 0.9 \\ 2.0 \end{bmatrix}.$$

- (a) Ebatzi $\min \|\mathbf{Ax} - \mathbf{b}\|_2$ minimo karratuen problema ekuazio normalak erabiliz. Zein da hondarra?
- (b) Froga ezazu ekuazio normalen bidez minimo karratuen problema ebatzi dezakegula.
- (c) Justifika ezazu QR deskonposizioa erabiltzea problema hori ebazteko.
- (d) Ebatzi $\min \|\mathbf{Ax} - \mathbf{b}\|_2$ minimo karratuen problema QR deskonposizioa erabiliz. Zein da hondarra?

2013-14 ikasturteko ekainekoa

Izan bedi $\mathbf{w} = \begin{bmatrix} 8 \\ 0 \\ 6 \end{bmatrix}$.

- (a) Aurkitu \mathbf{w} honela transformatzen duen \mathbf{H} Householder-en islapena:

$$\mathbf{H}\mathbf{w} = \begin{bmatrix} -10 \\ 0 \\ 0 \end{bmatrix}.$$

- (b) Arrazoituz, aurkitu hau egiaztatzen duten \mathbf{x} eta \mathbf{y} bektoreak:

$$\begin{aligned} \mathbf{H}\mathbf{x} &= -\mathbf{x}, \\ \mathbf{H}\mathbf{y} &= \mathbf{y}. \end{aligned}$$

- (c) Izan bitez $\mathbf{u} \in \mathbf{R}^n$ Householder-en bektore bat eta $\mathbf{H} \in \mathbf{R}^{n \times n}$ elkartutako Householder-en matrizea. Frogatu $\mathbf{H}^{-1} = \mathbf{H}$ betetzen dela.

2014-15 ikasturteko urtarrilekoa

Izan bitez $\mathbf{a}_1 = [3, 4, 0]^T$, $\mathbf{a}_2 = [1, 0, 1]^T$, $\mathbf{a}_3 = [1, 4, -2]^T$ bektoreak eta \mathcal{S} bektore horiek sortzen duten azpiespazio bektoriala.

- (a) Kalkula ezazu \mathcal{S} -ren oinarri ortonormal bat. Zein da \mathcal{S} -ren dimentsioa?
- (b) Kalkula ezazu \mathcal{S}^\perp -ren oinarri ortonormal bat. Zein da \mathcal{S}^\perp -ren dimentsioa?
- (c) Izan bedi $\mathbf{b} = [1, -4, 4]^T$ bektorea. Kalkula ezazu $\|\mathbf{b} - (x_1\mathbf{a}_1 + x_2\mathbf{a}_2 + x_3\mathbf{a}_3)\|_2$ minimoa egiten duen norma txikieneko $\mathbf{x} = [x_1, x_2, x_3]^T$ bektorea. Erabili zenbakizko metodo egonkor bat.

2016-17 ikasturteko urtarrilekoa

Egiaztatu $\mathbf{H} = \mathbb{1} - 2\mathbf{u}\mathbf{u}^T$ matrizea \mathbf{u} bektore unitarioari dagokion Householderen islapena dela.

1. Froga ezazu Householderen islapenak matrize simetrikoak eta ortogonalak direla.
2. Izan bitez $\mathbf{x}, \mathbf{y} \in \mathbb{R}^n$ norma euklidear berdineko bektoreak. Froga ezazu beti existitzen dela \mathbf{H} islapen bat non $\mathbf{H}\mathbf{x} = \mathbf{y}$ baita.
3. Izan bedi $\mathbf{a} = (3, 4, 0)^T$ bektorea. Sortu Householderen islapen bat hau betetzeko:

$$\mathbf{H}\mathbf{a} = \begin{bmatrix} \|\mathbf{a}\|_2 \\ \mathbf{0} \end{bmatrix}.$$

2016-17 ikasturteko ekainekoa

Izan bedi \mathbb{R}^3 -ko $2x - 2z = 0$ ekuazioko planoak. Eraiki $\mathbf{P} \in \mathbb{R}^{3 \times 3}$ matrize bat edozein puntu islatzeko plano horrekiko. Hau da, $\mathbf{a} = (a_1, a_2, a_3)^T$ bektoreak puntu bat zehazten badu, $\mathbf{P}\mathbf{a}$ eta \mathbf{a} simetrikoak izateko plano horrekiko.

Izan bitez $\mathbf{A}, \mathbf{B} \in \mathbb{R}^{m \times n}$ eta $\mathbf{A} = \mathbf{Q}\mathbf{B}\mathbf{P}^T$, non \mathbf{Q} eta \mathbf{P} matrize ortogonalak baitira. Froga ezazu $\|\mathbf{A}\|_2 = \|\mathbf{B}\|_2$.

2018-19 ikasturteko urtarrilekoa

1. Froga ezazu $\|\mathbf{U}\mathbf{A}\|_2 = \|\mathbf{A}\|_2$ betetzen dela, \mathbf{U} ortogonalak bada.
2. Izan bedi $\mathbf{A} \in \mathbb{R}^{m \times n}$, non $m > n = \text{hein}(\mathbf{A})$. Frogatu $\|\mathbf{A}\|_2 = \sigma_1$ betetzen dela, $\mathbf{A} = \mathbf{U}\mathbf{\Sigma}\mathbf{V}^T$ bada, non \mathbf{U} eta \mathbf{V} matrize ortogonalak baitira eta $\mathbf{\Sigma} = \text{diag}\{\sigma_1, \dots, \sigma_n\}$, $\sigma_1 \geq \dots \geq \sigma_n > 0$.
3. Izan bitez $a, b \neq 0$ zenbaki errealak. Kalkula itzazu matrize honen balio singularrak:

$$\mathbf{A} = \begin{bmatrix} 1 & 0 \\ 0 & a \\ b & 0 \\ 0 & b \end{bmatrix}$$

4. Kalkula ezazu \mathbf{A} matrizearen balio singularretako deskonposizio laburtua.

2018-19 ikasturteko ekainekoa

Izan bedi matrize hau:

$$\mathbf{A} = \begin{bmatrix} 2 & 0 \\ 0 & 2 \\ 1 & 0 \end{bmatrix}$$

1. Aurkitu $\|\mathbf{A}\|_2$.
2. Kalkula ezazu \mathbf{A} matrizearen balio singularretako deskonposizioa.

2019-20 ikasturteko urtarrilekoa

(a) Izan bedi matrize hau:

$$\mathbf{A} = \begin{bmatrix} 1 & 1 \\ 1 & 0 \\ 0 & 1 \end{bmatrix}.$$

Aurkitu $\mathbf{A} = \mathbf{U}\mathbf{\Sigma}\mathbf{V}^T$ balio singularretako deskonposizioa eta egiaztatu berdintza hori betetzen dela. Zein da $\|\mathbf{A}\|_2$?

(b) $\mathbf{b} = [3, 2, 1]^T$ bada, \mathbf{A} -ren deskonposizio hori aprobetxatuz, ebatzi $\min_{\mathbf{x}} \|\mathbf{Ax} - \mathbf{b}\|_2$ minimo karratuen problema \mathbf{x} soluzioa norma minimokoa izanik.

2020-21 ikasturteko urtarrilekoa

Demagun $\mathbf{Ax} = \mathbf{b}$ sistema gaindeterminatua, non

$$\mathbf{A} = \begin{bmatrix} 1 & 1 \\ 1 & 3 \\ 1 & 2 \end{bmatrix} \quad \text{eta} \quad \mathbf{b} = \begin{bmatrix} 2 \\ 0 \\ 2 \end{bmatrix}$$

1. Kalkula ezazu sistema horren minimo karratuen soluzioa ekuazio normalak erabiliz eta haiek osatutako sistema Choleskyren faktORIZAZIOAREN bidez ebatziz. Zein da beren hondarraren norma euklidearra?
2. Kalkula ezazu sistema horren minimo karratuen soluzioa QR faktORIZAZIOAREN bitartez. Kalkula ezazu hondarraren norma euklidearra.
3. Zer esan dezakegu QR faktORIZAZIOAREN R matrizeaz eta lehenengo ataleko Choleskyren faktoreaz konparatzen baditugu? Zer gertatzen da? Zergatik?

6. kapitulua

Ekuazio ez-linealen sistemen ebazpena

Ikasgai honetan aldagai anitzeko problemekin arituko gara, eta gure helburu nagusia izango da ekuazio ez-linealen sistemak ebaztea. Newtonen metodoarekin hasiko gara.

Izan bedi $\mathbf{f} : \mathbb{R}^n \rightarrow \mathbb{R}^n$ funtzioa eta $\mathbf{f} \in C^1$ (hots, lehenengo ordenako deribatu partzial guztiak funtzio jarraituak dira), non f_1, \dots, f_n bere osagaiak baitira. Ebatzi behar dugun ekuazioa zera da:

$$\mathbf{f}(\mathbf{x}) = \mathbf{0}. \quad (6.1)$$

Aldagai bateko funtzioen kasurako bezala, hemen ere metodo iteratibo bat erabiliko dugu $\mathbf{x}_0 \in \mathbb{R}^n$ puntu batetik abiatuz. Demagun k -garren iterazioan dagoela prozesu hori; orduan, puntu horren inguruan, hau da Taylorren lehenengo ordenako garapena:

$$\mathbf{M}_k(\mathbf{x}) = \mathbf{f}(\mathbf{x}_k) + \mathbf{J}(\mathbf{x}_k)(\mathbf{x} - \mathbf{x}_k),$$

non $\mathbf{J}(\mathbf{x}_k)$ matrizea \mathbf{f} -ren jacobiarra baita \mathbf{x}_k puntuan (hots, \mathbf{f} -ren lehenengo ordenako deribatua da puntu horretan); honela definitzen da:

$$\mathbf{J}(\mathbf{x}_k) = \begin{bmatrix} \frac{\partial f_1}{\partial x_1}(\mathbf{x}_k) & \cdots & \frac{\partial f_1}{\partial x_n}(\mathbf{x}_k) \\ \vdots & \ddots & \vdots \\ \frac{\partial f_n}{\partial x_1}(\mathbf{x}_k) & \cdots & \frac{\partial f_n}{\partial x_n}(\mathbf{x}_k) \end{bmatrix} = \begin{bmatrix} \nabla f_1(\mathbf{x}_k)^t \\ \vdots \\ \nabla f_n(\mathbf{x}_k)^t \end{bmatrix}$$

Jarraian, (6.1) ekuazioan $\mathbf{f}(\mathbf{x})$ -ren ordeaz \mathbf{x}_k -ren inguruko $\mathbf{M}_k(\mathbf{x})$ hurbilpen lineala jarriko dugu; alegia:

$$\mathbf{f}(\mathbf{x}_k) + \mathbf{J}(\mathbf{x}_k)(\mathbf{x} - \mathbf{x}_k) = \mathbf{0}.$$

Ekuazio horren soluzioa $\mathbf{x} = \mathbf{x}_k - \mathbf{J}(\mathbf{x}_k)^{-1}\mathbf{f}(\mathbf{x}_k)$ denez, hau da Newtonen metodoaren iterazioa:

$$\mathbf{x}_{k+1} = \mathbf{x}_k - \mathbf{J}(\mathbf{x}_k)^{-1}\mathbf{f}(\mathbf{x}_k). \quad (6.2)$$

Newtonen $\mathbf{p}_k = \mathbf{x}_{k+1} - \mathbf{x}_k$ urratsak $\mathbf{p}^* = \mathbf{x}^* - \mathbf{x}_k$ -ren hurbilpen bat ematen digu.

Beraz, iterazio bakoitzean sistema lineal hau ebatzi behar da:

$$\mathbf{J}(\mathbf{x}_k)\mathbf{p}_k = -\mathbf{f}(\mathbf{x}_k), \quad (6.3)$$

eta, gero, hau kalkulatu:

$$\mathbf{x}_{k+1} = \mathbf{x}_k + \mathbf{p}_k.$$

Baina, Newtonen metodorako aldaera batzuk existitzen dira; metodoari elkartutako (6.3) sistemaren definizioan eta ebazpenean desberdintzen dira. Horien guztien helburua da algoritmoaren fase hori murriztea, eta, horretarako, $\mathbf{J}(\mathbf{x}_k)$ matrize jacobiarra hurbiltzen da era desberdinetan; horrela, metodo hauek erabiliko ditugu:

- Diferentzia finituzko Newtonen metodoa: jacobiarra diferentzia finituen bitartez kalkulatu da.
- Newtonen metodo aldatua: iterazio guztietan hasierako puntuko jacobiarra erabiltzen da.
- Jacobiren aldaera: jacobiarra bere diagonalera murrizten da, diagonaleko gaiak besteekin konparatuz nahiko handiak direnean.
- Gauss-Seidelen aldaera: matrize jacobiarra bere diagonalarekin eta diagonalaren azpiko azpimatrizarekin hurbiltzen da.
- Quasi-Newton metodoak, bereziki Broyden-en metodoa. Diferentzia finituzko Newtonen metodoko iterazio bakoitzean, jacobiarren hurbilpena egiteko, $n^2 + n$ funtzio-balioztatze egin behar ditugu (n^2 , jacobiarra kalkulatzeko, eta n , funtzioaren balioa kalkulatzeko), eta sistema lineala ebazteko $O(n^3)$ eragiketa gehiago. Ahalegin konputazionalaren kopuru hori handiegia da, n txikia izan ezean. Quasi-Newton metodoak dira sistema ez-linealak ebazteko ebakitzailaren metodoaren hedatze arrakastatsuenak. Iterazio bakoitzean n funtzio-balioztatze bakarrik behar izango ditugu, $O(n^2)$ eragiketa aritmetikorekin. Besteak beste, Broyden-en metodoa lantzen da problemetan.

Dakigunez, funtzio deribagarri baten minimoak kalkulatzeko, puntu kritikoak ebazten dira ekuazio ez-linealen sistema bat ebatziz: gradiente berdin zero. Beraz, aurreko metodoak aprobetxatzen ditugu puntu kritikoak kalkulatzeko, eta puntu kritiko batean gradientearen deribatua, jatorrizko funtzioaren matrize hessianarra, definitu positiboa bada, funtzioaren minimo bat izango dugu. Aldiz, definitu negatiboa bada, maximo bat. Horrek errazten digu murrizketarik gabeko optimizazio arloan sartzeko bidea. Hor ikusten dira metodo global batzuk, eta haiek, urrats egoki bat egiteko (metodo globala izateko), bete behar dituzten Armijo-Goldstein-en (edo Wolfe-ren) baldintzak.

Azkenik, minimo karratu ez-linealen problema ebazteko, kontuan hartzen ditugu Newtonen metodoa eta Gauss-Newtonen eta Levenberg-Marquardt-en metodoak.

6.1. Problemak

1. Ebatzi sistema hau Newtonen metodoaz [20] liburuko 7.1. algoritmoa erabiliz, $(x_0, y_0, z_0) = (0.5, 0.5, 0.5)$ hartuz:

$$\begin{aligned} f_1(x, y, z) &= x^2 + y^2 + z^2 - 1 = 0 \\ f_2(x, y, z) &= 2x^2 + y^2 - 4z = 0 \\ f_3(x, y, z) &= 3x^2 - 4y + z^2 = 0. \end{aligned}$$

Bigarren urratsa egiteko, LU metodoa erabili.

Baldin $\mathbf{f}(x, y, z) = (f_1(x, y, z), f_2(x, y, z), f_3(x, y, z))$ bada, bukatu iteratzeko prozesua $\|\mathbf{f}(x, y, z)\|_\infty < 6 \cdot 10^{-5}$ denean.

2. Ebatzi sistema hau Newtonen algoritmoaz, $(x_0, y_0) = (1.5, 1.5)$ hartuz:

$$\begin{aligned} f_1(x, y) &= x^2 + y^2 - 2 = 0 \\ f_2(x, y) &= e^{x-1} + y^3 - 2 = 0. \end{aligned}$$

Baldin $\mathbf{f}(x, y) = (f_1(x, y), f_2(x, y))$ bada, bukatu iteratzeko prozesua $\|\mathbf{f}(x, y)\|_\infty < 10^{-4}$ denean.

3. Izan bedi sistema hau:

$$\begin{aligned} f_1(x, y) &= x^2 - y - 0.2 = 0 \\ f_2(x, y) &= y^2 - x - 0.3 = 0. \end{aligned}$$

Ebatzi sistema hori Newtonen metodoaz, $(x_0, y_0) = (1.2, 1.2)$ hartuz; egin bi iterazio bakarrik. Orain, $(x_0, y_0) = (-0.2, -0.2)$ hartu, eta egin Newtonen metodoaren lehenengo bi iterazioak.

4. Ebatzi hirugarren problema, diferentzia finituzko Newtonen metodoaz.
5. Ebatzi hirugarren problema, Broydenen metodoaz.
6. Kalkulatu Broydenen metodoaren lehenengo hiru iterazioak sistema honetarako:

$$\begin{aligned} f_1(x, y) &= x_1 + x_2 - 3 = 0 \\ f_2(x, y) &= x_1^2 + x_2^2 - 9 = 0, \end{aligned}$$

$\mathbf{x}_0 = (x_0, y_0)^T = (2, 7)^T$ eta $\mathbf{A}_0 = \mathbf{J}(\mathbf{x}_0)$ hartuz. Zein da $\|\mathbf{x}_3 - \mathbf{x}_2\|$ zehaztasuna? Eta errorea (hots, $\|(f_1(\mathbf{x}_3), f_2(\mathbf{x}_3))\|$)?

7. Izan bedi sistema hau:

$$\begin{aligned} f_1(x, y) &= x^2 + y^2 - 2 = 0 \\ f_2(x, y) &= xy - 1 = 0. \end{aligned}$$

- (a) Egiaztatu $(1, 1)$ eta $(-1, -1)$ sistema horren soluzioak direla.

- (b) Zelako arazoak ager daitezke Newtonen metodoa aplikatzen saiatzen bagara soluzio horiek kalkulatzeko?

8. Aurkitu sistema ez-lineal hauen soluzio bat, Newtonen metodoa erabiliz:

$$(a) \quad \begin{aligned} x_1^2 - 10x_1 + x_2^2 + 8 &= 0, \\ x_1x_2^2 + x_1 - 10x_2 + 8 &= 0; \quad \text{hartu } (x_0, y_0) = (1.2, 1.2). \end{aligned}$$

$$(b) \quad \begin{aligned} 3x_1^2 - x_2^2 &= 0, \\ 3x_1x_2^2 - x_1^3 - 1 &= 0; \quad \text{hartu } (x_0, y_0) = (0.5, 0.5). \end{aligned}$$

Ebatzi sistema horiek Newtonen metodoaz, eta bukatu $\|\mathbf{f}(x, y)\|_\infty < 10^{-3}$ denean. Sistema bakoitzean, zenbat iterazio erabili ditugu? Zein da zehaztasun erlatiboa? Zein da konbergentziaren ordena?

9. Ebatzi aurreko problemako (a) eta (b) sistemak Broydenen metodoaz, eta bukatu $\|\mathbf{f}(x, y)\|_\infty < 10^{-3}$ denean. Sistema bakoitzean, zenbat iterazio erabili ditugu? Zein da zehaztasun erlatiboa? Zein da konbergentziaren ordena?
10. (a) Froga ezazu $f(\mathbf{x}) = x^2 - y^4 + 1$ funtzioak koordenatu-jatorrian zela-puntu bat duela. Hots, koordenatu-jatorria puntu kritikoa dela, baina ez dela minimo bat ezta maximo bat ere.
- (b) Zer gertatzen da Newtonen metodoa aplikatzen badugu zela-puntu hori kalkulatzeko?
11. Izan bedi optimizazioko problema hau:

$$\min 5x^2 + 5y^2 - xy - 11x + 11y + 11.$$

- (a) Aurkitu minimo izateko lehenengo ordenako baldintza beharrezkoak betetzen dituen puntu bat (hots, puntu kritiko bat).
- (b) Froga ezazu puntu hori minimo globala dela.
- (c) Zein izango litzateke gradiente-metodoaren konbergentzia-ratioa problema honi aplikatzen badiogu?
- (d) Gradiente-metodoko zenbat iterazio erabili behar ditugu gutxienez, funtzio errorea 10^{-11} bider gutxitzeko?
12. Izan bedi helburu-funtzio hau: $f(\mathbf{x}) = 3x_1^2 + 2x_1x_2 + x_2^2$, $\mathbf{x}_0 = (1, 1)^T$.
- (a) Zein da f -rako beherapen azkarreneko norabidea \mathbf{x}_0 -tik?
- (b) $(1, -1)^T$ norabide beherakorra da?
- (c) Lehenengo ataleko norabide beherakorrerako, eta atzeranzko bilaketa lineala erabiliz, aurkitu λ onargarri bat $\lambda_0 = 1$, $\rho = 0.5$ eta $\alpha = 0.1$ hartuz.

13. Izan bedi optimizazioko problema hau: $\min f(x, y) = 3x^2 + y^4$.

- (a) Gradiente-metodoaren iterazio bat aplikatu $\mathbf{x}_0 = (1, -2)^T$ hartuz, eta, λ aurkitzeko, atzeranzko bilaketa lineala erabili $\lambda = 1$, $\rho = 0.5$ eta $\alpha = 0.1$ hartuz.
- (b) Errepikatu (a)-ren kalkulua, baina orain $\lambda = 1$, $\rho = 0.1$ eta $\alpha = 0.1$ hartuz. Konparatu kalkuluetan kostatu dena aurreko atalean kostatu denarekin.
- (c) Orain, egin Newtonen metodoaren iterazio bat (a) ataleko baldintza berdinekin λ onargarria kalkulatzeko. Zer gertatu da? Konparatu kalkuluetan kostatu dena aurreko ataletan kostatu denarekin.
14. Izan bedi helburu-funtzio hau: $f(x, y) = x^2 + y^2 + xy - 3x$.
- (a) Aurkitu f -ren minimo lokal bat.
- (b) Zergatik da (a)-ren soluzioa minimo global bat?
- (c) Gradientearen metodoa aplikatzen badugu (a) ataleko minimoa aurkitzeko, zein izango litzateke helburu-funtzioaren konbergentzia-ratioa?
15. Aurkitu gradiente-metodoaren konbergentzia-ratioa aplikatzen diogunean problema honi:
- $$\min f(x, y) = x^2 + 1.999xy + y^2.$$
16. Frogatu $\phi(\mathbf{x}) = x_1^2 - x_2^4 + 1$ funtzioak zela-puntu bat daukala jatorrian. Zer gertatzen da Newtonen metodoa aplikatzen badugu zela-puntu hori aurkitzeko?
17. Rosenbrock-en funtzioa $\phi(\mathbf{x}) = 100(x_2 - x_1^2)^2 + (1 - x_1)^2$ da, eta minimo bakar bat dauka; zein da? Aplikatu gradientearen metodoa, $\mathbf{x}_0 = (0, 0)^T$ -tik hasiz, iterazio bat bakarrik eginez, eta atzeranzko bilaketa erabiliz, $\lambda = 1$, $\rho = 0.5$ eta $\alpha = 0.1$ hartuz. Zein da gutxi gorabehera konbergentzia-ratioa? Zenbat iterazio behar ditu, gutxi gorabehera, funtzio-errorea 10^{-6} bider gutxitzeko?
18. Rosenbrocken $\phi(\mathbf{x}) = 100(x_2 - x_1^2)^2 + (1 - x_1)^2$ funtzioaren minimo bakarra kalkulatzeko, erabili Newtonen metodoa eta BFGS metodoa bi iteraziotan zehar. Bi kasuetan, atzeranzko bilaketa erabiliz, $\lambda = 1$, $\rho = 0.5$ eta $\alpha = 0.1$ hartuz, eta $\mathbf{x}_0 = (0, 0)^T$. Zein metodo hurbildu da gehiago soluziora?
19. Doitu $d = \phi(t, \mathbf{x}) = x_1 e^{-x_2 t}$ funtzioa $t_i = -1, 0, 1, 2$ puntuetan $d_i = 2.7, 1, 0.4, 0.1$ balioei. Horretarako, erabili Gauss-Newtonen bi iterazio $\mathbf{x} = (1, 1)^T$ puntutik. Bilaketa linealerako, erabili atzeranzko bilaketa, $\lambda = 1$, $\rho = 0.5$ eta $\alpha = 10^{-4}$ hartuz.
20. Froga ezazu [20] liburuko 7.4.3. ataleko (7.35) eta (7.36) adierazpenak, \mathbf{d}_k kalkulatzeko, baliokideak direla.
21. Izan bedi $\mathbf{r} : \mathbb{R} \rightarrow \mathbb{R}^3$, non $r_i = e^{t_i x} - y_i$, $i = 1, 2, 3$, eta $f(x) = \frac{1}{2} \mathbf{r}(x)^T \mathbf{r}(x)$, non datu hauek baititugu:

$$(t_1, y_1) = (1, 2) \quad (t_2, y_2) = (2, 4) \quad (t_3, y_3) = (3, \cdot).$$

Jo dezagun y_3 -ren balioak eta x_0 hasierako puntuak balio hauek har ditzaketela:

- (a) $y_3 = 8$ eta $x_0 = 1$.
- (b) $y_3 = -1$ eta $x_0 = 0$.

Ebatzi problema hau (a) eta (b) kasuetan, Newtonen metodoaz eta Gauss-Newtonen metodoaz, urratsaren luzera aldatu barik (hots, λ erabili gabe). Metodo bakoitzeko, bukatu iterazioak $\|\nabla f(\mathbf{x}_k)\|_\infty < 10^{-5}$ denean. Zer gertatzen da kasu bakoitzean? Zergatik?

MATLABez programatzeko problemak:

22. Ekuazio ez-linealen sistematarako, [20] liburuko 7.1. Newtonen metodoaren algoritmoa dugu. Eraiki M-fitxategi bat goiko algoritmoa inplementatzeko. Fitxategi horren izena `snewton.m` izango da.
- (a) Gogora ezazue goiburu hau izan behar duela:

```
function [x,nf,err,ze,i]=snewton(x0,emax,zemax,imax),
```

 non `nf` funtzio-balioztatze kopurua baita.
 - (b) $\mathbf{f}(\mathbf{x})$ bektorea kalkulatzeko, funtzio bat definitu behar da M-fitxategi baten bidez, `fun.m` izenekoa (ez ahaztu bektoreak zutabeak direla idazkera matritzialean).
 - (c) Era antzeko batean kalkulatu da $\mathbf{f}(\mathbf{x})$ -ren deribatua; hots, $\mathbf{J}(\mathbf{x})$ matrizea kalkulatzeko, M-fitxategi bat eraikitzen da, `Jfun.m` izenekoa.
 - (d) Lehenengo urratsean \mathbf{x}_k punturako \mathbf{f} funtzioaren eta \mathbf{J} deribatuaren balioak kalkulatu dira iterazio horretan.
 - (e) Algoritmo horren 2. urratsean, [20] liburuko (7.3) Newtonen sistema ebatzi behar dugu. Urrats horretan, erabili *LU* deskonposizioa eta aurreranzko eta atzeranzko ebazpenak.
 - (f) Sistema ebatzi eta gero, \mathbf{x}_{k+1} berria izango dugu; hor (4. urratsean) erabiliko dugun norma infinitu-norma izango da. $\|\mathbf{p}_k\|_\infty / \|\mathbf{x}_{k+1}\|_\infty < ze$ edo $\|\mathbf{f}(\mathbf{x}_{k+1})\|_\infty < emax$ edo $i = imax$ denean, gelditu egiten da; bestela, 1. urratsera joango da.
 - (g) Izan bedi $\mathbf{f}(\mathbf{x}) = \begin{bmatrix} x^2 + y^2 - 2 \\ e^{x-1} + y^3 - 2 \end{bmatrix}$. Ebatzi $\mathbf{f}(\mathbf{x}) = \mathbf{0}$ sistema Newtonen metodoaz, zuk eraikitako kodearen bitartez. Hartu $\mathbf{x}_0 = (2, 2)^T$, $ze = 10^{-6}$, $emax = 10^{-6}$ eta $imax = 20$.
23. (a) Eraiki `J=dfjfun(x)` goiburuko M-fitxategi bat, $\mathbf{J}(\mathbf{x})$ matrize jakobiarra hurbiltzeko diferentzia finituzko metodoak erabiliz; ikus [20] liburuko 7.2.1. atala, non $h = \sqrt{\varepsilon_M}$ (MATLABen `eps`= ε_M da).
- (b) Aurreko kodea ondo ibiltzen dela egiaztatu eta gero, eraiki beste kode bat, non $\mathbf{J}(\mathbf{x})$ matrize jakobiar hurbildu hori baita. Haren goiburua hau izango da:

```
function [x,nf,err,ze,i]=dfnewton(x0,emax,zemax,imax),
```

 non `nf` funtzio-balioztatze kopurua baita.

Funtzio horrek Newtonen metodoaren funtzioarena egingo du, baina berari matri-ze jacobiar hurbildua emanaz, ez benetakoa. Berak jacobiarren balio hurbildua lortuko du, `dfjfun.m` erabiliz.

- (c) Ebatzi aurreko ariketaren azken atala, parametro berdinekin, `dfnewton` funtzioa erabiliz. Gero, kodean, aldatu h -ren balioa $h = 0.1, 0.01, 0.001, 0.0001$ desberdinetarako, eta, taula batez, konparatu bere eraginkortasuna: iterazio kopurua eta funtzio-balioztatze kopurua.

24. Implementatu [20] liburuko 7.2. algoritmoa: Quasi-Newton metodoa, matrize hessiarra Broydenen metodoaz eguneratuz. Haren goiburua hau izango da:

```
function [x,nf,err,ze,i]=qnewton(x0,emax,zemax,imax),
non nf funtzio-balioztatze kopurua baita.
```

Ebatzi 22. ariketako (g) atala, parametro berdinekin, `qnewton` funtzioa erabiliz.

25. Konparatu 22.(g) ataleko problemarako 22.-24. ariketetako hiru kodeen eraginkortasuna, taula bat sortuz eta zutabe bakoitzean metodo bakoitzerako funtzio-balioztatze kopurua eta iterazio kopurua idatziz. Zer ondorio atera dezakezu?

6.2. Problema batzuen ebazpena

1. Sistema ebazteko 6.1. algoritmoari jarraitzen diogu.

$\mathbf{x}_0 = [0.5 \ 0.5 \ 0.5]^T$ dugu eta $\mathbf{f}(\mathbf{x}) = [f_1(\mathbf{x}) \ f_2(\mathbf{x}) \ f_3(\mathbf{x})]^T$, non

$$\begin{aligned} f_1(x, y, z) &= x^2 + y^2 + z^2 - 1 = 0 \\ f_2(x, y, z) &= 2x^2 + y^2 - 4z = 0 \\ f_3(x, y, z) &= 3x^2 - 4y + z^2 = 0. \end{aligned}$$

$i = 0$ denean,

$$\mathbf{f}(\mathbf{x}_0) = \begin{bmatrix} -0.25 \\ -1.25 \\ -1 \end{bmatrix}$$

$\|\mathbf{f}(\mathbf{x}_0)\|_\infty = 1.25 > 6.0 \cdot 10^{-5}$ denez, \mathbf{x}_1 bektore berri bat kalkulatu behar dugu. Orduan, $\mathbf{J}(\mathbf{x}_0)$ kalkulatu dugu:

$$\mathbf{J}(\mathbf{x}_0) = \begin{bmatrix} 1 & 1 & 1 \\ 2 & 1 & -4 \\ 3 & -4 & 1 \end{bmatrix}$$

$\mathbf{J}(\mathbf{x}_0)\mathbf{p}_0 = -\mathbf{f}(\mathbf{x}_0)$ sistema LU metodoaz ebaztean, hau dugu:

$$\mathbf{P} = \begin{bmatrix} 0 & 0 & 1 \\ 0 & 1 & 0 \\ 1 & 0 & 0 \end{bmatrix}, \quad \mathbf{L} = \begin{bmatrix} 1 & 0 & 0 \\ 0.66667 & 1 & 0 \\ 0.33333 & 0.63636 & 1 \end{bmatrix}, \quad \mathbf{U} = \begin{bmatrix} 3 & -4 & 1 \\ 0 & 3.66667 & -4.66667 \\ 0 & 0 & 3.63636 \end{bmatrix},$$

hau lortuz:

$$\mathbf{p}_0 = \begin{bmatrix} 0.375 \\ 0 \\ -0.125 \end{bmatrix}, \quad \mathbf{x}_1 = \mathbf{x}_0 + \mathbf{p}_0 = \begin{bmatrix} 0.5 \\ 0.5 \\ 0.5 \end{bmatrix} + \begin{bmatrix} 0.375 \\ 0 \\ -0.125 \end{bmatrix} = \begin{bmatrix} 0.875 \\ 0.5 \\ 0.375 \end{bmatrix}$$

$i = 1$ denean,

$$\mathbf{f}(\mathbf{x}_1) = \begin{bmatrix} 0.15625 \\ 0.28125 \\ 0.43750 \end{bmatrix}$$

$\|\mathbf{f}(\mathbf{x}_1)\|_\infty = 0.43750 > 6.0 \cdot 10^{-5}$ denez, \mathbf{x}_2 bektore berri bat kalkulatu behar dugu. Orduan, $\mathbf{J}(\mathbf{x}_1)$ kalkulatu dugu:

$$\mathbf{J}(\mathbf{x}_1) = \begin{bmatrix} 1.75 & 1 & 0.75 \\ 3.5 & 1 & -4 \\ 5.25 & -4 & 0.75 \end{bmatrix}$$

$\mathbf{J}(\mathbf{x}_1)\mathbf{p}_1 = -\mathbf{f}(\mathbf{x}_1)$ sistema LU metodoaz ebaztean, hau dugu:

$$\mathbf{P} = \begin{bmatrix} 0 & 0 & 1 \\ 0 & 1 & 0 \\ 1 & 0 & 0 \end{bmatrix}, \quad \mathbf{L} = \begin{bmatrix} 1 & 0 & 0 \\ 0.66667 & 1 & 0 \\ 0.33333 & 0.63636 & 1 \end{bmatrix}, \quad \mathbf{U} = \begin{bmatrix} 5.25 & -4 & 0.75 \\ 0 & 3.66667 & -4.5 \\ 0 & 0 & 3.36364 \end{bmatrix},$$

hau lortuz:

$$\mathbf{p}_1 = \begin{bmatrix} -0.0851834 \\ -0.0033784 \\ -0.0050676 \end{bmatrix}, \quad \mathbf{x}_2 = \mathbf{x}_1 + \mathbf{p}_1 = \begin{bmatrix} 0.875 \\ 0.5 \\ 0.375 \end{bmatrix} + \begin{bmatrix} -0.0851834 \\ -0.0033784 \\ -0.0050676 \end{bmatrix} = \begin{bmatrix} 0.78982 \\ 0.49662 \\ 0.36993 \end{bmatrix}$$

$i = 2$ denean,

$$\mathbf{f}(\mathbf{x}_2) = \begin{bmatrix} 0.0072933 \\ 0.0145238 \\ 0.0217943 \end{bmatrix}$$

$\|\mathbf{f}(\mathbf{x}_2)\|_\infty = 0.0217943 > 6.0 \cdot 10^{-5}$ denez, \mathbf{x}_3 bektore berri bat kalkulatu behar dugu. Orduan, $\mathbf{J}(\mathbf{x}_2)$ kalkulatu dugu:

$$\mathbf{J}(\mathbf{x}_2) = \begin{bmatrix} 1.57963 & 0.99324 & 0.73986 \\ 3.15927 & 0.99324 & -4 \\ 4.73890 & -4 & 0.73986 \end{bmatrix}$$

$\mathbf{J}(\mathbf{x}_2)\mathbf{p}_2 = -\mathbf{f}(\mathbf{x}_2)$ sistema LU metodoaz ebaztean, hau dugu:

$$\mathbf{P} = \begin{bmatrix} 0 & 0 & 1 \\ 0 & 1 & 0 \\ 1 & 0 & 0 \end{bmatrix}, \quad \mathbf{L} = \begin{bmatrix} 1 & 0 & 0 \\ 0.66667 & 1 & 0 \\ 0.33333 & 0.63569 & 1 \end{bmatrix}, \quad \mathbf{U} = \begin{bmatrix} 4.73890 & -4 & 0.73986 \\ 0 & 3.65991 & -4.49324 \\ 0 & 0 & 3.34956 \end{bmatrix},$$

hau lortuz:

$$\mathbf{p}_2 = \begin{bmatrix} -4.6062 \cdot 10^{-3} \\ -1.0229 \cdot 10^{-5} \\ -9.6016 \cdot 10^{-6} \end{bmatrix}, \quad \mathbf{x}_3 = \mathbf{x}_2 + \mathbf{p}_2 = \begin{bmatrix} 0.78982 \\ 0.49662 \\ 0.36993 \end{bmatrix} + \begin{bmatrix} -4.6062 \cdot 10^{-3} \\ -1.0229 \cdot 10^{-5} \\ -9.6016 \cdot 10^{-6} \end{bmatrix} = \begin{bmatrix} 0.78521 \\ 0.49661 \\ 0.36992 \end{bmatrix}$$

$i = 3$ denean,

$$\mathbf{f}(\mathbf{x}_3) = \begin{bmatrix} 2.1217 \cdot 10^{-5} \\ 4.2434 \cdot 10^{-5} \\ 6.3650 \cdot 10^{-5} \end{bmatrix}$$

